



Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Internet bidezko graduondokoa.

Ikaslea: Abel Irizar Mantzizidor

SAKONTZE EGITASMOA:

PROPOSAMEN EKOLINGUISTIKO BAT

FAGOR ETXETRESNA ELEKTRIKOAK KOOPERATIBAREN NAZIOARTEKOTZERAKO

Tutorea: Pablo Suberbiola Unanue

AURKIBIDEA

SARRERA	3. or.
1. ATALA: Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologia.....	6. or.
1.1. Munduko hizkuntzen egoera eta garapena	6. or.
1.2. Hainbat kontzeptu interesgarri.....	11. or.
1.3. Bioaniztasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren arteko lotura estua	12. or.
1.4. Munduko hizkuntza-aniztasuna, gero eta urriagoa	18. or.
1.5. Hizkuntza-ekologiaren bidea: zer egin, eta nola egin?	18. or.
1.6. Hizkuntzen galtze eta berreskuratze prozesuetan arlo sozioekonomikoak daukan kokapena eta garrantzia	20. or.
1.7. Aniztasuna: gizakion erakargarri eta ekonomiaren indargarri	24. or.
2. ATALA: Enpresako gestioaren eta hizkuntza-garapen iraunkorraren arteko lotura	26. or.
2.1. Enpresen gestioa eta hizkuntzen gestioa, elkarren eskutik	26. or.
2.2. Zergatik ez funtzionatu hizkuntza bakarrean? Ez al da merkeagoa hizkuntza bakarrean funtzionatzea?	26. or.
2.3. Zein da arazoa: hiztun-komunitate gutxitua, ala enpresen hizkuntza-politika?	28. or.
2.4. Zertan lagun diezaioke hizkuntza-garapen iraunkorrak enpresei?	28. or.
2.5. Zeintzuk dira Fagorren balioak? Zer egiten du Fagorrek ekologiaren alde? ...	36. or.
2.6. Erakundeen gizarte erantzukizuna eta hizkuntza-garapen iraunkorra: bien arteko interakzioa eta osagarritasuna	39. or.
3. ATALA: Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibaren nazioartekotzea: hizkuntza-gestioaren azterketa eta etorkizunerako proposamena	43. or.
3.1. Enpresaren ezaugarriak	43. or.
3.2. Hizkuntza-politikaren azterketa eta hizkuntzen maparekiko alderaketa	46. or.
3.3. Planta bakoitzeko hizkuntza-jardunaren balorazioa eta ondorio nagusiak ...	54. or.
3.3.1. Euskal Herriko plantak	
3.3.2. Poloniako planta	
3.3.3. Marokoko planta	
3.3.4. Frantziako plantak	
3.3.5. Italiako planta	
3.3.6. Shangaiko planta	
3.4. Ondorio orokorrak eta etorkizunerako proposamena	65. or.
3.4.1. Ondorio orokorrak	
3.4.2. Irizpideak eta jarraibideak	
3.4.3. Etorkizunerako proposamen teoriko-praktiko bat	
3.5. Proposatutako hizkuntza-politikaren oinarriak eta azalpenak	72. or.
4. LABURPENA, HAMALAU ESALDITAN	79. or.
5. BIBLIOGRAFIA	80. or.
6. ERANSKINAK	83. or.

SARRERA

Mundua globalizazio-prozesuan murgilduta dago. Gaur egun munduko leku batetik besterako distantziak txikitzen ari dira: Euskal Herrian jaten ditugun fruta eta arraina Mauritaniatik ekarritakoak izan daitezke, etxeko altzariak Thailandian ekoizitakoak, soinean daramatzagun jantziak Txinan eginak, autoa Japoniakoa, etxeko hozkailua Poloniako fabrika batean egina, eta entzuten ari garen musika ordu erdi lehenago Australiako zibernauta bati Internet bidez kopiatutakoa. Esaterako.

Informazioaren teknologiei esker, gainera, gertatu ahala dakigu zer gertatzen ari den munduaren beste aldean. Informazioaren gizartean bizi gara eta komunitateen arteko harremanak eta komunikazio sareak sortzen eta aldatzen ari dira etengabe munduan. Pertsonen batetik besterako joan-etorria ere asko hazi da azken urteetan. Eta horri emigrazioaren fenomenoak gaineratu behar zaio.

Aldaketa teknologiko, ekonomiko, sozial eta kultural ugari dakar, hortaz, ezinbestean, globalizazioak. Hizkuntzen arteko harremanen konfigurazioa ere aldatzen ari da, eta globalizazioa hizkuntzen osasunean zuzenean eragiten ari da, noski. Gizarte mailako edozein aldaketak eragina dauka hizkuntza-jardunean, jardun guztietarako erabiltzen baitugu hizkuntza. Bada, halaxe gertatzen ari da hizkuntzekin, oro har, eta baita hizkuntza gutxituekin ere. Kasurik gehienetan minorizazio-prozesua azkartzea eta komunitate txikiak desagitea ekar dezakeela diote adituek. Bestalde, globalizazioaren aurrean hizkuntza gutxituei aukera berriak ere ikusten dizkiote beste zenbait adituk. Ados daude denak, hala ere, globalizazioak bere arriskuak badituela onartzean, eta onura edo kaltea eragin, aldaketak etorri etorriko zaizkiela munduko hizkuntza-komunitate txiki gehienei.

Ekonomiaren alorrean ere nabarmenak dira gertatzen ari diren aldaketak. Mugarik gabeko merkatua da gaur egungoa. Enpresa multinazionalak mundu osoa dute merkatutzat, eta kapitalismoaren eredu neoliberalak zabaldua ditu hegoak mundu osora. Izan ere, mundializazio-prozesu hori guztia eredu ekonomiko horren itzalpean gertatzen ari da. Hau da, hein handi batean, kapitalismo eredu basatiak eraginda gertatzen ari da hori guztia. Eta, batez ere, mende baldeko gizartean dauka bete-beteko eragina. Gu gara munduko ondasun gehien saltzaile eta kontsumitzaile; gu gara munduko hondakin gehien sortzaile; gu gara munduko energia kontsumoaren premiarik handiena dugunok.

Hala ere, eskulan merkea eta lehengaiak herrialde pobreagoetan daudenez, horiek ustiatzen ditugu. Han sortzen ditugu etekin-aukerak, han egiten ditugu hemen diseinatutako produktuak. Han sortzen ditugu hondakinak, eta etekinak hemen poltsikoratzen ditugu. Beraz, multinazionalen esku-hartzeak ere badauka eragina herrialde pobreetan, eta hara ere iristen ari da globalizazioaren arrastoa.

Enpresak, merkatua ireki eta globalizatu egin denez, negozio-aukera berrien bila atera dira mundura, mantenduko badira lehiakortasuna mantendu beharra daukate-eta. "Hazi ala hil, ez dago beste erremediorik", horixe da sarritan entzuten dugun leloa. Eta, halaxe, prozesu horretan sartu eta mundu zabalera atera dira euskal enpresa asko ere. Mundu osoko hedapena duten enpresa multinazional erraldoiak etekin izugarriak ateratzen ari dira, eta multinazional askok botere-maila handia eskuratu dute munduan. Ez da erraza izango, gero, haien ondoan orpoz orpo lehiatzea eta onik ateratzea.

Baina, zer nolako politika darabilte mundu osora zabaldua dauden enpresa multinazional horiek? Etekin ekonomiko azkarrari soilik begiratuta lan egiten al dute? Zein hizkuntzatan mintzatzen dira? Zein balio dituzte? Zein onura klase eskaintzen diote lekuan lekuko komunitateari? Txertatzen eta integratzen al dira benetan lekuan lekuko gizartean?

Eta zertan dira euskal enpresak? Nazioartekotze prozesuan murgildu berri diren gure enpresek erakusten al dute *bestelako* sentsibilitaterik? Zein balio dituzte? Zenbateraino hartzen dute kontuan kultur eta hizkuntza aniztasuna? Hartzen al dute inolako neurri ekologikorik? Zer gehiago egin dezakete?

Horiexek dira nire azterketa-lan honen iturburuko kezka eta galdera nagusiak. Honako hau azterketa xumea eta azalekoa besterik ez bada ere, balekoa izan daitekeela uste dut gutxienez bi helburu lortzeko:

- Errealitatea ezagutzeko: nazioartera zabaldutako euskal enpresa baten hizkuntza-jardun orokorra ezagutzea eta funtzionamendu mekanismoak ulertzea, hasteko.
- Hausnarketa eragiteko: hizkuntzen gaia mahai gainean jarri eta eztabaida eragitea. Alegia, hizkuntzen gestiorako kultura eta aniztasunaren aldeko diskurtso filosofikoa barneratzen hastea.

Hizkuntza-ekologiaren eta garapen iraunkorraren lentea erabili ditut lana osatzeko. Izan ere, hizkuntza-ekologiaren paradigma teorikoa enpresa handien gestioarekin uztartzeko saiakera da honako hau.

Hiru ataletan banatu dut egitasmoa:

- Hizkuntza-ekologiaren inguruko diskurtsoaren zertzelada nagusiak jaso.
- Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa nazioartera zabaldutako enpresen gestioarekin uztartzeko eta lotura-puntuak bilatzeko saiakera.
- Fagor Etxetresna Elektrokoak enpresa-taldeak nazioartekotze-prozesuan darabilen hizkuntza-praktika aztertzea, ondorioak ateratzea, eta proposamen orokor bat prestatzea, hizkuntza-ekologiaren eta iraunkortasunaren arrastoari jarraituz.

Amaitzeko, eskaini didazuen laguntza esker onez estimatu nahi dizuet gai hau lantzen bidelagun izan zaituztedan guztioi, bereziki Fagorreko langileoi.

**Hizkuntza aniztasuna ondare bat da,
ez arrisku bat**

Claude Hagège

It is, in the first place, absurd to assume that a language spoken as a first tongue by a small percentage of the world's population (English), and by under 20% of the population of the European Union, can be sufficient to understand the modern world: 90% of the Internet may be in English, but 70% of the world's books are not. The English-speaking world is not now, any more than it was in the nineteenth century, the repository of all or even most wisdom

Professor Fred Halliday, LSE

***We must embrace the world and speak its language
if we want to be in pole position for business***

Sir Digby Jones, former Director General, CBI

Kol'ko jazykov vieš, tol'kokrat si človekom
Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, pertsona osoagoa zara
(Eslovakiako esaera zaharra)

***Mejorar el medio ambiente a través del progreso tecnológico
puede mejorar nuestra competitividad y crecimiento económico,
eso es el Desarrollo Sostenible***

Margaret Wallstrom

Isiltasuna ere, tokian tokikoa da
Karlos Linazasoro (Aforismoak)

1. ATALA: Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologia

1.1. Munduko hizkuntzen egoera eta garapena

▪ Mundua aldatzen ari da: globalizazioaren eragina

Le Monde Diplomatique aldizkariak Atlas berria argitaratu zuen 2003an. Atlas horrek **munduak izan dituen aldaketak** jasotzen ditu eta pasarte interesgarrien bilduma egin dute Interneten, besteak beste:

En pocos años hemos cambiado de mundo:

-"Frente a la urbanización masiva y a la creciente precariedad, la comunicación es también, para la mayoría de la humanidad, una herramienta de supervivencia, tanto económica como psíquica".

-"En India han permitido la creación del Simputer, un ordenador de muy bajo precio".

-"En el mundo se hablan cerca de 5.000 lenguas. Hay cerca de 5.000 lenguas y algo menos de 200 Estados".

-"Si persisten las actuales tendencias, la mayoría de los seres humanos acabarán hablando una lengua vernácula en su vida cotidiana y un idioma internacional (sobre todo el inglés) para las actividades de mayor jerarquía".

-"Terminó dejando el control de la información en manos de un puñado de grandes grupos".

-"Las redes mundiales entran en una guerra sin cuartel por la compra de los grupos debilitados".

-"El polo estadounidense continúa su expansión, en detrimento de los europeos, divididos e incapaces de fortalecer su posición ante América del Norte".

-"En la década del 2020, padecerá escasez de agua casi un tercio de la población mundial".

-"Para los países productores de materias primas (excepto el petróleo) la situación es más sombría".

-"La situación de esos países tiende a empeorar a medida que avanzan los sustitutos de los productos agrícolas, minerales y metalúrgicos, desarrollados por las industrias químicas y de biotecnología de los países industrializados".

-"Las ventas de las empresas multinacionales fuera de su país de origen equivalen al doble de las exportaciones mundiales. Estas compañías, cortejadas por gobiernos nacionales y locales, son cada vez más cuestionadas por diversas asociaciones que buscan hacer respetar las normas que protegen los derechos humanos y el medio ambiente.

De las 100 multinacionales más grandes del mundo, 53 son europeas y 23 estadounidenses. Estas compañías cuentan, de hecho, con poder político, debido a los estrechos vínculos que mantienen con los Estados de sus países de origen y de implantación".

-"Frente a la sumisión creciente de los Estados, emergió un movimiento internacional a favor de que las multinacionales respeten las normas en materia de derechos humanos, legislación laboral y medio ambiente".

Globalizazioaren eta **merkataritzaren liberalizazioaren eragina** nabarmen ari da noizten gure planeta. Enpresa handien eragina ere gero eta handiagoa da munduan. Mundializazio horrek eraginda, **presio-taldeak** sortzen ari dira, eta multinazionalak eskatzen diete beraien jarduna nolabait gizatiarragoa izan dadin.

Bestalde, globalizazioaren eraginez asko zabalitzen ari da **ingelesaren erabilera mundu osoan**. Askok hizkuntza neutral gisa hartzen dute ingelesa; ez da hala, ordea. Ingelesa kultura anglosaxoiaren sinboloa da, eta horrek baditu makina bat konnotazio saihestezin. Argi azaltzen du hori Unescok Munduko hizkuntzei buruzko txostena liburuan:

Ingelesa ez da, inondik inora, gizateria nazioarteko bihurtuz joatearekin lotutako hizkuntza neutrala. Guk nahi izan ala ez, ingelesa kultur mota zehatz eta jakin

batekin lotzen da; beste edozein bezain duin eta baliotsua, noski, baina inola ere ez maila altuagokoa. (...)

Hizkuntza zehatz bat darabilgunean, horrek zantzuzko erreferentzia bat ematen du, nahita edo ez, erreferente edo eredu kultural zehatz batzuei buruz. Ingelesaren (eta beste hizkuntza batzuen) irudi neutrala helburu inperialistetarako erabiltzen da. Hala baieztatzen du esplizituki Phillipson-ek:

"Ingelesa neutrala dela baieztatzean (erreminta bat, tresna bat) bereizketa egiten da ingelesaren beraren (kultura) eta horren egiturazko oinarriaren artean (zer duen eta zer egiten duen). (...) Hizkuntza nagusi horrek bere irudia sortu eta goستن du, eta, aldi berean, beste hizkuntzen balioa gutxitu eta horien arteko harremana ezartzen du, bere alde arazoituz."

Honako hau aldarrikatzen dute jarrera inperialista anglosaxoiek: nazioarteko ingelesak kosmopolitago egiten gaitu eta munduko herritar garela sentiarazten digu, albo batera utzita nazionalismo sentimental eta baztertzailleak.

Hizkuntzalari batzuk konturatu dira ingelesa hedatzeak beste kultura eta hizkuntza batzuk menderatzea ekartzen duela, baita horien galera ere:

"Amerikar ingelesa ezin da izan benetako nazioarteko hizkuntza, hau da, guztiei leku guztietan komunikatzea ahalbidetuko dien tresna neutroa. Kultura jakin baten bitartekoa da, eta arriskutsua izan daiteke, gainerako kultura guztiak irentsi eta negozioarako objektu bihur baititzaite (Hagège, 2000)".

(...) "AEBek gero eta nagusitasun sozio-politiko eta sozio-ekonomiko handiagoa dute, eta, gainera, nagusi dira komunikazio bide aurreratuenetan ere. Horrek ingelesa munduko hizkuntzen buruan jartzea ahalbidetu du (May, 2001)."

Ingelesaren zabalkundea oso urrun dago fenomeno natural edo berezkoa izatetik. Badira Britainia Handiak eta AEBek ordaindutako erakundeak, ingelesa nazioarteko hizkuntza bihurtzea xede dutenak. Phillipson-ek (1992) British Council eta United States Information Agency erakundeak aipatzen ditu horien artean; egile horren arabera, hizkuntz inperialismo anglosaxoiaren agentziak dira, eta kultura angloamerikarraren balioen aintzatespena sustatzea dute helburu. Hori, noski, zilegi izan liteke; baina inola ere ez du esan nahi kultura aldetik ingelesa hizkuntza neutrala denik, zenbaitetan esaten den bezala.

Argi ikusten da, beraz, ingelesaren hedapen masiboak kalte handia egiten diola hizkuntzen elkarbizitzari, eta, gainera, pentsaera elebakarreranzko bidea dela.

▪ Hizkuntza-aniztasuna munduan:

Hizkuntzalarien arabera, **munduan 6.000 hizkuntza** inguru daude, 220 bat estatutan banatuta.

Ethnologue-ren katalogoaren arabera, 6,912 dira munduko hizkuntzak. Living Tongues eta National Geographic erakundeek egin berri duten ikerketan, berriz, 6.992 zenbatu dituzte. Unescoren arabera, hauxe da munduko hizkuntzen banaketa, kontinenteka:

- Afrikan: %32 inguru
- Asian: %32 inguru
- Ozeano Barean: %18
- Amerikan: %15
- European: %3

David Crystal hizkuntzalariak dioenez, munduko hizkuntzen **ia %82k 100.000 hitzun baino gutxiago** ditu. Eta hizkuntzen ia %56 10.000 hitzunek edo gutxiagok erabiltzen dute egunerokoa.

Munduko **hizkuntzen %74k ez dute, berez, inolako ofizialtasun estatusik** inon. Hizkuntzen %7 ofizialak edo koofizialak dira herrialderen batean, eta %19 koofizialak dira hitz egiten diren lurraldean edo zati batean.

Munduko **populazioaren %96k munduko hizkuntzen %4 erabiltzen** du, eta munduko populazioaren %4k munduko hizkuntzen %96.

Hizkuntza asko estatu batean baino gehiagotan erabiltzen direnez, administratiboki zatituta geratu dira. Ondorioz, zatiketa horrek eraginda, komunitateko hitzunek era bateko edo besteko hizkuntza-eskubideak izan ditzakete aitortuta eremu administratibo bakoitzean.

Bestalde, hizkuntza batzuek estandarra sortuta daukate. Hala ere, komunitate bakoitzak bere hizkera bereizgarria garatzeko joera dauka, eta horrek talde gisa identifikatu eta beste komunitateekiko mugatzen du.

Hizkuntzen bi funtsezko elementu daukate oinarrian bai aldaketak, bai bereizketak: alde batetik, hizkuntzak gizarte dinamikara etengabe moldatzea; bestetik, berriz, identitate adierazletzat erabiltzea. Bi elementu horiei esker lortzen dute hizkuntzek denboran zehar irautea eta komunitateak nahitaez bizitzen dituen gizarte gorabehera ugarietatik bizirik ateratzea. (...) Hitz egiteko modu jakin bat talde barruko kohesio ikurra eta talde arteko identifikazio ikurra da. (Munduko hizkuntzei buruzko txostena, UNESCO, 2005)

▪ **Hizkuntzen galera historian zehar:**

Honela azaltzen ditu, labur-labur, Ranka Bjeljic-Babic hizkuntzaren psikologiako ikertzaileak hizkuntzen heriotzaren ingurukoak Unescoren aldizkarian:

Hizkuntzen heriotza aspaldiko kontua da. Dibertsifikatzen hasi zirenetik, 30.000 (zenbaiten ustez, 500.000) sortu eta hil dira, gutxienez, sarritan inolako aztarnarik utzi gabe. Gainera, nahikoa denbora laburra egin dute bizirik. Oso hizkuntza gutxi iraun dute 2.000 urte baino gehiago: euskarak, egiptoerak, txinerak, grekerak, hebreerak, latinak, persierak, sanskritoak, familerak...

Konkista kolonialetatik mundializaziora:

Baina, orain, hizkuntzak oso azkar galtzen dira, eta hori fenomeno berria dugu. Egin dezagun, bada, denboran atzera. Europako konkista kolonialen eraginez, hizkuntz aniztasunak behera egin zuen oso denbora laburrean: garai hartako hizkuntzen %15, gutxienez, hil egin zen. Azken hiru mende hauetan, hamar bat hizkuntza galdu dira European. Australian, berriz, 20 baino ez dira geratu, eta kontuan izan behar dugu XVIII. mendearen bukaeran 250 hizkuntza zituztela. Brasilen 540 galdu dira (hiru laurdenak, beraz) 1530etik hona; portugesen kolonizazioa hasi zenetik, alegia. Estatu-nazioen sorrera erabakigarria izan zen. Horrelako egituretan lurralde batasuna eta hizkuntzaren homogeneousazioa banaezinak izaten dira. Ondorioz, nazionalizat hartutako hizkuntzak tinko errotu ziren eta gainontzekoak, aldiz, baztertuta geratu ziren. Hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan hizkuntza bakarra ezartzea izan zen estatuetakiko gobernuen helburu bakarra eta, horretarako, hizkuntza minorizatuak desagerrarazten saiatu ziren. Hizkuntz homogeneousazioaren aldeko prozesua indartu egin zen industrializazioaren eta aurrerapen zientifikoen ondorioz, komunikazio-modu berriak nagusitu baitziren: azkarrak, errazak eta praktikoak. Hizkuntz aniztasuna ezagutzen hedapenaren kontrakoa zela hasi ziren esaten. Elebakartasuna bihurtu zen nahitaez lortu beharreko ideala. XIX. mendearen bukaeran hizkuntza unibertsala aukeratzeko premia hasi ziren aldarrikatzen (latina berriro erabiltzen hastea ere pentsatu zuten) eta hizkuntza artifizial pilo bat sortu zituzten, horrela. Volapük izenekoa izan zen lehenengoa, baina esperantoak izan zuen arrakastarik handiena, eta baita iraupenik luzeena ere. Hizkuntza "txikiak" gero eta mehatxu gogorragoei egin behar izan diete aurre. Hiru arazo nagusi izan dituzte: finantza-merkatuen internazionalizazioa, informazioa komunikabide elektronikoen bidez hedatzeko aukerak eta mundializazioak eragindako gainontzeko ondorioak. Interneten sartzerik ez duten hizkuntzak "galbiderantz" abiatzen dira, gaur egun, "merkatarizatit" at geratzen baitira.

▪ Zer galtzen da hizkuntza bat galtzen dugunean?

Ranka Bjeljic-Babic hizkuntza-psikologiako ikertzaileak hauxe dio Unesco aldizkarian:

Hizkuntzak galtzearen ondorioak ikuspegi askotatik izango dira larriak. Lehenik eta behin, gizaki guztiok elebakar bihurtuz gero, litekeena da burmuinak hizkuntz sormenerako duen berezko gaitasuna galtzen hastea. Bestalde, inondik inora ezingo genuke izan giza hizkuntzen jatorriaren berri eta, jakina, "lehen hizkuntzaren" h misterioa ez litzateke inoiz argituko. Azkenik, hizkuntza bat hiltzen denean, gure historiaren aldi bat ere behin betiko galtzen da. Hizkuntz aniztasuna dugu kultur aniztasunaren islarik nabarmenena. Lehenengoa galduz gero, bigarrena ere galdu egingo da. Askotan, hizkuntza jakin bat -berdin dio eskualde jakin batekoa edo nazioartekoa izan- inposatu nahi izaten zaie hizkuntza horren oso bestelako kultura eta bizimodua dituzten herriei. Hau da, isilarazi egiten da herri horien ahotsa.

(...)Hizkuntzak ez dira gizakion arteko komunikaziorako oinarritzko tresna hutsak. Hitzunen ezaugarri ugari uztartzen dituzte: bizitzari buruzko ikuspegia, irudimena, ezaugarriak irakasteko moduak... Ahaidetasunak ahaidetasun, hizkuntza bakoitzak bere erara islatzen du errealitatea. Has gaitezen, adibidez, hizkuntza guztietan esanahi bera duten hitzen zerrenda egiten. 300 bilduko ditugu, asko jota: adibidez, ni, zu, gu, nor, zer, ez, dena, bat, bi, handia, luzea, txikia, emakumea, gizona, jan, ikusi, entzun, eguzkia, ilargia, izarra, ura, sua, beroa, hotza, zuria, beltza, gaua, lurra...

Joshua A. Fishman-ek hauxe dio gai honen inguruan:

"Guztiak galtzen dute joko horretan, kultura murrizketa jasan duen giza ingurunean arriskuan egon baitaitezke beste bizimodu batzuk ere. Horregatik galtzen dugu guztiok, 'beste herri batzuen hizkuntzak' galtzen direnean. Linguizidioa desagerrarazi egin behar dugu munduko bazter orotatik, gu guztion suizidio modu bat baita. Gure bizitzan benetako edertasunaren eta edertasun potentzialaren parte bat, horixe da munduko edozein bazterretan hizkuntza bat galtzen denean galtzen duguna." (Munduko hizkuntzei buruzko txostena, UNESCO, 2005)

▪ Munduko hizkuntzen auzia: kezka-iturri eta elkarlanerako oinarri

Ranka Bjeljic-Babic ikertzaileak hauxe zioen Unescoren aldizkarian:

1992ko Rioko Gailurrean, bioaniztasunaren murrizketaren kontrako neurriak hartzea erabaki zuten. Heldu zaigu, bada, hizkuntzen arazoari heltzeko unea. Eleaniztasunari dagokionez, XX. mendearen erdian, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean hizkuntz eskubideak ere aitortu zituzten. Orduantxe hasi zen pizten gai horren inguruko kontzientzia eta agerian geratu zen hizkuntzak ere babestu beharreko ondareak direla. Gerora, nazioarteko hainbat proiektu bideratu dira hizkuntzak babesteko asmoz, jadanik gizateriaren ondaretzat hartzen baitira.

Pertsonen eta hizkuntzen arteko ekitate-printzipioan oinarrituta, 1996an Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen Bartzelonan, eta dokumentu horrek erakunde askoren babesa jaso zuen. Ahalegin hartan, hizkuntzen berdintasunean oinarritutako nazioarteko tresna bat abian jarri nahi izan zen, hizkuntzen arteko bereizkeriarekin amaitu ahal izateko. Deklarazio horrek hizkuntza eskubideak definitu eta zerrendatu nahi zituen; zer diren eta zeintzuk diren, baina saiakera horretan geratu zen eta eskubide kolektibo orokorrak jaso ziren bertan.

Horrez gain, 18 estatuk Europako Hizkuntza Gutxituen Karta sinatu zuten 2001ean. Frantziak, esate baterako, ez zuen sinatu.

Hizkuntza aniztasunaren gaia esnatzen hasi da azkenaldian, eta halaxe adierazi du UNESCOk bere aldizkarian: 1999ko abenduan, 69 estatuk eleaniztasunaren aldeko erabaki-proiektua aurkeztu zuten Nazio Batuen Biltzar Nagusian. Orain dela gutxi, hizkuntz aniztasunaren eta hezkuntza eleanitzaren aldeko lau erabaki onartu ditu UNESCOren Biltzar Nagusiak. 2001ean Hizkuntzen aldeko Europako Urtea antolatuko dute Europako Batasunak

eta Europako Kontseiluak, UNESCOren laguntzaz. Proiektu ugari abiarazi nahi dira mundu osoan, lankidetzatik abiatuta.

Azken urteotan hizkuntzen gaia puri-purian egon da mundu osoko hezkuntza-sistemetan. Estatu kideek etengabe eskatzen dizkigute hizkuntz arazoak konpontzeko aholkuak eta, batzuetan, oso arazo konplexuak izaten dira, gainera.

Europar, Afrikan, Asian eta Latinoamerikan argi eta garbi ikusi dute lankidetzak eta konfederazioa izango direla hirugarren milurtekoaren ardatzak eta, ondorioz, ezinbestez uztartu beharko dituztela norberaren nortasuna mantentzeko ahaleginak eta komunikazioaren eskakizunak.

Ba al dago loturarik hizkuntz politikaren eta bake-kulturaren artean?

Zuzeneko lotura dago. Zapalduta dauden ama-hizkuntza minorizatuen hiztunengan egonezina eta barne-gatazkak sortzen dira beti. Eta bere buruarekin lasai ez dagoenak ezin du bestekin lasai egon. Hizkuntza da komunikatzeko balio duen tresna bakarra, hau da, hitz egiteko eta elkar ulertzeko modu bakarra. Berdin dio nolakoa den komunikazioa: idatziz, ahoz edo ziberespazioan gauzatzen den. Hizkuntzez kezkatu behar dugu, elkarriketarako tresna diren aldetik, horixe izango baita intolerantziari eta indarkeriari aurre egiteko bide bakarra. Aipatutako filosofia izan da, hain zuzen, UNESCOren Linguapax proiektuaren oinarria azken hamabost urte hauetan.

2004an, nazioarteko Linguapax topaketak egin ziren Bartzelonan, Hizkuntza-aniztasuna, iraunkortasuna eta bakea izenburuaren pean. Bertan, Miquel Siguan-ek Europarako erregimen berria aldarrikatu zuen, Europako Batasunak hizkuntza guzti-guztiak ofizial izenda zitzaizkien eta hizkuntza-aniztasunaren aldeko aldarrikapen sutua egin zezan.

Amaitzeko, 2005eko azaroan Europako Batzordeak *Una nueva estrategia marco para el multilingüismo* txostena egin zuen eta hizkuntza-aniztasunaren aldeko neurriak bultzatu estatukideen artean:

CONCLUSIONES: El multilingüismo es fundamental para el buen funcionamiento de la Unión Europea. La mejora de los conocimientos lingüísticos de los ciudadanos será igual de importante para alcanzar los objetivos políticos europeos, especialmente ante el aumento de la competencia mundial y el reto de aprovechar mejor el potencial de crecimiento sostenible de Europa, con más y mejores empleos. Consciente de sus propias responsabilidades y de las de las demás instituciones, la Comisión considera que la situación puede y debe mejorarse y, en consecuencia, insta a los Estados miembros a adoptar medidas adicionales para promover el multilingüismo individual a gran escala y fomentar una sociedad que respete la identidades lingüísticas de todos los ciudadanos.

La Comisión ha pedido ya a los Estados miembros que informen en 2007 sobre las medidas que hayan adoptado para alcanzar los objetivos del plan de acción «Promover el aprendizaje de idiomas y la diversidad lingüística». Esta Comunicación destaca los nuevos pasos que deben dar los Estados miembros si quieren alcanzar los objetivos que se han fijado, y la Comisión invita a los Estados miembros a informar también en 2007 sobre las acciones que hayan emprendido en ámbitos fundamentales señalados en la comunicación.

Hortaz, hizkuntza-aniztasunaren aldeko kultura zabaltzen hasita dago eta kezka gero eta handiagoa da. Gauzak oso poliki doaz, baina erakundeak eta eragileak arduratsuago jokatzeko hasiko diren zantzuak daude.

1.2. Hainbat kontzeptu interesgarri

▪ Zer da hizkuntzen garapen iraunkorra?

Garapen iraunkorra: 'Brundtland txostena'-ren arabera, ondorengo belaunaldiak beren beharrak asetzeko ahalmena baldintzatu gabe gaur egungo beharrak ziurtatzeko modua.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren web orrian azalpen hau dator garapen iraunkorraren inguruan:

Txosten horretan ingurugiroaren eta garapenaren arteko lotura datozen hamarkadetan aurre egin beharreko arazo nagusi gisa identifikatu zen.

Munduak 1987. urtean Brundtland Txostenaren lehen ondorioa onartu zuenean, hots, baliabide naturalen balioa neurtu gabe beharrei erantzuten jarraitzea etorkizuneko belaunaldientzat arrisku bat zela, ez zen inongo sekretua munduko pobrezia ingurumenaren degradazioarekin batera handituz zihoala. Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen gizarte baten garapen ekonomikoa uraren erabileraren, lur eta itsasoen garbitasunaren, basoen eta, beraz, bere edertasunaren mende dagoela. Ordutik hona 'garapen iraunkorra' terminoa etorkizuneko erreferente ekonomiko gisa erabiltzen da. Batetik, baliabide naturalen arrazoizko erabilera egitea eskatzen duelako eta, bestetik, ekosistemaren babesa hiritarren, zientziaren eta instituzio publikoen esku uzten duelako.

Hizkuntza-garapen iraunkorra (desenvolupament lingüístic sostenible): esparru komunikatibo handiagoko hizkuntzen ezagutza eta erabilera taldeko hizkuntzen biziraupen eta sustapenarekin bateragarri egitea.

La clave de la sostenibilidad lingüística se encuentra en las políticas lingüísticas de los estados y en la combinación de los principios de personalidad, territorialidad, funcionalidad y subsidiariedad en la ordenación del multilingüismo (A. Bastardas)

▪ Zer da ekolinguistika?

Ekolinguistika ekologiaren eta linguistikaren artean sortutako kontzeptua da, eta hizkuntza guztiak elkarrekin orekan bizitzeko modua proposatzen du.

Hauxe da Linguapax-en 2004ko topaketetan eman zen azalpena:

Para cambiar en pocos años la dinámica actual de muerte de la diversidad puede ser útil intentar entender las lenguas como partes o especies de un ecosistema plural en convivencia e interdependientes las unas de las otras. Esta aproximación ecológica a las lenguas recibe el nombre de ecolingüística y defiende que diversas lenguas pueden cohabitar en una misma zona de forma sostenible, es decir, en un contexto de equilibrio y repartición de usos, en vez de constituir una amenaza las unas para las otras. Se necesita un contexto equitativo entre las lenguas más habladas y las minoritarias, ya que las segundas se encuentran en una situación de fragilidad, sobre todo en el ámbito institucional definido por las políticas de los estados. Este desarrollo sostenible de las lenguas a menudo debe contar con el apoyo de técnicas como por ejemplo la revitalización. Eso sí, para que las lenguas interaccionen y evolucionen de forma sostenible resulta imprescindible una organización institucional y política propia a fin de que cada comunidad pueda gestionar sus recursos y preservar su identidad cultural dentro del ecosistema. De la misma forma que existe una conciencia planetaria sobre el peligro de extinción de muchas especies y la necesidad de mantener la biodiversidad, también es preciso lograr una conciencia colectiva de preservación de la riqueza de la diversidad lingüística.

La era de la sociedad de la información estimula el contacto ilimitado entre culturas. Tenemos que lograr que esta proximidad resulte provechosa en vez de verla como una amenaza. Para ello es necesario un modelo global y sostenible de convivencia entre las lenguas del mundo ya que, en palabras de Joan Antoni Argenter, "cuando se pierde una lengua, desaparece una manera de vivir en el mundo".

▪ Eleaniztasuna: hiztun eleanitzak hizkuntza-aniztasuna indartzeko

Jean-Louis Calvet-ek hezkuntza eleanitza beharrezkoa dela aipatzen du munduko hizkuntza-aniztasuna mantentzen laguntzeko:

La educación multilingüe contribuye a preservar la diversidad lingüística del mundo y hace que los hablantes reconozcan el valor de sus lenguas y amplíen sus funciones sociales. Además, ofrece a los alumnos distintas formas de ver el mundo y, por lo tanto, más capacidad de adaptación y aprendizaje. En conclusión, potencia la conservación cultural, es económicamente viable y obtiene resultados didácticos altamente satisfactorios.

Joseph Poth hizkuntzalariak gorazarre egiten dio eleaniztasunari:

Hiru hizkuntza ikasi behar omen ditugu. Baina, zeintzuk?

Ama-hizkuntza, jakina, inguruko hizkuntzaren bat eta, azkenik, nazioarteko beste bat. UNESCOren hizkuntz politikan baztertu egin dugu "atzeritar hizkuntza" kontzeptua eta "herrialde mugakidearen hizkuntza" terminoa hasi gara erabiltzen. Elkarren ondoan kokatutako estatuen artean sortzen dira gerra gehienak eta horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa herrialde mugakidearen hizkuntza ikastea, bertako premiak, nahiak, kulturak eta balioak ezagutu ahal izateko, alegia.

Elebakartasuna atzerabidea al da?

Asko mugatzen du. Hizkuntza bakar baten ikuspegitik ikusten da mundua, eta hori oso mugatzailea da, noski. Elebakartasunak harrokeria ere eragiten du maiz: botere kultural, politiko, ekonomiko eta militar handia duten estatuetakoak dira elebakarrak izateko aukera duten bakarrak. Elebakartasunak, bestalde, "ziurtasun gabezia" eragiten du hizkuntzan. Aspaldi-aspaldiko errealtate baten isla dugu kontzeptu berri hori. UNESCOren nazioarteko bileretan ere ama-hizkuntza nahikoa ezezagunak dituztenak isilik egoten dira askotan. Ideia bikainak bururatu arren, ez dira ezer esatera ausartzen, gure erakundeko hizkuntza ofizialetan ez direlako eroso sentitzen.


Iturria: UNESCOren ALBISTARIA aldizkaria, 119. alea (2000ko urria)

1.3. Bioaniztasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren arteko lotura estua

Ranka Bjeljic-Babic ikertzaileak honela azaltzen du bi kontzeptuen arteko lotura:

Hizkuntza aniztasunak eta bioaniztasunak arrisku berberak dituzte: batetik, hizkuntza gehienak galzorian dauden "espezieak" direlako eta, bestetik, aniztasun biologikoaren eta kulturalaren artean barne-barneko lotura kausala dagoelako. Arriskuan dauden hizkuntzak endemikoak dira, landareak eta animaliak bezala, edo bestela, esparru txiki baten muga baita daude. Aniztasun biologikorik handieneko estatuen %80an daude, hain zuzen, hizkuntza endemiko gehienak. Zergatik gertatzen da hori? Giza taldeek lekuan lekuko ingurunearen arabera eboluzionatu eta moldatu behar izaten dutelako. Ondorioz, ezagutza jakin batzuk hartzen eta sortzen dituzte ingurune jakin horretatik abiatuta, eta hizkuntza izaten da ezagutza horien isletako bat edo, askotan, isla bakarra. Hizkuntzak hiltzorian dituzten herri batzuk dira, gaur egun, arriskuan dauden baliabide naturalei buruzko ezagutzak dituzten bakarrak. Hizkuntza horiek hilez gero, ingurumenari buruzko ezagutza tradizionalak ere bertan galduko dira.

Aniztasun biologiko eta kultural handieneko guneak gorriz markatuta daude irudi honetan:



Munduko hizkuntza-aberastasunaren indizeak:

Terralingua irabazi-asmorik gabeko nazioarteko erakundea da eta aniztasun biologikoa, kulturala eta linguistikoa sustatzeko helburuarekin sortu zen. David Harmon eta Jonathan Loh-ek munduko Aniztasun Biokulturalaren Indize Globalak kalkulatu dituzte Terralinguarentzat egindako ikerketa batean. Hortik atera dute 238 herrialdez osatutako aniztasun biologiko eta kulturalaren ranking-a.

Ikerketa horretan bertan ondorio bat atera eta **frogatuta** utzi dute: **aniztasun kulturalaren eta bioaniztasunaren artean dagoen korrelazioa**. Hizkuntza aniztasuna handia den kasuetan, bioaniztasuna ere handia da. Eta alderantziz.

Munduko aniztasun biologikoa kalkulatzeko, honako parametro hauek kontuan hartu dituzte:

- Espezieen aberastasuna eta populazio kopurua
- Habitat naturalaren azalera eta kalitatea
- Espezie eta azpiespezieen bariedade genetikoa
- Arriskuan dauden espezieen estatusa edo egoera

- Erreserba naturalen eta gune babestuen hedadura

Munduko aniztasun biokulturalaren indizea (bioaniztasuna+kultur aniztasuna), aldiz, beste faktore hauek kontuan hartuta atera dituzte:

- Herrialde bakoitzeko hizkuntza kopurua
- Erlijio kopurua
- Talde etniko ezberdinen kopurua
- Hegazti eta ugaztun espezie kopurua
- Landare kopurua

Hizkuntzen atalari dagokienez, 3 modutara egin dituzte hizkuntza-aniztasunaren inguruko kalkulu logaritmikoak.

a) Herrialde bakoitzak daukan hizkuntza-kopuru soilaren arabera:

Herrialde bakoitzeko hizkuntza-kopurua (hizkuntza-aberastasuna) konparatu da mundu osoko hizkuntza-kopuruarekin (munduko hizkuntza-aberastasuna), eta hortik aniztasun-indizeen ranking-a atera da.

Calculating IBCD-RICH. To generate the raw richness component of the index (IBCD-RICH), we compared each country's value with the global richness value. For example, staying with language diversity, the index is calculated as the log of the number of languages spoken in a country divided by the log of the number of languages spoken worldwide.

The total number of languages currently spoken is 6,800 ($\log 6,800 = 3.83$).

IBCD: Index of Biocultural Diversity (Aniztasun Biokulturalaren Indizea)

LD-RICH: Language Diversity – Richness (Hizkuntza Aniztasuna - Aberastasuna)

Representative Log L values			
Country/Territory	N° languages spoken (L)	Log L	Language Diversity index LD-RICH ($\log L_i / \log L_{world}$)
World	6,800	3.83	1.000
Papua New Guinea (highest)	833	2.92	0.762
Mali (average)	45	1.65	0.431
Bermuda (lowest)	1	0.00	0.000

Iturria: A Global Index of Biocultural Diversity

Discussion Paper for the International Congress on Ethnobiology. University of Kent, U.K., June 2004 (Terralingua)

b) Herrialde bakoitzaren azalerak (tamainak) hizkuntza-kopuruan izan dezakeen eragina konpentsatuta:

Azalera handia dutenek normalagoa da hizkuntza gehiago izatea. Hortaz, hori konpentsatu egin da bigarren kalkulu honetan.

Calculating IBCD-AREA. To compensate for the fact that large countries tend to have a greater cultural and biological diversity than small ones simply because of their greater area, a second component of the IBCD adjusts the BCD value for each country by accounting for its land area. This was done by calculating how much more or less diverse a country is in comparison with an expected value based on its area alone. For example, if they were typical for their respective land areas, one would expect about 36 or 37 languages to be spoken in Papua New Guinea and about 50 languages to be spoken in Mali. Therefore, based on their areas, Papua New Guinea is vastly more diverse than one would expect, whereas Mali is slightly less diverse than one would

expect. The method is a modified version of that used by Groombridge and Jenkins (2002).

Examples of IBCD-AREA methodology using language diversity data							
Country	Area (A) [thousand km ²]	Log A	No. languages spoken (L)	Log L	Expected log L value	Deviation from expected value (D)	Language diversity index LDAREA
World	136,605	8.14	6,800	3.83	2.33	1.50	1.000
Papua New Guinea	463	5.67	833	2.92	1.56	1.36	0.954
Turkmenistan	488	5.69	37	1.57	1.57	0.00	0.525
Greenland	2,176	6.34	2	0.30	1.77	-1.47	0.062
Minimum Value	1,000	6.00	1	0.0 0	1.67	-1.67	0.000

Iturria: A Global Index of Biocultural Diversity
Discussion Paper for the International Congress on Ethnobiology. University of Kent, U.K., June 2004
(Terralingua)

c) Herrialde bakoitzaren populazioak hizkuntza-kopuruan izan dezakeen eragina konpentsatuta:

Populazio handiko herrialdeetan hizkuntza gehiago egotea normala litzateke. Hortaz, horrek izan dezakeen karga ere kendu egin zaio hizkuntza-aniztasunaren kalkulari hirugarren kasu honetan.

Calculating IBCD-POP. Finally, a third component of the index, IBCD-POP, compensates for the fact that more populous countries tend to have greater cultural diversity than small ones because of greater population size. This was done in the same way as compensating for area, by calculating deviation from an expected value based on population size alone (...)

Examples of IBCD-POP methodology using language diversity data							
Country	Population [thousand] (P)	Log P	No. languages spoken (L)	Log L	Expected log L value	Deviation from expected value (D)	Language diversity index LD-POP
Max value	6,056,710	6.78	12,000	4.08	2.48	1.60	1.000
Papua New Guinea	4,809	3.68	833	2.92	1.34	1.58	0.994
Pakistan	141,256	5.15	76	1.88	1.88	0.00	0.477
Korea, DPR	22,268	4.35	2	0.30	1.58	-1.28	0.057
Minimum value	10,000	4.00	1	0.00	1.46	-1.46	0.000

Iturria: A Global Index of Biocultural Diversity
Discussion Paper for the International Congress on Ethnobiology. University of Kent, U.K., June 2004
(Terralingua)

Era horretan, aniztasun handiena duten 15 herrialdeen zerrendak ikus daitezke.

Table 4. Highest 15 countries in IBCD-RICH and its component indicators.					
Index of Biocultural Diversity IBCD-RICH	Language diversity index, LDRICH	Religion diversity index, RDRICH	Ethnic Group diversity index, EDRICH	Birds and mammals diversity index, MDRICH	Plants diversity index, PDRICH
Indonesia	Papua New Guinea	Papua New Guinea	Papua New Guinea	Colombia	Brazil
Papua New Guinea	Indonesia	Indonesia	Indonesia	Indonesia	Colombia
Brazil	Nigeria	Nigeria	Nigeria	Peru	China
India	India	India	India	Brazil	Indonesia
China	Australia	Cameroon	USA	Ecuador	Mexico
Nigeria	Mexico	Japan	Cameroon	Venezuela	South Africa
USA	Cameroon	Brazil	Mexico	China	Venezuela
Cameroon	USA	Congo, DR	Congo, DR	Congo, DR	USA
Congo, DR	Brazil	Korea, Rep	China	India	Ecuador
Colombia	Congo, DR	China	Sudan	Mexico	India
Mexico	China	Philippines	Brazil	Argentina	Bolivia
Australia	Philippines	USA	Philippines	Kenya	Peru
Peru	Canada	Malaysia	Malaysia	Uganda	Australia
Malaysia	Malaysia	Sudan	Russia	Myanmar	Malaysia
Tanzania	Sudan	Tanzania	Kenya	Tanzania	Costa Rica

Iturria: A Global Index of Biocultural Diversity
Discussion Paper for the International Congress on Ethnobiology. University of Kent, U.K., June 2004
(Terralingua)

Aniztasun biokulturean eragiten duten faktoreak beraien artean aztertuz gero, oso garbi azaltzen da hizkuntza-aniztasunaren eta biodibertsitatearen arteko harreman eta lotura estua. Horrek esan nahi du kultur aniztasun handia dagoen herrialdeetan bioaniztasuna ere handia dela. Eta korrelazio hori baieztatzen du ondorengo taula honek ere.

Table 8. Correlations between cultural diversity and biodiversity (correlations R2 > 0.6 in boldface)			
Correlation (R2)	CD-RICH	CD-AREA	CD-POP
BD-RICH	0.63	0.07	0.06
BD-AREA	0.08	0.20	0.05
BD-POP	0.08	0.04	0.20

Iturria: A Global Index of Biocultural Diversity
Discussion Paper for the International Congress on Ethnobiology. University of Kent, U.K., June 2004
(Terralingua)

Amaitzeko, hizkuntza endemiko⁽¹⁾ gehien dituzten herrialdeak hartu dira eta herrialde horietan bizirik eta hilda dauden hizkuntza endemikoen arteko lotura aztertu da: konparaketa hori herrialdeka egin ondoren, alboan zehaztu egin da ea hizkuntza menperatzaile edo nagusiagoren baten presentzia dagoen herrialde horretan.

Ondorioa garbia da: hizkuntza menperatzaileen presentziarik ez dagoen lekuetan hizkuntza endemikoen kopurua (aniztasuna) handia da eta oso hizkuntza endemiko

gutxi desagertu dira. Aldiz, hizkuntza menperatzaileraren baten presentzia eta eragina nabarmena den lekuetan, bizirik eta hilda dauden hizkuntza endemikoen proportzioa askoz ere ahulagoa da: bizirik dauden hizkuntza endemikoen kopurua txikiagoa da eta betiko desagertu diren hizkuntza endemikoen kopurua handiagoa.

Table A-3. Comparison of Greenberg A Index values with number of endemic languages, all countries with 50 or more endemic languages, 2000.				
<i>Source: A Index data from Grimes 2000; endemic language data derived from Grimes 2000.</i>				
Country	A Index	Number of living endemic languages	Number of extinct endemic languages	Single dominant language present?
Papua New Guinea	0.990	811	9	no
Cameroon	0.970	197	4	no
Vanuatu	0.970	106	1	no
Solomon Islands	0.970	67	5	no
Tanzania	0.950	100	2	no
Chad	0.950	86	2	no
India	0.930	278	11	no
Dem Rep of Congo	0.920	159	1	no
Côte d'Ivoire	0.910	57	1	no
Nigeria	0.880	446	8	no
Philippines	0.850	152	3	no
Ethiopia	0.840	55	4	no
Indonesia	0.830	688	3	no
Malaysia	0.750	93	1	no
Nepal	0.690	86	1	no
Sudan	0.560	90	8	no
Canada	0.550	48	5	yes (English)
China	0.480	120	1	yes (Mandarin Chinese)
USA	0.350	135	52	yes (English)
Peru	0.350	68	14	yes (Spanish)
Russia	0.270	59	3	yes (Russian)
Australia	0.130	233	31	yes (English)
Mexico	0.130	268	7	yes (Spanish)
Brazil	0.030	145	42	yes (Portuguese)
Colombia	0.030	34	20	yes (Spanish)

Iturria: A Global Index of Biocultural Diversity
Discussion Paper for the International Congress on Ethnobiology. University of Kent, U.K., June 2004
(Terralingua)

Bioaniztasunak, kultur aniztasunak eta hizkuntza-aniztasunak osatzen dute gure planetaren ekosistema, eta hirurak zaintzea eta babestea helburu bera dira. Gure planetak bizi duen ingurumen-krisia gainditu nahi badugu, planteamendu integral batekin erantzun behar diogu.

1.4. Munduko hizkuntza-aniztasuna, gero eta urriagoa

Ikerlari askoren ustez, hizkuntza-desagerpena izango da XXI. mendeko arazo sozialik larrienetakoa.

Mende honetan, munduan mintzatzen diren 6.000 bat hizkuntzen %90 galtzeko arriskuan sartuko dira. Halaxe iragarri zuen 1992an Michael Kraussek. Izan ere, galera-erritmoa azkartzen ari da.

Hizkuntzalarien arabera, hizkuntzek 100.000 hiztun behar dituzte, gutxienez, bizirik iraun ahal izateko. Gaur egun, 6.000 hizkuntza inguru daude munduan: erdiek 10.000 hiztun baino gutxiago dituzte eta laurdenak ezta 1.000 hiztun ere. Hogei dira hainbat milioi hiztun dituzten hizkuntza bakarrak.

Hizkuntzak ez dira inoiz orain bezain azkar galdu: urtean hamar. David Crystal hizkuntzalari ospetsuak dio bi astetik behin hizkuntza bat hiltzen dela. Iragarpenik ezkorrenen arabera, hizkuntzen %50 gutxienez hil egingo dira XXI. mende honetan.

James Crawfordek Ameriketako hizkuntzak aztertu ditu: *"Language loss has been especially acute in North America. No doubt scores, perhaps hundreds, of tongues indigenous to this continent have vanished since 1492. Some have perished without a trace. Others survived long enough for 20th century linguists to track down their last speakers and partially describe their grammars – for example, Mohican in Wisconsin, Catawba in South Carolina, Yahi in California, Natchez in Louisiana, and Mashpi in Massachusetts (Swadesh, 1948).*

While Krauss (1995) estimates that 175 indigenous languages are still spoken in the United States, he classifies 155 of these – 89 percent of the total– as moribund. Increasingly, young Native Americans grow up speaking only English, learning at best a few words of their ancestral tongue."

Hizkuntza-ordezkapena azkartzen ari da, hortaz, Ipar Amerikan (ere), ingelesaren eraginez.

Unesco-k ondorio hauek atera ditu *Munduko hizkuntzen inguruko txostena* liburuan: *"Oraingo joerak kolonialismo garaitik datoz, eta kultura eta hizkuntza bakarrean oinarritutako eredua ezartzen dute helburu. Ereduek ez du aintzat hartzen kultura eta hizkuntzen arteko elkar ulertzea oinarritzat hartzerik, munduko herrien arteko harmoniazko harremanak ezartzeko. Aitzitik, honako hau uste du: badira kultura eta hizkuntza modernoak, eta badira atzeratuak ere; eta komunitatea atzeratuek ahalik eta azkarren bereganatu behar dituzte eredu horiek, batere axola gabe bereganatze prozesu horretan euren kultur eta hizkuntza idiosinkrasia guztiz edo neurri batean galtzen ari diren."*

1.5. Hizkuntza-ekologiaren bidea: zer egin, eta nola egin?

Ekologiaren alorrean, hauxe da benetako erronka: nola uztartu garapen ekonomikoa eta soziala planetaren natur oreka arriskuan ipini gabe.

Eta hizkuntza-ekologiaren kasuan ere, beste horrenbeste.

Pablo Suberbiolak Hiznet-eko Hizkuntza-garapen iraunkor baterantz izeneko ikasgaiaren diogen bezala, *"hizkuntzaren iraunkortasuna edo ezintasuna ez dago bere ezaugarrien baitan, baizik eta kokatzen den ekosistema soziokulturalaren baitan, non errealitatearen beste elementuekin harremana baitu. (...) Hizkuntza ordezkapen eta ukapen prozesuetan, hauek gertatu izan dira argi eta garbi elementu berriak sartu direlako ohiko ekosisteman, azkenean ber-des-antolarazi dutenak, beste fase batera pasaraziz.*

Linguosfera honela uler genezake: etengabeko kanpo eta barne orekan dagoen ekosistema soziolinguistikoaren multzoa, eta bere baitan norbanakoek erabiltzen dituzte kodeak edo/eta erabiltzeari utzi beren etengabeko komunikazioan. Ekosistema hauetan, gizakien buru-garunak, gaitasunak, jokaerazko ohiturak, irudikapen kognitibo-erotiboak, azpi-talde soziologikoen, enpresek, merkataritzak eta beste gizarte-erakundeak, komunikabideak, hezkuntza erakundeak, eta gobernuaren administrazio publikoak bezalako elementuek eusten diete elkarrekiko komunikazio sistema diren horiei, hizkuntzei alegia."

Linguosfera hori guztia orekan mantentzean datza, hortaz, gakoa.

Eta zer egin dezakegu ekosistema soziolinguistikoaren eredu iraunkorra lortzeko? Nola kudeatzen da hori eta zein neurri hartu behar dira?

Arlo honetan eragiten duten faktoreak sakonago ikertzeko eta aztertzeko premia badago ere, Hiznet-eko *Hizkuntza-garapen iraunkor baterantz* gaitik neurri orokor batzuk atera ditut, nahiz eta kasuan kasuko lehentasunak finkatzea komeni den (egoeraren arabera):

- Eleaniztasunaren garapenaren aldeko moral indartsua aldarrikatu eta zabaldu, ingurumenarekin egiten den modura.
- Hizkuntzen arteko hierarkizazioarekin amaitu (balorazio hierarkikorik ez).
- Hizkuntzen arteko berdintasuna eta hizkuntza guztien duintasuna aldarrikatu.
- Gizakiok daukagun dikotomiarako joera negatiboa baztertu, eta *hizkuntza bat* ALA bestea dikotomia apurtu eta *hizkuntza bat* ETA bestea egitea lortu behar da.
- Subsidiaritatearen printzipioa aplikatu (egin tokiko hizkuntzan egin daitekeen guztia, eta utzi hizkuntza globalagoan egiteko soilik tokiko hizkuntzan egin ezin daitekeena).
- Hiztun-komunitateen autoirudia eta autoestimua indartu; hizkuntzaren duintasuna indartu (bereziki ekonomikoki gutxi garatutako komunitateetan).
- Belaunaldien arteko transmisioan eragin (garatuagoak diren baina erabilera-mailan galera handia izan duten hiztun-taldeetan).
- Funtzioak birkokatu eta atzerriko hizkuntzen gehiegizko erabilera desorekatzailea mugatu (atzerriko hizkuntza indartsu baten presentzia duten herrialde txikietan).

Kontuan izan behar dugu arazoa ez direla legeak, BALIOAK baizik. Garapen iraunkorraren etika zabaldu eta barneratu beharra dago.

Unescok berak ere bide horixe gomendatzen du *Mundu globalerako hizkuntza ereduak* atalean: "Iraganean, hizkuntza aniztasuna babestuta egon da hizkuntza komunitateen isolamenduari esker (...). Etorkizunari begira, badirudi isolamendua hautatzeak ez duela inolako zentzurik; (...) harremanak ugaritu egingo dira. (...) Ereduek ekologikoen adierazten dutenez, hizkuntzen baterako existentzia posible da. (...) Benetako erroka mundu globaleko hizkuntza guztien – hizkuntza handien, ertainen eta txikien – funtzio erlatiboen plangintza egitean datza. (...)"

Hizkuntza komunitate txikiek eta ertainek beraien etorkizunaren plangintza egin behar dute, aldi berean, gehien hedatutako hizkuntzak erabiliz – komunikaziorako eta ekonomi, gizarte eta kultur garapenerako duten erabilgarritasunagatik –. Hizkuntza aniztasun horrek guztiz bateragarria izan behar du komunitatearen hizkuntza erabilerarekin; izan ere, askotan hizkuntza horrek nortasuna eta kultur identitatea zehazten ditu, baita pertsonen bizitza bideratzen duten mito eta balioak ere." (Munduko hizkuntzei buruzko txostena, UNESCO, 2005)

Bestalde, ildo beretik, Iñaki Martínez de Lunak (Soziologian doktorea, EHuko irakaslea, eta Soziolinguistika Klusterreko eta UEUko Soziolinguistika Saileko kidea) pauso

erabakigarriak zerrendatu ditu Euskonews-en argitaratutako *Iraunkortasuna eta hizkuntzaren iraunkortasuna* artikuluan:

Laburbilduz, hizkuntzaren iraunkortasunean aurrera egiteko, badira bost urrats erabakigarri:

1. Nazioarteko hizkuntza handien gehiegizko erabilera geldiaraztea eta hizkuntza-berdintasunaren eta -elkartasunaren ideologia hedatzea.

2. Hitzun gutxiko eta menpeko hizkuntza-taldeek beren buruaz duten irudiari duintasuna ematea.

3. Hizkuntza-talde horiei euren komunikazio-esparrua kudeatzeko eta hizkuntza-erabilera publikoak autonomiaz erregulatzeko aukera ematea.

4. Komunikazio-funtzioak banatzerakoan, egun menpekoak diren hizkuntzei funtzio eskusiboak eta eraginkorrak ematea.

5. Gobernuak, enpresak eta gizarteak hizkuntzaren iraunkortasunaren garrantziaz jabetaraztea, eta erabakiak hartzeko prozesuetan eragin soziolinguistikoko azterlanak erabiltzeko ohitura hartu dezaten gonbidatzea.

Testuinguru horretan, eta praktikara jota, zer egin dezake hitzun-komunitate gutxituetako mendebaldeko hitzunak?

Bi aukera daude:

- norbere hizkuntza gutxituari uko egin eta hizkuntza menperatzaileak asimilatzen utzi (horrek dakarren identitate-galera kontuan izanda);
- edo eleanitz bihurtu, eta hizkuntza gutxitua hurbileko komunitatean erabat normalizatu/erabili, eta beste funtzio batzuetarako eta kanpo-harremanetarako hedadura handiagoko hizkuntzak erabili.

1.6. Hizkuntzen galtze eta berreskuratze prozesuetan arlo sozioekonomikoak daukan kokapena eta garrantzia

Ikus dezagun, lehendabizi, ikuspegi makro batetik zein diren hizkuntzak arriskuan jartzen dituzten oinarritzko arrazoiak. UNESCOk munduko hizkuntzei buruzko txostenean jaso ditu hizkuntzen egoeraren berri eman duten informatzaileek adierazitako arrazoiak:

3. Taula: Hizkuntza arriskuan jartzen duten oinarritzko arrazoiak	Emaniko arrazoiak
ARRAZOI POLITIKOAK (Kolonizazioak, hizkuntza politikak, ofizialtasun estatusa)	%46
DEMOGRAFIKO ARRAZIOAK (Hitzun kopuru murrizta, kopuruaren jaitsiera, zahartzea, ezkontza edo elkartze mistoak, migrazioak)	%27
ARRAZOI EKONOMIKO ETA SOZIALAK (Ekonomia krisiak, mendekotasunak, esplotazio ekonomikoa, gizarte prestigio baxua, akulturazioa)	%16
ARRAZOI FISIKOAK (Katastrofe naturalak, epidemiak, eraso fisikoak)	%8
Bestelakoak	%3
GUZTIRA	%100

Iturria: UNESCOren Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena

Sarritan elkarri lotuta egoten dira kausak, eta faktore bakar bat baino gehiago egoten dira hizkuntza baten galera edo ahultze prozesuaren atzean. Arrazoi-kate bat, alegia.

Nolanahi ere, arrazoi ekonomiko eta sozialen ondorioz dago arriskuan munduko 6 hizkuntzatik 1, ikusten denez. Arrazoiak zakua zabala bada ere, arrazoi ekonomiko eta sozialek gizarte prestigio baxua izatera eta akulturaziora daramatza hainbat hizkuntza.

Aberasgarriagoa izan daiteke, hala ere, funtzio sozialen ikuspegitik aztertzea galera eta berreskurapena. Hona hemen hizkuntzek bete ditzaketen funtzio sozial nagusiak. Zenbat eta funtzio gehiago bete (zenbat eta gorago iritsi), prestigio handiagoa izango du hizkuntza horrek, eta alderantziz.



(Iturria: *Un futuro para nuestro pasado*. Jose Maria Sanchez Carrion, "Txepetx")

Txepetxen hizkuntzen teoriaren arabera, edozein hizkuntzak etorkizuna ziurtatuta izan dezan, ezinbestekoa du 5. mailara iristea: nazio-funtzioa bete behar du, alegia. Hortik beherako funtzioetan defizita badauka, arriskuan dago. Horrez gain, kontuan hartu behar da lehenengo bi funtzioak (pertsonaren identitate-funtzioa eta funtzio familiarra) ibilbide naturala eginez bakarrik bete daitezkeela, baina, hortik gorako funtzioetan (eta laneko funtzioa) gaur egun beharrezkoa da funtzio kulturalaren ibilbidea egitea, eta hor hasten dira goi-mailako funtzioak, prestigiozkoak.

Enpresa-jardunean betetzen diren funtzioak goi-mailako funtzioak dira, prestigio handikoak. Horregatik da inportantea hizkuntza batentzat arlo sozioekonomikoan ere erabilera izateak. Normalizazio-maila sendo batera iritsiko bada (5. mailara), hizkuntza horrek bete egin behar ditu lan-munduko funtzioak lurralde batean (3. mailakoak). Lan-munduko funtzioa betetzea premiazkoa izateaz gain, berme handia ere bada hizkuntza batentzat.


Kontua da hizkuntzek elkarren lehian dihardutela etengabe funtzioak eskuratzeko nahi horretan. Horixe da hizkuntza-gatazka. Hizkuntzak elkar ukituz bizi baitira. Batek irabazten duen lekua besteari lekua kenduz izaten da normalean. Eta alderantziz. Beti dago hizkuntzaren bat funtzio horiek betetzen, ez baitago hizkuntzarik gabeko hizkuntza-komunitaterik. Hizkuntza batek bestea ordezkatzan du funtzio jakinetan (Jean-Louis Calvet-ek, hala ere, azalpen hau eman du: '*Hizkuntzen gerra*' metafora eroso da, baina hizkuntzek ez diote elkarri gerrarik egiten. Gizakiak dira borrokan egiten

dutenak, elkarren aurka ipini edo amore ematen dutenak. Hizkuntzen arteko harremanak sarritan gizakien arteko harreman gatazkatsuen isla dira). Eta ez al dago funtzio bera bi hizkuntzen artean konpartitzerik? Bai, egin daiteke, baina oso zaila da betiko erabateko oreka lortzea eta, normalki, elebitasun egoera hizkuntza batetik beste baterako trantsizio-aldia izaten da. Hala ere, baditugu bi edo hiru hizkuntzen artean funtzioak oso ondo banatuta dituzten herrialde eredugarriak, Suitza, esate baterako.

Hortaz, hizkuntzen funtzio sozialak ere modu ekologikoan antolatu behar dira, hizkuntza guztien garapen iraunkorrera begira, baina lekuan lekuko hizkuntza gutxituei funtzioak emanez, ahal dela. Eta hortxe dago hizkuntza-politikaren gakoa, hizkuntzen arteko funtzioak modu egokian banatzea eta hori ondo kudeatzen asmatzea. Eta horri, gainera, lurraldetasun irizpidea gaineratu behar zaio: lurralde edo leku bakoitzean zein hizkuntzari zein funtzio eman erabaki behar da.

Sakontze-egitasmo honen hirugarren atalean Fagor Etxetresna Elektrokoak kooperatibaren nazioartekotzearen inguruko azterketa egin dut, planta bakoitzean zein hizkuntza erabiltzen den eta zein ez den erabiltzen. Funtzio-banaketaren hariarekin jarraituz, kasu zehatz horretan planta bakoitza kokatuta dagoen tokiko hizkuntza-errealitatea kontuan hartzea eta lekuan lekurako funtzioak erabakitzea litzateke kontua. Estatua unitate modura hartzeak ere ez du balio lurralde-irizpidea definitzeko: ez da gauza bera enpresa Frantziako Alsazian (altsaziera), Bretainian (bretainiera), Akitanian (okzitaniera), Zuberoan (euskara), Parisen (frantsesa) edo Annecy-n (franko-provenzera) egotea. Komunitate bakoitza bere horretan aztertu behar da.

Dena den, Txepetxek hizkuntzen galtze eta berreskuratze prozesuak nola gertatzen diren deskribatu zituen *Un futuro para nuestro pasado* liburuan, eta prozesu hori ere interesgarria da enpresek eta kooperatibek gai honen inguruan duten kokapena hobeto ulertzeko.



Nola gertatzen da hizkuntzen galera? Zein da lehenengo pausoa? FUNTZIO GALERA. Goi-mailako funtzioak galtzetik hasten dira hizkuntzak (lan-mundukoa ere hor sartzen da) eta, normalki, arlo pribaturako eta maila informalerako gordetzen dira ahultze prozesuan sartzen den hizkuntza oro. Era horretan, prestigioa galtzen du eta erabiltzeari uzten zaio poliki-poliki, eta funtzio formaletarako eta inportanteetarako kanpoko hizkuntza nagusitzen da. Ondoren, denek ikasiko dute kanpoko hizkuntza, baina ez bertakoa, eta horrek gutxiagotasun konplexua sortuko die hiztunei, beraien jatorrizko hizkuntzak balio soziala galdu duela ikusita, kasu askotan norbere jatorrizko hizkuntza gorrotatzeraino.

Hortaz, goi-mailako funtzioetarako beste hizkuntza bat ezartzen denean, norbere hizkuntzak prestigioa eta balio soziala galtzen du eta hizkuntza erabiltzeari uzten zaio: horixe da mintzaldatzea edo *language shift*, J. Fishman-en hitzetan. Beraz, enpresei ere badagokie beraien funtzioetan hizkuntza gutxitu horiei funtzioak ematea, funtzio-defizitik egon ez dadin eta horrek hizkuntza komunitatea galbidera eraman ez dezan. Horixe da enpresak bete beharreko ardura.

Bestalde, hizkuntza bat gizarte batean (eta enpresako jardunean) normalizatuta ez dagoenean, hizkuntza ez da berez normalizatzen, normalizatu egin behar da. Prozesu hori kontzientea da eta planifikatzea eskatzen du. Eta, neurri handi batean, hizkuntza-komunitatea biltzea, legeen bidez hizkuntza babestea eta funtzioak berrekuratzea esan nahi du.

Eta **enpresei al dagokie** hizkuntzak biziberritzeko lanean hasia?

Iñaki Arrutik, Hizneteko *Euskalgintzaren* nondik norakoak irakasgaian, hauxe dio euskara biziberritzeko arduraren inguruan:

Nork egin behar du?

Euskara biziberritzea euskal hiztun komunitatearen nahian oinarritzen bada, bistakoa dirudi hizkuntza komunitateak berak duela hizkuntza normalizatzeko prozesuaren erantzukizuna. Hiztunen komunitatea ere, ordea, (...) hainbat modutara uler daiteke: J. M. Aymá-k, adibidez, honela ikusten ditu hizkuntza normalizatzeko eragileak: "L'actuació política, la del poble i la del'estament econòmic són els tres eixos entorn dels quals volta el procés de normalització lingüística." (Aymá, 1992).

Gobernuen apustu tinko horretaz gain, ordea, estamentu ekonomikoei (enpresak, kooperatibak, sindikatuak...) egiten die erreferentzia arestian aipatutako zitak. Horiek duten garrantziaz diharduelarik, honela dio liburu berean:

"en el món actual, els poders econòmics tenen una influència abassegadora sobre la societat i les seves activitats a causa de la introducció contínua de noves normes de comportament, les quals estan lligades a la creació de necessitats que responen a l'oferta de més productes i serveis"

Produktuen eta zerbitzuen eskaintza eta eskaera da, gero eta gehiago, gure gizartea gidatzen duena, eta produktu eta zerbitzu horiek ez dira mutuak, hitz egiten dute. Beste hitz batzuekin esanda, hizkuntzarekin (hizkuntzekin) kontsumitzen dugu, eta hizkuntzari ematen diogun balioa hizkuntzarekin egiten dugun kontsumoaren eta gauzak egiteko balio digun heinekoa da (Royo, 1997).

Hortaz, ez enpresena bakarrik, baina **enpresena ERE bada erantzukizuna**, eta klabea da gainera beraien papera. Gizartean duten paperaren parekoa, alegia.

1.7. Aniztasuna: gizakion erakargarri eta ekonomiaren indargarri

Aniztasuna (biologikoa, kulturala...) **ezinbesteko elementua** da gure bizitzan, eta baita ekonomiarentzat ere. Eta homogeneizazioak kalteak ekarriko ditu. Hausnarketa metaforikoa eginez:

- Lekuan lekuko mahats uztak bere ezaugarri propioak emango ez balitu eta munduko ardo guztiak homogeneo bihurtuko balira, kalte ederra nozituko lukete ardozaleek, ardogileek eta ardoaren industriak berak. Zenbat eta anitzagoa izan, hobeto, gainera. Bada, Pierre Bourdieu frantziar soziologoaren esanetan, hori bera ere arriskuan omen dago, nekazaritza-sistema aldatu egin delako eta lurraren azaleko geruza suntsitzen ari delako. "Desaparecerían las diferencias (...). Borgoña sería lo mismo que Bordeaux, y hasta los vinos terminarían pareciéndose" (Pablo Suberbiolak Hiznet-eko *Hizkuntza gutxiagotutak globalizazioaren aurrean* sakontze-egitasmoan, 2002).

- Zein da gaur egungo turismoaren *amu* handietako bat? Ondare kulturala, historikoa eta ekologikoa, hein handi batean. Zenbat jende joaten da Galapagoetako espezie bitxiak ezagutzera? Eta Himalaiako kulturak, erlijioak eta inguru basatiak ezagutzera? Eta zenbat jende joaten da Machu Pichura edo azteken eta maien ondare harrigarriak eta ohitura bitxiak ezagutzera? Elementu horiek guztien artean osatzen da munduko aniztasun kulturala eta biologikoa. Exotismoak badu indarra eta paraje exotikoetara mugitzen da jendea eta horrek turismo bidezko ekonomia indartu egiten du. Horrek mugitzen du jendea leku batetik bestera, autentikotasunaren eta ezberdintasunaren bila. Denok kultura eta hizkuntza batekoak bagina eta ondare hori guztia galduko balitz, turismoari ere kalte handia ekarriko lioke horrek eta, ondorioz, kalte ekonomiko handiak ekarriko lituzke.

Eta, kontuz: helburua ez da ondare horiek guztiak museo-pieza bihurtzea, ondare aniztasun hori guztia bizirik eta bizi-bizi mantentzea baizik. Horixe adierazi nahi izan dut, hain zuzen ere: aniztasun iturri horretatik edaten duela ekonomiak ere, eta ekonomiari (kapitalismoak dena bihurtzen baitu negozio-iturri) oso onuragarri zaiola aniztasun hori guztia.

Idea horren harira, Unesco-k badauka pasarte interesgarri bat Munduko hizkuntzen inguruko txostena liburuan:

Hizkuntzak, ekonomi garapenerako faktore: (...) Hizkuntza komunitate bakoitzak bere lekua aurkitu behar du ekonomi mundu globalean. Etorkizunari begira, hizkuntzak balio erantsitzat jo behar dira, baita garapenaren ikuspegitik ere. Jakina, hizkuntza komunitateek onartu behar dute komunitate horretako kideek beste hizkuntza batzuk ezagut ditzaketela; baina, bestalde, norberaren hizkuntza erabiltzeak eragiten duen atsegina ezagutuko dute – hizkuntza hori berariatzko nortasunaren oinarri baita –, jatorrizkoa eta errepikaezina den ororen bila dabilen mundu honetan. Egun, turismo merkatuak originaltasunagatik eta diferentziagatik hautatzen ditu paisaiak eta kultur ondare fisikoa, eta, beraz, ez dirudi utopikoa pentsatzea etorkizunean hizkuntza bizipen bereziak ere balioetsiko dituela. Litekeena da hizkuntza propioak dituzten komunitateetarako bisitariak hizkuntzaren hastapenei buruzko irakaskuntza jaso nahi izatea, kultur unibertso sekretu eta ezezagunez gozatu ahal izateko. Bestalde, hizkuntza komunitateek beren hizkuntza ondare materiagabearen balio ekonomikoa ezagutuko dute. Kultur turismoak hainbat motatako hizkuntza ikaskuntzak barne hartuko ditu."

Amaitzeko, Unesco-ren liburu horretako atal bereko beste paragrafo bat ekarri nahi nuke hona:

*Gaur egun, hizkuntza sorta bat erabiltzen da komunikazio zientifiko unibertsalerako eta ekonomi jarduera globalerako. Baina orain, badakigu ekonomi garapena prozesu konplexua dela, eta eskala globalean erabakigarriak ez diruditen faktoreek ere esku hartzen dutela: jendearen gaitasunak, gizarte kohesioak, parte hartzeko prozedurek, balio moralek, abertzaletasunak, hezkuntzak eta kulturak. Bere hizkuntza duen komunitatea autoestimu handiko komunitatea izan daiteke, ingurune naturalarekin harmonian dagoena eta tokiko mailan, estatuz azpikoan, estatu mailan, eskualde mailan eta mundu mailan ekonomi espezializazio lehiakorra ahalbidetzeko hizkuntza tresnak dituen. **Komunitate txiki eta espezializatuek garapen maila handiak lor ditzakete etorkizunean.** Horrez gain, giza garapenak ekonomian oinarritutako garapen eredutik ingurune bakoitzera egokitutako garapen iraunkorretara iragaitea dakar. Hizkuntzek egokitzapen hori ahalbidetzen duten epistemologia eta balioak ematen dituzte."*

2. ATALA: Enpresako gestioaren eta hizkuntza-garapen iraunkorraren arteko lotura

2.1. Enpresen gestioa eta hizkuntzen gestioa, elkarren eskutik

Enpresa pertsonaz osatutako giza-taldea da. Beraz, hiltunez osatutako talde egituratu bat da. Beste modu batera esanda, enpresa bat hizkuntza-komunitate bat da.

Eta hizkuntza-komunitate guztietan dago hizkuntza. Bat, bi, hiru ala gehiago, baina komunitate guztiek behar dute hizkuntza eta hiltunon eguneroko jardunean parte hartzen du hizkuntzak. Ez dago munduan inor bere hizkuntza edo kode propioa ez daukanik. Pentsamenduaren barrenean ere hizkuntza dago: hizkuntza batean ala bestean pentsatzen dugu, baina beti dago hizkuntza-erabilera.

Norbanakoen mailako (maila indibidualeko) pentsamenduetatik hasi eta eguneroko bizitza funtzioetan (funtzio sozialak) hizkuntza bat ala beste bat erabiltzen dugu. Hortaz, ez dago hizkuntza gabeko hiltunik, eta ez dago hizkuntza gabeko hizkuntza-komunitaterik. Beraz, ez dago hizkuntza gabeko enpresarik. Beti dago hizkuntza-erabilera jakin bat, esplizitua ala inplizitua (kontzienteki erabakitakoa ala inoiz esplizitatu gabea), baina praktikan hizkuntzek funtzioak betetzen dituzte egunero enpresetan.

Hortaz, enpresa baten gestioaren parte dira hizkuntzak ere, eta enpresaren funtzionamendu osoan eragiten du hizkuntzak. Funtzio orotarako elementua da, hortaz. Ez du balio esateak "ez, guk torlojuak egiten ditugu eta gu ez gara hizkuntzetara dedikatzen, hori ez da gure gaia...". Hori erantzukizuna saihestea da. Torlojuak egiteko prozesu osoan erabili behar izan da hizkuntzaren bat, bai enpresa barruan eta bai kanpora begirako jardunean. Torlojuen kaxak etiketaren bat izango du, eta hizkuntzaren batean edukiko du idatzita etiketa hori... Izan ere, gutariko bakoitza (eta enpresa bakoitza) egiten dugunaren erantzule da eta hizkuntzaren gaian ere badagokigu erabakiak hartzea eta politika orokor bat egituratzea.

Garbi dago, beraz: gestioak hizkuntzak erabiltzea dakar, eta hizkuntza aniztasunak gestio-premia dakar. Beste modu batera esanda, **enpresaren gestioak hizkuntzen gestioa eskatzen du**.

2.2. Zergatik ez funtzionatu hizkuntza bakarrean? Ez al da merkeagoa hizkuntza bakarrean funtzionatzea?

Ez da erraza hizkuntza batean, bitan, hirutan edo lautan funtzionatzeak zein kostu dakarren kalkulatzea. Ezinezkoa litzateke, gainera, kalkulu guztiak ondo egitea, kostu guztien (zuzeneko eta zeharkakoen) eta sarrera guztien berri edukitzea ezinezkoa baita. Hori bai, itzulpenetan zenbat gastatu den jakin dezakegu, baina prozesu berriak dakartzan onurak (=irabaziak) ezin daitezke kontabilizatu. Izan ere, kostuez hitz egiten da, baina balantzea egiteko onurak ere kontabilizatu beharko lirateke.

Hala ere, ba al dakigu zenbat kostatzen zaigun hizkuntza bakarrean funtzionatzea? Kasu askotan, ezinezkoa da hizkuntza bakarra erabiltzea, baina unilinguismoaren aldeko prozesuak berak ere badauka bere kostua. François Grin suitzarrak Linguapax kongresuan esan zuen moduan, *"Hizkuntza-aniztasunerako politikak uste baino merkeagoak dira; elebakartasunak ere badakar kostua, baina ez da kalkulatu"*.

Ingurumenarekin egin daiteke paralelismoa: enpresa kimiko batentzat aukerarik merkeena, hasiera batean behintzat, hondakinak ibaira isurtzea da. Baina arrain-espezie guztiak hil, landareak eta biosfera galdu eta ibai-inguruko nekazarien lurrak

kutsatu egingo dira eta han hazitako produktuak jateak gaitzak sortuko ditu (gerora ospitaleko gastuak,...). Azkenean, kaltea egin da dagoenean, araztegi izugarria egin beharko da ibaia eta biosfera biziberritzeko (inbertsio ikaragarria). Hasieran merkeena zena garesti aterako zaigu denoi azkenean. Gainera, enpresa-etikaren ikuspegitik gaur egun jokabide horrek ez dauka inolako justifikaziorik.

Eta hizkuntzen gainean ere gauza bera aplika dezakegu. Kontua da, gaur egun oraindik asko garatu gabe eta hastapenetan dagoela kontzeptu horren onarpena eta zabalkundea nazioartean (hizkuntzen garapen iraunkorra), gobernuek eta agintariek barneratzeko fasean baitago oraindik. Kostako da estatu askok politika hori onartzea, bestelako interesak ere badaudelako eta estatu batzuek hizkuntza bakarraren bitartez egituratu nahi dutelako nazio-identitatea. Hala ere, hainbat ekimen ari dira burutzen eta poliki-poliki badatoz aurrerapausoak eta bide horrek ibilbide luzea izan dezake. Nolanahi ere, nahiz eta hizkuntzen estatusa (ofizialtasuna,...) hein handi batean estatuen politikaren menpe egon, jakin badakigu enpresak gobernuen aurretik doazela hainbat kontutan eta hau ere aukera ona izan daiteke bide-erakusle izateko.

Eraginkorrena ez da inguruari egindako kalteak gerora konpontzen hastea (legea datorrenean edo gizarteak eskatu digunean), kalterik ez egiteko prozedurak barneratuta izatea baizik. Askoz eraginkorragoa da enpresak hasieratik aniztasunaren filosofia bere gestioan barneratuta izatea, aniztasuna dagoen lekuan hizkuntza bakarra inposatzeko ahalegina egitea baino. Horrek, izugarrizko kostua izateaz gain, izugarrizko kaltea ekar diezaioke enpresaren funtzionamenduari.

Horrez gain, finantza alorrean enpresek erabiltzen duten **aukera-kostuaren kontzeptua** (coste de oportunidad) ere kontuan izan behar da: enpresa batek bere gestio-sisteman hizkuntza-aniztasunaren balio erantsia/printzipioa baliatzeari uzten dion bakoitzean, zer ari da galtzen? Horixe da egin beharreko galdera. Alegia, zerbait irabazteko aukera galtzen ari da etengabe.

Adibidez, ordenagailuak enpresetan sartzen hasi zirenean, askok planteatu zuten galdera izan zen: eta zertarako ordenagailuak, zer irabaziko dut horrekin? Nik berdin-berdin egiten ditut eskuz, paperen gainean... Inbertsioa, langileak trebatu eta egokitu beharra eta lan-sistemak aldatzea zekarren hasieran. Gerora, ordea, abantailak besterik ez zekartzala frogatu dugu denok.

Apustu bat da, eta enpresak **etorkizunerako apustua** egin behar du. Epe luzeko apustua eta epe luzerako inbertsioa egin behar du enpresak. Gizartearentzat onuragarria dena eta enpresen intereserako interesgarria dena egin behar du. Oinarrizko ideia bat: *denontzat ona dena, niretzat ere ona da*. Enpresen arteko negozioazioetan bezala, *Zuk (gizarteak) irabazi >> Nik (enpresak) irabazi* planteamendua da aukerarik onena beti.

Iñaki Martinez de Lunak Euskonews-en argitaratutako *Iraunkortasuna eta hizkuntzaren iraunkortasuna* artikuluan, hauxe aipatzen du: *“Gaur egun aniztasunak alor guztietan (osasun demokratikoan, ekonomian, ingurumenean...) duen balioa aintzat hartuta, kulturartekotasuna eta eleaniztasuna gizartearentzat onuragarriak direla esateko moduan gaude, hau da, kalte baino on gehiago egiten diotela. Hortik abiatuta, hipotesi hau planteatu du Albert Bastardasek: «hizkuntza-aniztasuna onuragarria da aniztasun hori bizi duen gizartearentzat».*

Baina, aniztasuna aberasgarria izan badaiteke ere, ez ote dio eraginkortasunari kalterik eragiten? Zalantza horren aurrean, zuhurtzia osoz eta behin-behinekotasunez, beste hipotesi hau osatu dezakegu: *«hizkuntza-aniztasuna bateragarria da komunikazioaren eraginkortasunarekin»*

2.3. Zein da arazoa: hiztun-komunitate gutxitua, ala enpresen hizkuntza-politika?

Ramon Saizarbitoriak pasarte hau idatzi zuen 2003an, *Pertsona guztiak bere baitan hartzen dituen gizartea izeneko jardunaldietarako, Eskuragarritasuna eta eSartzea-ren inguruan, Gipuzkoa Informazioaren Gizartean Jardunaldi eta hitzaldi zikloan:*

*Treneko begiratzailleak edo zinemako aretozainak baten bat gurpildun aulkian iristen ikusi orduko, gehienetan jartzen duten aurpegiak adierazi nahi du "motelak, oraintxe gureak egin du". Ikuspegi hori da, hain zuzen, lehenik aldatu beharrekoa: **ez begiratu gurpildun aulkiari arazorik baleuka bezala, baizik begiratu eskailerari, hor baitago arazoa**. Eredu sozialak dioten bezala, pertsona batzuek mugitzeko edo orientatzeko eragozpenak izatea ez da hainbestean arazoa, baizik eraikin eta garraiobide edo komunikabide asko halakoentzat egokitu gabe egotea, gutxieneko gizalegearen aurka.*

(...)

Ereduz aldatzea ez da gauza erraza, izan ere aitortu beharko litzateke auzia ez dela pertsona batzuek ikusteko edo ibiltzeko eragozpenik izatea, baizik onartzea diskriminazio eta zapalkuntza kolektiboko esperientzia baten aurrean gaudela, aldaketa sozial sakon bat behar duena.

Ikuspegi hori hizkuntzen auziari aplikatuz gero, planteamendua argia da: nazioartera zabaldutako enpresek ez diote begiratu behar hizkuntza gutxituari edo hizkuntza-aniztasunari arazo-iturri bezala. Hori kudeatzeko gai ez bada, enpresak bere buruari begiratu beharko lioke arazoaren subjektu modura, eta baliabideak martxan jarri beharko litzuke (baliabide teknologikoak, ekonomikoak eta ezagutzazkoak) arazo den "eskailera" hori (hizkuntzak gestionatzeko gaitasun falta) konponbidean jartzeko eta bere gestio-sistema propioa hobetzeko.

Oztopo mentalak ere **gainditu beharra** dago kontu honetan. 'Eredu sozial' hori barneratzea da, hortaz, gakoa.

Eta "eskailera" hori gaingitzen duen enpresa edo multinazionala, dudarik gabe, besteak baino koska bat aurrerago joango da beti. **Eredu sozial hori barneratzen** duenak **lehiarako abantaila** izango du besteen aurrean.

2.4. Zertan lagun diezaioke hizkuntza-garapen iraunkorrak enpresei?

2005ean ikerketa bat egin zuten CILT britainiar erakundeak eta nazioarteko ikerlari talde batek, elkarlanean, Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura zuzendaritzak aginduta, eta ondorioak argitaratu zituzten txosten honetan: "ELAN: *Effects on the European Economy of Shortages of Foreign Language Skills in Enterprise*".

Ikerketa horretan, **Europako 29 estatutako ia 2.000 enpresa esportatzaile aztertu** zituzten. Hauexek dira txostenetik hitzez hitz ateratako **ondorio esanguratsu batzuk** ⁽²⁾:

*A significant amount of **business is being lost to European enterprise as a result of lack of language skills**. On the basis of the sample, it is estimated that 11% of exporting European SMEs (945,000 companies) may be losing business because of identified communication barriers.*

*Analysis of the findings from the survey identified a **clear link between languages and export success**. **Four elements of language management** were found to be associated with successful export performance: **having a language strategy, appointing native speakers, recruiting staff with language skills and using translators and interpreters**. There could be very significant gains across the whole EU economy if all exporting SMEs employed these techniques.*

English is a key language for gaining access to export markets. However, the survey results suggest that the picture is far more complex than the much-quoted view that English is the world language.

The average loss per business over a three-year period is €325,000. Clearly, the survey identified only those situations where companies were aware of the business lost or potentially lost, and the real figure may be much greater.

Eta beste ondorio interesgarri batzuk ere jasotzen dira bertan, besteak beste:

*SMEs experience intercultural as well as language barriers when operating across borders. In all but eight countries more than 10% of respondents were aware of having encountered **intercultural difficulties**.*

In fifteen of the 29 countries at least 50% of respondents claimed to have a language strategy.

Recruiting native speakers with language skills appears to be widely used as a language management technique, with 22% of businesses drawing on this resource.

46% of businesses across the whole European sample plan to enter new export markets in the next three years.

Emaizta horiek ikusita eta ingeles hiztunak diren herrialde europarren kasua hobeto aztertuta, Ingalaterrako The National Centre for Languages (CILT) britainiar erakundeak ondorio partikularrak atera ditu. Zehazki aztertu du zein eragin daukan Britainia Handiko ekonomian enpresa ingelesek hizkuntzak ez menperatzeak (ez jakiteak eta ez erabiltzeak). Emaizak argiak dira, eta halaxe agertzen dute beraien webean, hitzez hitz:

*Research conducted in the UK and internationally shows that **development and use of language skills in business opens the door to a wide range of economic, social and personal benefits**. Conversely, the failure to recognise and address language and cultural barriers means that:*

- **UK companies are losing business** and falling behind in the exploration of new markets; and
- UK nationals are **disadvantaged on the international jobs market**.

*In this increasingly globalised economy, UK businesses can no longer afford to rely on English as the international lingua franca. Being able to **communicate effectively with our customers, colleagues and business partners** is critical to **competitiveness** and **social cohesion**.*

CILT, the National Centre for Languages is engaged in a range of research activities to identify and highlight the impact of language skills on the UK economy.

Bi dira esaldi klabeak:

1.- "Britainiar enpresak **negozio-aukerak galtzen ari dira**" (elebakartasuna arazo-iturri).

2.- "**Bezeroekin, lankideekin eta negozio-bazkideekin** (filialekin) **eraginkortasunez komunikatzea erabakigarria** da lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko".

Ondorio horiek klabeak dira munduko gainontzeko herrialdeetako enpresen jokabideak zein izan behar duen asmatzeko.

Ingelesak konturatu dira zein inportantea den enpresa ingelesek beste hizkuntzak ere menperatzea eta erabiltzea. Frogatu egin dute egunero dirua eta negozio-aukerak galtzen ari direla hizkuntza-gestio kaskarra egiten dutelako (ingeles hutsean, normalki). Alegia, ingelesa munduaren zilbor dela, baina ez dela uste zutena bezain zilbor.

Eta ingelesek ingelesarekin bakarrik “hanka-motz” dabiltzala aitortu duten une berean, hainbat eta hainbat enpresa ari dira esaten munduan “ingeleza besterik ez dutela behar”. National Centre for Languages britainiar erakunde ofiziala munduko hizkuntzen ezagutza eta erabilera bultzatzen ari da, konturatu baita ezinbestekoa dela enpresa ingelesten negozio-aukerak hobetzeko. Eta, aldi berean, euskal enpresa asko, “denok ingelesez” lemapean dabilta.

Nor dago erratuta, ingelesak ala euskaldunak?

Ingelesek egin dute beraien AMIA analisia, eta oso zuzen ari dira. Ikertu egin dute eta ondorio egokiak atera dituzte, noski. Munduan hedaturarik handiena duen hizkuntzaren jabe dira, baina badakite horrekin bakarrik jai daukatela, eta globalizatutako merkatuan irabaziak atera nahi badituzte, beste hainbat hizkuntza ere menperatu eta erabili beharko dituztela. Beraz, kontua ez da ingeleza EDO beste hizkuntza batzuek. Ez. Kontua da ingeleza GEHI beste hainbat hizkuntza (lekuan lekukoa) kontuan hartu beharko dutela ingelesek negoziogile onak izan nahi badute. Eta horretara doaz, beraien hizkuntza-gama osatzera, interesatzen zaielako.

Eta euskaldunen kasuan ere, beste horrenbeste: gure hizkuntza (euskara) eta inguruko hizkuntzak (gaztelania, frantsesa, portugesa, katalana...) ahaztu gabe, ingeleza ERE sartu behar da euskal enpresetako agendetan. Baina ez ingeleza bakarrik. Ez dezagun pentsatu ingeles hutsarekin dena eginda dagoenik. Hori baino hizkuntza-gama osatuagoa beharko dugu britainiar enpresei itzal egin nahi badiegu munduko merkatuetan. Ez diogu kenduko daukan garrantzirik ingelesari (daukan hedaturagatik eta funtzionaltasunagatik), baina ingeleza bakarrik erabilia ez da nahikoa. Beste batzuk ere beharko dira, lekuan lekukoa, alegia.

Ingelesaren itsukeriatik atera eta beraien AMIA analisi propioa egin beharko lukete euskal enpresek ere.

Beste esaldi hauek argi adierazten dute norainoko garrantzia ematen dion gaiari britainiar erakundeak (CILT). Web gune beretik hartutakok dira beste hauek ere:

The (Regional) Language Networks in the regions and nations, supported by CILT, the National Centre for Languages throughout the UK, promote language and cultural skills specifically for business and employment. Their role is to:

- *work with partners to identify and address regional and sectoral needs for languages and cultural awareness;*
- *provide support to businesses on languages issues; and*
- *support languages industry professionals.*

(...)

A Little Language Can Make a Big Difference

Learning languages can prove useful throughout your life and is not exclusively for those organisations that plan to export. This study features two small businesses who have found language learning to be of benefit for them.

(...)

Languages an integral part of business

The UK oil industry has acknowledged Catalist as the definitive source for petrol station information in the UK. The company now delivers a range of products and services across the world in local languages.

Duela urte batzuk antzerako txosten bat egin zuen CILT erakundeak, britainiar enpresak hizkuntza-aniztasunera bideratzeak zer nolako garrantzia daukan jabetzeko: *Improving your business communications. Overcoming language and cultural barriers in business*. Hona hemen pasarte argigarri batzuk ⁽³⁾:

"The level of trade lost to British exporters due to language and cultural barriers is estimated at some 12 per cent, that's one in eight (companies)".

(Professor Stephen Hagen – Times Higher Education)

"Languages have helped in the development of new markets in South America where we are now exporting to Venezuela and Brazil for the first time. And, we are looking to expand the marketing department this year by employing specialists in other languages."

(Export Manager in Morpeth)

"The most successful companies will be those which, regardless of nationality, make an effort to understand each nation's way of life, consumer tastes, culture and language."

(Managing Director, specialist hire company of outdoor television screens)

"Language skills represent an investment for us, an investment in our future. It's just as important as investment in plant and machinery."

(Deputy Chairman, car manufacturer, Coventry)

Can technology help?

New more effective computer-based technologies are now emerging in the Human Language Technology field. The key ones are:

- website in foreign language: this is now a 'must'. But be careful to ensure cultural adaptation!
- CD-ROMs: for language training, dictionaries and the storage and retrieval of multi-lingual word-banks
- machine-assisted translation systems: these are useful for an automatic 'gist' translation of written material. Simple versions are now available on the Web through search engines.
- business letter generators: used for producing foreign language versions of standard business letters.
- translator's memory tools
- multilingual document management: these systems which support document generators across different languages. So if, for example, you update your engine manual for French, the revision is simultaneously applied to the same document in other languages

The conclusion:

"Language barriers often shield potentially excellent market opportunities."

So what are the reasons for using the customer's language?

Basically it:

- *leads to better communication and can avoid misunderstandings*
- *establishes an immediate rapport*
- *creates a positive image and respect*
- *increases your self-esteem, confidence and self-reliance abroad*
- *enhances personal job prospects*
- *shows you do not insist on everyone speaking your language*

Hortaz, hizkuntza-gestio egoki soila ez da nahikoa enpresek arrakasta izateko, baina oso kontuan hartzeko moduko faktorea da lehia gorrian bizi diren enpresek lehiakortasunari eutsi nahi badiote. Hau da, enpresek ez dute hori bakarrik zaindu behar, baina hori ERE zaindu beharko dute etorkizunean. **Hizkuntza-politikarik eraginkorrena** eta oparoena **daukanak** beti pauso bat **aurrerago joateko aukera** izango du.

Eta, zein da, bada, hizkuntza-politikarik eraginkorrena? Britainia Handiko CILT erakunde ofizialaren aholkuei kasu eginez gero, hauxe litzateke:

Hizkuntza-politikarik eraginkorrena = Eleaniztasuna ondo kudeatzen duena

Hortaz, enpresak ondo kudeatu beharko du **eleaniztasuna**, bai **ezagutzaren** eta bai **erabileraren** aldetik.

Kontuan hartu beharko dira enpresak non kokatuta dituen bere plantak (produkzioa eta bitartekaritza) eta enpresak bere merkataritza-jardunak non bideratu nahi duen (salmentak, komunikazioa, produktu-eskaintza...). Hiru faktore klabe egon daitezke:

- 1) Langileen **hizkuntza-ezagutza ahalik eta egokiena leku bakoitzerako** eta lanpostu bakoitzerako: hizkuntza egokitasunerako plana egin daiteke, eta tokian tokiko hizkuntza guztietarako gaitasuna izatea litzateke egokiena.
- 2) Leku bakoitzean **hizkuntza-erabilera ahalik eta egokiena eta osatuen**a: tokian tokiko hizkuntza-errealitatera ahalik eta ondoen egokitzea da kontua (barne-bezeroen eta kanpo-bezeroak gogobeteko dituen).
- 3) Hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko **teknikak, tresnak eta aurrerapen teknologikoak** ahalik eta ondoen kudeatzea.

Eta zein hizkuntza-ereduk lor ditzake emaitzarik onenak? Zein formula izan daiteke eleaniztasun-kudeaketarako egokiena?

- >> Hizkuntza GUZTI-GUZTIAK kontuan hartzen dituen
- >> Munduko errealitate linguistiko AHALIK ETA OSATUENA kontuan hartzen duena
- >> Munduko hiztun-komunitate GUZTIENGANA iristeko gai dena eta bakoitzari berea emango diona



Horixe da, hain zuzen ere, **HIZKUNTZA EKOLOGIAK proposatzen** duena.

Horixe da, hain zuzen ere, **HIZKUNTZA-GARAPEN IRAUNKORRAK bilatzen** duena.

Zer gehiago ekar diezaike enpresei tokian tokiko eleaniztasuna menperatzeak? Zein onura ekar diezaike enpresei hizkuntza-garapen iraunkorrak?

Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresaren hizkuntza-praktika aztertzeko egin ditudan **elkarrizketetan erantzun interesgarriak jaso** ditut zuzendari eta arduradunen ahotik. Euskal Herritik atzeriko plantetara joandako langileen **bizipen propioak** eta iritziak dira:

- Poloniako plantako kidea: *"Poloniako plantan 6 urte egin ditut eta hirugarren urterako oso ondo egiten nuen polonieraz. Hasieran ingelesez moldatzen nintzen, baina polonieraz ikasi nuen geroztik beti polonieraz: komunikazioa askoz ere aberatsagoa da, eta ate asko zabaltzen ditu. Bertakotu egiten zara. Fabrikazioko arduradun nengoela, langile askorekin neukan harremana: pertsonen egoera emozionalak ezagutzeko eta langileengana gerturatzeko oso eraginkorra izan da hango hizkuntza ikastea eta erabiltzea. Bide ona da motibazioa eta optimismoa transmititzeko, hurbiltasuna adierazteko..."*

"Deskonfiantzazko hesiak apurtzeko balio izan du, eta langileek asko baloratzen dute hurbiltasun hori eta eskertzen dute beraien hizkuntzarekiko errespetu hori izatea".

"Ulermen aldetik ere asko irabazi nuen, esan nahi diezuna askoz ere gertukoago sentitzen dute eta askoz hobeto ulertzen dute adierazi nahi diezuna. Nik uste dut atzeriko plantetara doazen zuzendariak eta arduradunak lekuan lekuko hizkuntza jakitea oso inportantea dela. Osterantzean, sarritan dezente itxaron behar da harremanak hasterako".

"Poloniako plantan prozesuko dokumentazioa polonieraz jarri beharrean beste hizkuntza batean jarriko bagenu (ingelesez edo gaztelaniaz, adibidez), ziur nago eraginkortasuna galduko genukeela".

- Poloniako plantako beste kide bat: *"Ni ingeles maila onarekin joan nintzen Poloniara, eta uste nuen horrekin nahikoa izango zela, ondo moldatuko nintzela, alegia. Goiz batean hoteletik atera eta korrika egitera joan nintzen eta hirian zehar ibili nintzen ia ordubetez. Azkenean, galdu egin nintzen erabat eta ez nekien non nengoen ere, ezin nuen asmatu hotelerako bidea. Kanean, hamar bat laguni galdetu nien, ingelesez, nola buelta nintekeen, baina han inork ez zekien ingelesez. Jendeak polonieraz, errusieraz eta alemanez erantzuten zidan, baina ez zekiten ingelesez... Nire baitako ingelesaren mito hori goitik behera erori zen, eta konturatu nintzen ingelesak, han, une hartan zeukan erabilgarritasuna swahilierak izan zezakeen parekoa zela. Ask*

aberastu ninduen esperientzia hark. Lekuan lekukoak dauka balioa: horixe ikasi nuen. Integratu nahi baduzu eta lekuan lekuko kultura errespetatu nahi baduzu, bertako hizkuntza ikasi behar duzu."

"Askoz hobeto planifikatu behar da eleaniztasuna. Elebidunak ez, eleanitzak izan behar dugu. Beharrak aztertu eta, multinazional izateko, hizkuntzak menperatzen dituen jendea behar dugu".

"Nik bi urte egin ditut Polonian eta hizkuntza ez menperatzeak arazo dezente sortu dizkit: ulermen-arazoak, babes falta, ziurgabetasuna... ezin konektatu jendearekin".

"Ez zait iruditzen zuzena dokumentu guztiak ingelesez jartzea. Lekuan lekuko hizkuntzan egon behar dira dokumentuak, eta asumitu egin behar dugu dokumentuak hainbat hizkuntzetara itzuli egin beharko direla. Pertsonak eta tresnak jarri behar dira itzulpenetarako eta elkar ulertzeko. Enpresa batek balio sozialak baditu, horri ere begiratu behar dio".

"Teknika asko daude, eta nik esperientzia bitxiak ikusi ditut: adibidez, askoz errazagoa da Errusiatik pertsona bat ekartzea eta informatika irakastea, hemengo informatikari bati errusiera irakastea baino. Horrelako esperimenduek oso ondo funtzionatu izan dute... Guk Polonian ditugun itzultzaileek hainbat funtzio betetzen dituzte: itzultzaile, idazkari,...".

"Askotan kontzeptua da inportantea, esan nahi diozun horri eman nahi diozun matiza adieraztea, alegia, eta hori ez duzu lortzen itzultzailearekin. Nik nahiago nuen nire poloniera kaskarrean adierazi gauzak nire lankideei, beste bati itzultzeko esatea baino. Beste modu batera transmititzen nuen neuk zuzenean eginda, nahiz eta hizkuntza ondo menperatu ez".

"Hizkuntza ez jakiteak asko moteltzen du proiektuen lan-erritmoa, (itzultzaileak...). Planta bakoitzeko hizkuntza menperatu egin behar da. Eta politika orokor bat definitu eta etorkizunari aurrea hartu".

- Marokoko plantako kidea: "Nik marokoar langileei hitz batzuk egiten nizkien darijaz, arabiera kolokialean, eta gustatzen zitzaien ni beraien hizkerara moldatzea, feeling berezi bat lortzen nuen..."
- Frantziako plantetako kidea: "Behin Parisko zentrolean aurkezpen bat egin genuen sindikatuetakako ordezkarien aurrean, eta aurkezpena ingelesez idatzita eraman genuen, jatorrizko dokumentua halaxe baitzegoen... Oso modu txarrean hartu zuten aurkezpen idatzia ingelesez aurkeztu izana, eta bertako gure ordezkaria ere mindu egin genuen. Aurrez ez genuen pentsatu horrenbesterako izango zenik... Frantziako plantetan aurkezpenak frantsesez (eta ez ingelesez) idatzi behar genituela ondo ikasi genuen, behintzat".
- Frantziako, Poloniako eta Marokoko plantetako kidea: "Nik hiru lekutako esperientzia bizi izan dut eta bereziki Polonian sentitu nuen ez nuela lortu erabat integratzea eta konektatzea han. Eta uste dut poloniera ondo ez ikasi izana izan zela faktorerik inportanteena".

Laburbilduz, Fagorrentzat ere, lekuan lekuko hizkuntza ezagutzeak eta erabiltzeak onura hauek ekar ditzake:

- Pertsonetikiko **komunikazioa hobetu** (zer esaten den, kontzeptuak, xehetasunak,...)

- Pertsonen eta langileen **egoera emozionalak askoz hobeto ezagutu** eta hurbiltasunezko **lotura afektiboak bilatu** (pertsonekin "konektatu")
- **Distantzia kulturala laburtu** edo ezabatu
- **Informazioaren kontrola**. Gauzak zuzenean norberak nahi duen moduan ulertarazi, bitartekaririk gabe, eta solaskideak ulertu duela ziurtatu
- **Integrazioa eta lekuan lekuko ohiturak** eta **ikusmoldeak** hobeto ezagutzea

Hori guztia enpresako gestioaren ardura duten arduradunen ikuspegitik azalduta dago, batik bat, baina enpresa beste hainbat langilez osatzen da: besteak beste zuzenean produktua fabrikatzen lan egiten dutenak, instalazioen mantentze-lanetako langileak eta abar. Ikuspegi hori osatzeko, Ezagutzaren Clusterrak argitaratutako *Euskara enpresaren kudeaketan* liburutik hartuko dut euskara erabiltzearen inguruan egindako AMIAren testu-zatitxo bat.

INDARGUNEAK (ORGANIZAZIOA):

• **Merkatu-aukerak:** *erakundeen organizazio-ereduetan txertagarria da, adibidez EFQMn, eta erakundeen gizarte-erantzukizunaren "modaren" inguruan ere onartzen has daiteke. Enpresaren irudia hobetzeko bide moduan ikus daiteke; adibidez, enpresaren "markaren" elementu bihurtuta.*

• **Epe luzerako onurak (errentagarritasuna):** *produktu eta zerbitzuei balio erantsia eman diezaike, eta erakundearekiko identifikazioa eta atxikimendua sendotu dezake, eta langileen motibazioa, inplikazioa eta barne-kohesioa gehitu eta hobetu. Erakundearen barne-kultura aberasten du.*

EFQMrena etorkizunera begira ondo aztertzeke moduko kontua dela iruditzen zait: EFQM fundazioa bera ere ari omen da aztertzen eta garatzen nola integratu enpresen gizarte-erantzukizuna EFQM ereduaren baitan. Hortaz, pare bat urte barru orientabide zehatzagoak izango ditugulakoan nago. Nolanahi ere, EFQMk planteatzen duena da erakundeak bere interes-taldearen beharrak jaso egin behar dituela eta premia edo eskaera horiei erantzun egin behar diela. *Jarduera burutzen duen komunitatearekiko inplikazioa* atalean bete-betean sar daitezke hizkuntza-gestio ekologikoaren kontuak.

Horrez gain, erakunde eta enpresen gizarte-erantzukizunaren kontua aurrerago landuko ditut atal honetako beste puntu batean. Beraz, amaitzeko, beste bi onura aipatuko ditut:

- **Enpresaren IRUDIA** hobetu: enpresa **GARDENA** eta **BERRITZAILEA**

Berritzaileago izaten eta berrikuntzaren espirtua garatzen lagun diezaioke hizkuntza-garapen iraunkorrak enpresei. Berrikuntza da gaur egun enpresen elementurik inportanteenetako bat, eta adituek eskaintzen dizkiguten aholkuekin bete-betean engranatzan du hizkuntza-ekologiaren kontzepzioak: pertsonak dira helburu, eta enpresa bitarteko.

Batetik, aipatu nahi dut nik aztertu dudana enpresa (Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatiba) berrikuntzan eta ikerketan gehien inbertitzen duenetako bat dela European. Hauxe da *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian aurkitutako notizia:

Fagor Electrodomésticos es la única empresa guipuzcoana que aparece en la lista de las mil empresas que más invirtieron en I+D en la Europa comunitaria en el año 2006 (...). Los 5,99 millones que destinó a I+D la situaron como la empresa número 805 de Europa. Tiene 10.543 empleados.

Oharra: 2005ean ITP eta Gamesa ere zerrendan zeuden.

Etorkizunari aurrea hartu nahi bazaio, ezinbestekoa da produktu eta prozesu berriak ikertzea eta garatzea. Hori ikusita, esan daiteke Fagor gauza berrietara irekita dagoela eta badaukala kontzeptu eta planteamendu berriak barneratzeko gaitasuna.

Fagorrek joan den 9 urteetan dauka euskara indartzeko plana Euskal Herriko ia planta guztietan.

Gizartearen aurrean konpromiso hori agertzeak berak berrikuntzaren eta gardentasunaren irudia eskain dezake bezeroen eta gizarte osoaren aurrean, eta **markaren irudia indartzen** lagun diezaioke. **Komunikazioan** ondo asmatuz gero, nazioartean **lehiakideengandik bereizteko eta desberdintzeko** elementua izan daiteke hizkuntzen garapen iraunkorrarena, gizarteari saltzeko modukoa, eta enpresa **garden, moderno** eta **koherentearen** irudia eskain dezake, eta **sorpresa-faktorearekin** joka dezake merkatuan, **sinpatia** eta **jakin-mina** eraginez.

Bestalde, gaur egungo berrikuntza alorreko joerekin guztiz bat dator hizkuntza ekologiaren kontzeptua.

Business Global Conference, Euskalduna Jauregian, 2007ko urrian. Han esandakoak:

Izaskun Artetxek esana (BFA, Berrikuntza eta Sustapen Ekonomikoko foru diputatua): *"Ezagutzaren kudeaketa izango da industria-ehunaren garapenerako giltzarri. **Pertsona jada ez da baliabide, xede baizik. Enpresa ez da jada xede, baliabide baizik.**"*

Beraz, PERTSONA jarri da dagoeneko jo-puntuari eta pertsonak garatzeko ahalbidea duenak lortuko du enpresa garapen-bide onean jartzea. Pertsonen garapenaren bidez lortuko du enpresak arrakasta, azken batean. Hizkuntzen garapen iraunkorraren printzipioaren itzalpean diseinatu bada eleaniztasun-plana, plan horrek eragindako pertsona eleanitzek askoz garapen pertsonal eta profesional maila handiagoa izango dute elebazarrek edo elebidunek baino.

Mauri Lazkanok esana (SPRI): *"Berrikuntzarako giltzarriak: pertsonak prestatuta eta motibatuta egotea."*

Berrikuntza ona bada enpresarentzat, eta pertsonen garapena, motibazioa eta kohesioa badira helburuak, praktika ekolinguistikoa mesederako den zalantza izpirik ez daukat.

Horrez gain, Ezagutzaren Clusterrak beste bost argudio hauek ere jasotzen ditu Euskara enpresaren kudeaketan argitalpenean:

- *araudia betetzea;*
- *produktuaren edo zerbitzuaren salmenta;*
- *enpresaren barne-kohesioa;*
- *enpresaren gizarte-erantzukizuna;*
- *erabateko kalitatea.*

2.5. Zeintzuk dira Fagorren balioak? Zer egiten du Fagorrek ekologiaren alde?

Puntu hau garatzeko eta aztertzeko, FAGOR Etxetresna Elektrikoak kooperatibaren *Memoria de sostenibilidad* txostenean oinarritu naiz, eta hortik atera ditut informazioa eta ondorioak. Horrez gain, Fagorreko iraunkortasunaren alorreko arduradunarekin izan dut elkarizketa, informazioa biltzeko eta nire ondorioak berarekin kontrastatzeko.

▪ Fagorren balioak:

Printzipio kooperatiboen artean hiru zutabe nagusi daude:

- Barne-demokrazia eta parte-hartzea

- Lana eta erantzukizun soziala
- Elkartasuna eta interkooperazioa

Txostenean aipatzen den bezala, horrek berarekin dakar (hitzez hitz)

- **gizartearekiko konpromisoa** eta
- **inguruarekiko inplikazioa** (batez ere ingurumena errespetatzeari begira eta gizarte-garapenari begira)

Hauexek dira, zehatz-mehatz eta hitzez hitz, Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresaren printzipio filosofikoak, bere web gunetik hartuta:

- 1) Librea eta irekia (edozein sar daiteke, arraza, sexu, erlijiozko... diskriminaziorik gabe)
- 2) Antolaketa demokratikoa (erabakiak demokratikoki hartu, bazkideen artean)
- 3) Lanaren soberania (lana da pertsonaren garapen-iturri, lanpostuak sortzea, eta lanaren bidez sortutako aberastasuna denon artean banatu)
- 4) Kapitalaren izaera instrumentala eta mendekoa (lanaren mendeko tresna da kapitala, eta lanaren arabera banatuko da aberastasuna, ez kapitalaren arabera)
- 5) Gestioan parte hartzea (autogestioa eta bazkideen inplikazioa; komunikazioan gardentasuna,...)
- 6) Solidaritatea lanskietan (ordainsari duinak, sektoreko eta zonaldeko lanskari mailekin bat datozenak)
- 7) Elkar-lankidetzak (MCCko sektoreko enpresekin harremanak eta elkarlana, eskala-ekonomiak eta sinergiak aprobetxatzeko, eta baita arlo sozialean ere)
- 8) Eraldaketa soziala (inguruarekiko konpromiso maila handia; irabazien zati bat helburu sozialetarako, hezkuntzarako, kooperatibismoa sustatzeko, enplegua sustatzeko)
- 9) Izaera unibertsala (Giza Eskubideen Deklarazioko helburuak, Lanaren Nazioarteko Erakundekoak eta nazioarteko kooperatibismoarenak onartu, eta Ekonomia sozialeko foroetan parte hartu).
- 10) Heziketa (formazioa beharrezkoa da gizarte-ordena solidarioagoa eta justuagoa lortzeko, eta klabea da kooperatibagintzarako. Formazioa da enpresa egiturak eta egitura sozialak demokratizatzeko elementu klabea, eta Fagorrek sustatu beharrezkoa da)

Zein baliok izan dezake lotura zuzena hizkuntzen garapen iraunkorrarekin?

Lotura zuzenena 8., 9. eta 10. printzipioei ikusten diet, *eraldaketa soziala*, *izaera unibertsala* eta *heziketa*, alegia:

- Eraldaketa soziala: bere enpresa-jardunean hartutako erabakiek gizartean berez dagoen kezka bati eta behar bati erantzun diezaiokete (hizkuntza gutxituen garapena eta normalizazioa). Alegia, gizartearen hobetzen eta eraldatzen lagun dezake hizkuntzen arteko gestio iraunkorra burutzeak.

- Izaera unibertsala: Zuzeneko aipamena egiten zaio Giza Eskubideen Deklarazioari, eta deklarazio horretan jasota dago nork bere hizkuntzan bere kultura garatzeko eta lana egiteko eskubidea... Hortaz, bete-betean hartzen du hizkuntza-ekologiaren kontzeptua.

- Heziketa: enpresan heziketa indartzea bada enpresaren beste printzipio bat, eleaniztasuna indartzeko heziketa bultzatzea ezinbestekoa da.

Horrez gain, *antolaketa demokratikoa* (2. printzipioa) eta *elkar-lankidetzak* (7. printzipioa) ezinbestekoak izango dira hizkuntza gutxitu bat biziberritzeko eta modu planifikatuan enpresan funtzioak emateko prozesuan.

Hortaz, badiugu gutxienez hiru euskarri sendo (Fagorren balioen artean) hizkuntza-ekologiaren paradigma enpresa-talde osorako barneratu nahi izanez gero.

Ondorioa: hizkuntza-ekologiaren ideia bat dator erabat Fagorren balio-sistemarekin.

Bestalde, **Fagorrek hiru arlo** inportante ditu **integratuta** bere **gestio-sistema barruan**:

- 1) Kalitatea
- 2) Ingurumena
- 3) Laneko arriskuen prebentzioa

Ingurumenari dagokionez, hainbat ekintza eta prozesu dauzka antolatuta Fagorrek bere gestio sisteman. Hauxe da, zehatz-mehatz, Fagorrek ekologiaren alde egiten duena:

- ✚ Produktuen bizi-zikloa sistematikoki aztertzea: aparatuak fabrikatzeak, erabiltzeak eta erretiratzeak ingurumenean sortzen dituen kalteak edo eraginak aztertzen dira, eta hobekuntzak proposatu (materialak, baliabideak, hondakinak...).
- ✚ Ingurumenaren gestioa: Fagorren jardunak hiru gai hauetan sortzen dituen kalteak minimizatu eta kontrolatzen dira
 - Ura: ur-kontsumoak eta isurketak kontrolatu, ur-araztegiak kontrolatu, metalezko elementuen tratamenduak hobetu, pintura kontsumoak hobetu,...
 - Aire: gas-isurketak kontrolatu, tximinien egoera aztertu, gas-ihesak detektatu...
 - Lurra: materialen kontsumoa kontrolatu, hondakin kopurua gutxitu...
 - Hondakin arrakatsak
 - Hondakin geldoak
- ✚ Ingurumenaren gestio-sistemak: ISO 14001 araua eta AENOR-en ziurtagiria
 - Dokumentuen gestioa
 - Ezadostasunen gestioa
- ✚ Ingurumen-prestakuntza eman langileei
- ✚ Hornitzaileek eta erabiltzaileek zeharka sor ditzaketen kalteak kontrolatu
- ✚ Kontsumoen gestioa: energia, ura eta materialak
- ✚ Hondakinen gestioa kontrolatu eta minimizatu
- ✚ Isuri edo emisio atmosferikoen gestioa
- ✚ Hondakinen gestioa
- ✚ Aparatu elektriko eta elektronikoetatik datozen hondakinen gestioa
- ✚ Aireko zarata (kutsadura akustikoa kontrolatu)
- ✚ Aparatu-mota guztietan ingurumen-inpaktua hobetzeko prozesua
- ✚ Inbertsioak instalazio eta ekipamenduetan

Horrez gain, mugikortasunaren inguruko ikerketa egin dute eta planta inguruetan auto-kopuruaren zirkulazioa izugarria dela frogatu da. Pertsonen garraioan ere iraunkortasuna aplikatzeko aukerak aztertzen dihardu orain Fagorrek.

Bestalde, hozkailuen produkzioan, adibidez, hozgarri modura freon-a bezalako CFCdun gas kutsagarria erabili beharrean (nahiz eta merkeagoa izan, ozonogerruza kaltetzen du), aspalditik erabiltzen du isobutanoa (garestiagoa baina ozonoa kaltetzen ez duena).

Oharra: Fagorrek Diseinu eta Garapen prozesuari dagokion ingurumen-gestioko egiaztagiria jaso du AENOR-en eskutik.

Ikusten denez, benetan zorrotz dauka lotuta Fagorrek ingurumenaren gaia, eta gestio-sistemaren barnean oso ondo sistematizatuta eta txertatuta dauka, gainera.

Ekologia eta ingurumena (oreka biologikoa) zaintzeko konpromisoa daukan bezalaxe, berdin-berdin zaindu dezake oreka soziolinguistikoa.

Hau da, bioaniztasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren krisiak arazo beraren bi aurpegi dira. Beraz, ingurumenaren aldeko neurri ekologikoak hartzea onartzen dugun maila berean onartu beharko genuke hizkuntzen garapen iraunkorraren aldeko neurri ekolinguistikoak hartzea. Azken finean, gaitz beraren bi aldeak dira. Enpresak interbentzio non egiten duen, hantxe hartu behar lituzke neurri ekologikoak, bai biosferari lotutakoak, eta baita linguosferari lotutakoak ere (biak).

Hizkuntzari lotuta, Euskal Herriko planta gehienetan bederen Fagorrek neurri ekolinguistiko horiek aplikatzeko konpromisoa erakutsi du, euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak ezartzen ari baita plantaz planta eta negozioz negozio.

Amaitzeko, Fagorrek bere gestio sozialeko atalean aipatzen dituen lau puntu ere oso egokiak dira hizkuntzen garapen iraunkorarekin aberasteko:

- Compromiso de satisfacción (langileen gogobetetzea)
- Compromiso de respeto de los derechos humanos y la diversidad (nazioartekotzeak ekarriko duen aniztasuna onuragarria izango dela enpresarentzat)
- Compromiso de formación (pertsonek garapen pertsonala eta profesionala)
- Compromiso por mantener un entorno laboral óptimo (laneko segurtasuna eta osasuna: osasun fisikoari egiten dio erreferentzia; osasun mentala ez du aipatzen, baina izan dezake bere lekua atal honetan).

2.6. Erakundeek gizarte erantzukizuna eta hizkuntza-garapen iraunkorra: bien arteko interakzioa eta osagarritasuna

Enpresen Erantzukizun Soziala (EGE) indarra hartzen ari den kontua da, dudarik gabe.

Xertatu-k hainbat jarduera garatzen ditu Bizkaiko enpresetan EGE sustatzeko. Xertatu Taldean, Bizkaian EGERen sustapenean inplikaturik dauden hainbat erakunde biltzen dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila buru dela. Hauxe da beraien web gunean aurkitu dudan informazioa:

Zer da EGE?

"Enpresak gizarte eta ingurumen mailako kezkak kontuan hartzea da, merkataritzako eragiketetan eta hizketakideekiko harremanetan".

- *Erantzukizun soziala enpresek nahita hartzen duten jokabidea da, euren betebeharrak juridikoak gainditzeko dituen jokabidea, horrek epe luzera mesede egiten baitio euren interesari.*
- *Garapen iraunkorraren kontzeptuari estu lotuta dago: enpresek ondorio ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak integratu behar dituzte euren jardueretan.*
- *Erantzukizun soziala ez da enpresaren jarduera nagusiei aukeran gehitzeko moduko gauza bat, eragina baitauka enpresaren kudeaketan eta estrategian.*

Erantzukizun sozialaren oraingo kontzeptuaren helburua erantzukizun hori modu estrategikoan kudeatzea eta horretarako tresnak eskuratzea da. Negozioa ikuspegi

honek enpresa estrategiaren erdigunean kokatzen ditu alderdi interesatuen itxaropenak eta etengabeko hobekuntzaren nahiz berrikuntzaren printzipioa.

Korporazioen Erantzukizun Sozialak bi dimentsio ditu.

- Kanpoko EGEan, enpresak kanpoko hizketakideekin eta inguru sozialarekin zein ingurumenarekin dituen harremanak aztertzen dira: komunitatea, kontsumitzaileak, hizketakide publikoak nahiz gobernuz kanpoko erakundeak, merkataritzako kideak, hornitzaileak, ...
- Barruko EGEan, enpresaren barrua jorratzen da, gizarte interesaren ikuspegitik, eta jorratze hori ez da enpresaren errentagarritasunera mugatzen. Horrenbestez, estu lotuta dago enpresa kudeaketaren funtsezko alderdietara (adibidez, giza baliabideak, laneko osasuna zein segurtasuna, langileen heziketa nahiz partaidetza, kalitatearen kudeaketa edo ingurumenaren kudeaketa).

(...)

Europako Komunitateen Batzordea: Liburu Berdea. Enpresen erantzukizun sozialerako Europako eremua sustatzea. (2001eko uztaila)

Europar Batasunak enpresen erantzukizun sozialean interesa dauka, hori lagungarria izan daitekeelako Lisboan ezarritako helburu estrategikoa betetzeko: "ezagutzan oinarrituriko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena izatea mundu osoan, hazkunde ekonomiko jasangarria izateko, enplegu hobeak sortzeko eta gizarte kohesio handiagoa edukitzeko".

Liburu Berdeak eztabaida zabala ireki du, Europar Batasunak enpresen erantzukizun soziala European eta mundu osoan sustatzeko moduari buruz, hain zuzen ere, orain arteko esperientziak ahalik eta gehien aprobetxatzeari, egitera berritzaileak garatzeari, gardentasuna handitzeari eta ebaluazioaren nahiz balioztatzearen fidagarritasuna areagotzeko buruz.

Enpresa ez da gizartetik aparte dagoen egitura bakartu bat, gizartearekin harreman eta lotura estua daukan egitura bat baizik. Gizartetik onura batzuk jasotzen ditu eta beste onura batzuk bueltatzen ditu. Kontua da bien arteko harremanak aberasgarriak eta orekatuak izatea alde bientzat (gizartearentzat eta enpresaburuentzat). Enpresak ezin ditu begiak itxi eta gizarteko arazoei bizkarra eman. Gizarte-gaietan erabakiak hartu egin behar ditu, gai zehatzen inguruan politika jakin bat definitu beharra dauka, betiere balioetan oinarrituta. Beti izango du politika jakin bat, arlo guztietan, esplizitua izan ala inplizitua izan. Eta, logikoena da politikak ondo hausnartu ondoren eta ildo edo filosofia orokor baten barruan esplizitatzea. Hori mesedegarri izango zaio beti enpresari.

Ondorioa: Enpresen Gizarte Erantzukizuna bete-betean lotuta dago garapen iraunkorarekin, enpresek nahita hartzen duten jokabidea da (interesatzen zaielako eta errentagarria delako epe luzera), eta eragina dauka (eta izan behar du) enpresaren estrategian eta kudeaketan.


Hizkuntzen garapen iraunkorrak, beraz, ekarpen aberasgarria egin diezaioke dimentsio horri. Eta horixe bera aitortu du Fagorreko ingurumen gaien arduradunak ere, erabateko lotura ikusten diola hizkuntzen garapen iraunkoraren kontzeptua EGE n txertatzeari eta Fagorren gestio-sisteman txertatzeari.

Hauxe da, zehazki, planteatutako galdera: Errentagarritasun aldetik, zein onura dakarkio Fagorri ingurumenaren alde eta gestio sozialaren bidez egiten duen guztiak?

Erantzuna: **"Etekin eta irabazi ukiezinak dakarzkio** honek Fagorri. Ezin dira dirutan zenbatu, baina batere dudarik gabe esan dezakegu ekintza hauek guztiek balio erantsi handia ematen diotela enpresari. Irudirako ere oso inportantea da".


Hauxe da Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresaren web gunetik gestio iraunkorraren inguruan atera dutan eskema argia: arlo sozialean, ekonomikoan eta ingurumenekoan gestio iraunkorra burutzea lortuz gero, eta ondoren gizartera informazioa ondo zabalduz gero, enpresa GARDENaren eta SINESGARRIaren irudia lortuko du enpresak.

Horrez gain, beste lelo hau ere egokia izan daiteke edozein enpresarentzat gardentasuna eta sinesgarritasuna lortzen gizartearen aurrean: "egiten duzuna esan, eta esaten duzuna egin".



EGEren inguruan, berriz, hauxe da Fagorrek erabiltzen duen eskema:

EXISTE UN CLARO ENFOQUE MULTIDIMENSIONAL EN LA RSC



“El modelo de gestión empresarial que será dominante en el próximo futuro, será aquel, que demostrando eficiencia económica, disponga de mayor legitimidad moral y logre la máxima aceptación social”

Fagorrek EGEn inguruan egindako hausnarketa horretatik lau arlok daukate berebiziko lotura enpresen hizkuntza-garapen iraunkorraren kontzeptuarekin.

Horrez gain, enpresek badakite aktibo ukiezinak direla enpresari eta markaren irudiari balio erantsia ematen diotenak. Fagor sinetsita dago iraunkortasunaren bidetik eta ingurumena zainduz, babestuz eta hobetuz kooperatibak **enpresa gardenaren irudia** emango duela. Horrek **sinesgarritasuna** emango dio enpresari, eta bezeroengan eta bezero potentzialengan **konfiantza** sortuko du, enpresarekiko eta **markarekiko pertzepzioa hobetu** egingo da, **salmentek gora** egingo dute eta horrek **errentagarritasuna** ekarriko du epe luzera.

Horretan ere lagun dezake hizkuntza-gestio iraunkorrak eta eleaniztasuna ondo kudeatzeak.



LAS RAZONES QUE IMPULSAN LA RSC

3. ATALA: Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibaren nazioartekotzea: hizkuntza-gestioaren azterketa eta etorkizunerako proposamena


3.1. Enpresaren ezaugarriak

Fagor Electrodomésticos S. Coop. enpresa duela 50 urte inguru sortu zen eta Fagor Taldeko ⁽⁴⁾ eta MCC Kooperatiben Korporazioko enpresa da.

Asko hazi da 50 urtean Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresa-taldea, eta gaur egun nazioarteko enpresa multzo izatera iritsi da: produkzio-planta eta filial asko ditu munduan zehar, eta joint venture erako hainbat partaidetza-egitura ditu.

Etxetresna elektrikoaren sektoreko enpresa da eta etxerako produktuak eta altzariak ekoizten eta merkaturatzen ditu, batik bat.

Duela 9 urte Euskal Herriko plantetan **euskararen erabilera indartzeko plana martxan jarri** zuen Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresak, inguruko beste kooperatiba batzuek bezala. Euskara planen inplementazioa urtez urte eta gradualki egin da enpresan, negozioak edo produkzio-guneak atalka barneratuz euskara planean. Gaur egun Euskal Herriko planta ia guztietan ari dira inplementatzen euskararen erabilera indartzeko plangintza. Euskara plana duten produkzio-plantei izartxo bat jarri diet, seinale modura.



Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibaren barruan 5 produkzio-planta edo gune daude:

- **Fagor Electrodomesticos, S.Coop.:**
 - **Arrasateko San Andres auzoko planta:** Arrasaten (Gipuzkoa) kokatuta dago eta bertan daude bulego zentralak eta hozkailuak egiteko planta. 1.000 langile inguru ditu orotara.
**Euskara plana*
 - **Arrasateko Garagartza auzoko planta:** Arrasate (Gipuzkoa) kokatuta dago eta bertan egiten dira garbigailuak, ontzi-garbigailuak, lehorgailuak, plakak eta labeak. 1.600 langile inguru ditu.
**Euskara plana*
 - **Altzarien planta:** Oñatin (Gipuzkoa) dago planta hau eta 200 bat langile ditu. Sukaldeko altzariak egiten dira.
**Euskara plana*
 - **Etxetresna txikien planta:** Eskoriatzan (Gipuzkoa) dago eta 200 bat langile ditu. Etxetresna txikiak fabrikatu eta merkaturatzen ditu.
**Euskara plana*
 - **Gasteizko biltegia:** Gasteizen (Araba) dago biltegi hau eta 200 langiletik gora ditu. Produkzio osoa bertan biltzen da eta handik antolatzen da logistika osoa, mundu osora produktuak banatzeko.
**Euskara plana*

Horrez gain, hainbat filial eta ekoizpen planta ditu:

- **Edesa S.Coop.:** Basaurin (Bizkaia) dago planta eta 600 langile inguru ditu. Etxetresna elektrikoak fabrikatzen dira. 1941ean sortu zen Edesa eta 1989an bereganatu zuen Fagorrek. Edesa kooperatibaren akzioen %60,65 dauka Fagorrek.
**Euskara plana*
- **Geyser GasTech S.A.:** Bergaran (Gipuzkoa) kokatuta dagoen enpresa da, eta 400 bat langile ditu. Gas-berogailuak egiten dira bertan. 1997an sortu zuten joint venture modura Fagor Electrodomesticos eta Alemaniako Vaillant enpresaren artean, %50ean.
**Euskara plana*
- **Rotártica S.A.:** Basaurin (Bizkaia) kokatuta dago, Edesako instalazioetan, eta aire girotuko aparatuak eta eguzki-energia bidezko berogailu berritzaileak egiten ditu. Enpresa hau 2000. urtean sortu zen eta Fagorrek akzioen %57,14ren jabe da.
- **Ekisun S.A.:** Basaurin (Bizkaia) dago enpresa txiki hau ere. Eguzki-panel fotovoltaikoak merkaturatzen dituzte. 2004an sortu zuten Fagorrek eta Ecotecnia-k, eta Fagorrek akzioen %35 dauka.
- **Proiekt Habitat & Equipment S.A.:** Artean (Bizkaia) kokatuta dago eta altzairu herdoilgaitzezko arkitektura-proiektuak egiten dituzte:

markesinak, barandak, itxiturak, zakarrontziak, fatxadak, kabinak, hiri-altzariak,...

- **Ibai, S.Coop.:** Arrasateko (Gipuzkoa) San Andres auzoko plantan kokatuta dago eta 35 bat langile ditu. Driron izeneko produktu berritzailea ekoizten dute, arropa lehortzeko eta lisatzekoa paratua, alegia. Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresak akzioen %63,52 dauka.

**Euskara plana*

- **Fagor Hometek, S.Coop.:** Arrasateko (Gipuzkoa) San Andres auzoko plantan kokatuta dago eta 20 bat langile ditu. I+G+b arloko zentroa da.

**Euskara plana*

- **Grupo Grumal S.A.:** Azpeitian (Gipuzkoa) kokatutako enpresa-taldea da. Etxetarako sukalde-altzariak eta armairuak egiten dituzte. 2005 urtean Fagorrek erosi egin zion enpresa-taldea Masco multinazional iparramerikarrari. 2010erako kooperatiba izaera hartuko duela aurreikusita dago, eta Fagor Mueble de Cocina izena hartuko du.

**Euskara plana*

Euskal Herritik kanpo, atzerrian:

- **Fagor Mastercook S.A.:** Poloniako Wroclaw hirian kokatuta dago enpresa hau. Berez 60 bat urte ditu produkzio-planta horrek, eta aurretik Wrozamet enpresarena zen. 1999an erosi zuen Fagorrek Wrozamet eta gaur egun partaidetzaren %100 da Fagorrena. Bertan dihardute lanean 1.800 bat langilek.
- **Extra-Electromenagers S.A.:** Marokoko Mohammedia hirian kokatuta dagoen enpresa da, Casablanca inguruan, eta 150 bat langile ditu. Hozkailuak egiten dira. 1995ean erosi egin zuen Fagorrek enpresa hau, han egindako produkzioa Magreb-eko merkatuan sartzeko helburuarekin. Akzioen %100 Fagorrena da.
- **Fagor Brandt:** Enpresa talde honek Frantzian ditu egoitza nagusia (Paris) eta produkzio plantak (La Roche, Alzenay, Vendome, Orleans eta Lyon). Italia iparraldean ere beste filial bat dauka, BrandtItalia, eta Verolanuovan (Lombardia) kokatuta dago produkzio-planta. Etxetresna elektrikoak egiten dituzte. 2005ean Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresak Groupe Brandt enpresa-taldea erosi zuen eta Fagor-Brandt izendatu zuten. 4.500 langile inguru ditu Fagor Brandt taldeak. Hauxe da Fagorrek inoiz egin duen inbertsiorik handiena.
- **Shanghai Minidomésticos Cookware Co.Ltd.:** Shangai hirian (Txina) kokatuta dago enpresa hau eta lapiko espresak egiten ditu. 2001ean sortutako joint venturea da, Shanghai Vacuum Flash enpresarekin elkarlanean. Fagorrek partaidetzaren %30 dauka.
- Horrez gain, bestelako **hainbat filial komertzial** ditu mundu osoan zehar, Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresarenak edo Fagor Brandt-enak.

Markak:

Hauexek dira markarik ezagunenak:

- Fagor

- Aspes
- Edesa
- Brandt
- De Dietrich
- Sauter
- Vedette
- Ocean
- SanGiorgio
- Thomson
- Samet
- Mastercook

3.2. Hizkuntza-politikaren azterketa eta hizkuntzen maparekiko alderaketa

▪ Metodologia

Fagorrek atzerrian dituen plantetan darabilen hizkuntza-politika eta hizkuntza-praktika aztertzea izan dut helburu. Horretarako erabili dudana metodoa elkarizketarena izan da nagusiki. Hona hemen ikerketa egiteko emandako pausoak:

- **Aztertu beharreko plantak zein izango diren erabaki:** filial komertzial txikiak alde batera utzi ditut, praktikotasunaren irizpidea aplikatuz, eta gainontzean produkzio planta guztiak hartu ditut kontuan. Horrez gain, Euskal Herriko enpresa edo negozio-unitate txikien hizkuntza-jarduna ez dut kontuan izan zehatz-mehatz (Rotartika, Ekisun,...), eta oro har planta handietan edo nagusietan dagoen hizkuntza-praktika eta hizkuntza-irizpideak kontuan izan ditut azterketa bateratzeko. Izan ere, horiek dira esanguratsuenak.
- **Plantak multzokatu eta sailkatu:** planta bakoitza herrialdeka edo estatuka multzokatu ditut, eta hortik 6 gune estrategiko atera zaizkit: Euskal Herriko plantak (8), Poloniako planta (1), Marokoko planta (1), Frantziako plantak (5), Italiako planta (1) eta Txinako planta (1). Guztira 17 plantaren hizkuntza-jardun orokorra ikertu dut. Aipatu beharra daukat, gune bakoitzean nagusitzen den hizkuntza nabarmendu dudala gehienetan. Hortaz, taulan izendatuta agertzen diren hizkuntzak orokortasun baten barruan funtzio nagusi bakoitzerako nabarmentzen direnak dira.
- **Hizkuntza politika orokorrik dagoen ikertu** dut: emaitza nahiko garbia izan da, hasieratik amaierara. Ez dago Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresan hizkuntza-politika orokorrik esplizitatuta eta idatziz jasota. Gorago ere jo dut, Fagor Taldera, eta baita MCCra ere, eta nazioartekotzeari erreferentzia egiten dion dokumentu bat aurkitu dut, bere txikian balio handikoa dena:

MCCk 2006an onartutako ENO dokumentuak (Euskara Normalizatzeko Oinarriak) hauxe dio politika orokorren 4. atalean: **“MCCren hazkunde-politika:** *Eragin esparruan kokatzen diren enpresek, beraien hedapena Euskal Herrikan kanpo zabaldu arren, hemengo lantegietan oinarri hauek beteko direla bermatuko dugu. Nazioartekotzeko prozesuan sartzen ari garen garai honetan, ahalegin berezia egingo dugu eleaniztasun egoera berrian euskarak, sortzen zaizkion aukerak aprobetxatuz, bere lekua gorde dezan”*.

Hortaz, irizpide bat badago, baina irizpide honek ez du zehazten nola jokatu behar den nazioartekotzeari begira planta bakoitzean, ez du esaten

funtzio bakoitzerako zein irizpide jarraitu behar den. Hori baino gehiago, euskararen normalizazio-prozesua babesten du. Hau da, nazioartekotze prozesu horri topea jarri nahi zaio Euskal Herriko lantegietako euskararen erabileraren kalterako izan ez dadin.

Desideratum bat da, azken finean, arau forma emanda, eta orain horrek politika orokor bat lantzea eta garatzea eskatzen du. Arrasto garbi samar bat finkatuta uzten du, hala ere: hedadura handiagoko hizkuntzei muga bat jartzen die euskarak beretzat behar dituen funtzioak ordezkari ez dituzan. Ez da irizpide eta asmo txarra euskara bezalako hizkuntza gutxitu batentzat MCCk ENOn ezarritakoa. Hizkuntza-ekologiaren parametroetatik begiratuta, zuzena erabat. Nolanahi ere, maila *lokalean* ezarritako araua da, eta irizpide orokorragoak ezarri nahi badiira, maila *globalean* ere zehaztu behar dira arauak.

Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresari dagokionez, elkarriketetan frogatu ahal izan dut atzerriko plantetako zuzendariak ez dutela arau honen berri eta MCCren gomendio hori barneratu gabe dagoela oraindik Fagorren. Hortaz, hausnarketa serio baten ondoren ateratako hizkuntza-politika espliziturik ez dago, eta praktikan egiten dena hizkuntza-praktika esplizitatu gabea da. Ezin da esan, hala ere, hizkuntza-politikarik ez daukanik Fagorrekin, hizkuntza-politika inplizitua bai baitauka.

- **Organigrama eta nazioartekotze-prozesu kronologikoa aztertu** eta planten arteko **harreman-sarearen eskema** osatu: garbi dago Euskal Herrian dagoela matrizea eta Arrasateko zentralarekin dagoela harremanik handiena, baina badago beste puntu inportante bat ere: Parisko Brandt. Honek 6 planta biltzen ditu bere barruan (Frantziako bostak eta Italiakoa) eta, beraz, harreman puntu inportante bihurtu da Parisko Fagor-Brandt zentrala ere. Planten tamaina eta komunean dituzten harreman-sareak kontuan hartuz, 3 mailatako harremanak egon daitezke planten artean: 1. mailakoa (oso gune jendetsua izatea, produktu asko berdinak izatea eta matrizearekiko harremanak izatea), 2. mailakoa (nahiko gune jendetsua izatea eta produktu asko berdinak izatea), eta 3. mailakoa (jende gutxiko gunea izatea eta produktu berdina asko ez produzitzea).
- **Elkarriketak egin:** gune bakoitzeko errealitatea ezagutzen duen kide bati gutxienez egin diot elkarriketa. Guztira 7 elkarriketa egin ditut (planta edo gune bakoitzeko bat), eta gidoi jakin bati lotzen saiatu naiz. Hiru motatako informazioa atera dut hortik: hizkuntza-jardunaren inguruko informazioa; gizartean erabiltzen diren bestelako hizkuntza minorizatuen inguruko informazioa; eta hizkuntza-kudeaketaren inguruko beraien esperientzia, bizipen eta iritzi propioak.

Oro har, frogatu ahal izan dut lekuan lekuko gobernuak eta estatuak hizkuntza gutxituei ematen dien tratamenduak (ofizialtasuna bai ala ez, eta abar) baduela nolabaiteko isla pertsonen hizkuntza bakoitzaren inguruan duten ikuspegian.

Hau da, estatuen hizkuntza-politikak eta hizkuntza bakoitzari aitortzen zaion estatusak (eta, ondorioz, hizkuntza bakoitzaren prestigio-mailak) eragina du biztanleek hizkuntza horrekiko duten pertzepzioan eta motibazioan. Alegia, hiztunok geure bizipen propioez eta geure usteetan oinarrituta betetzen dugula motibazioaren ontzia.

Horixe da sumatu dudana eta atera dudana ondorioetako bat.

Elkarriketa guztiak izan dira ezberdinak eta, era berean, interesgarriak eta aberasgarriak. Halaber, hizkuntzen gaiaren inguruko interes eta formazio izugarria eta oso iritzi landuak emateko gai izan diren pertsonak aurkitu ditut.

- **Planta bakoitzeko hizkuntza-errealitatearen emailtzak taulan jaso:** funtzio edo arlo bakoitzeko praktikan zein hizkuntza erabiltzen den jaso dut taulan, labur-labur.
- **Plantan erabiltzen diren hizkuntzen aniztasun-maila adierazita laga taulan:** gutxieneko presentzia minimoa daukaten hizkuntzen zerrenda osatu dut, eta zenbat diren zenbatuta, ondoren hizkuntzen mapakoekin konparatu ahal izateko.
- **Plantan erabiltzen den hizkuntza nagusia identifikatu:** barne funtzio instituzionaletarako edo ofizialetarako (dokumentuak, bilerak, errotuluak, aurkezpenak...) gehien erabiltzen den edo diren hizkuntza(k) identifikatu ditut.
- **Lekuan lekuko hizkuntzen mapa aztertu:** Planta bakoitza kokatuta dagoen gune geografikoan bizirik dauden hizkuntzak jaso ditut. Ikerketa-lan hori egiteko, Internet izan da nire informazio iturri nagusia, eta bertatik atera ditut taularako datuak. Eta, egia esan, puntu honetan topatu ditut korapilorik handienak. Arazo dezente izan ditut informazioa bateratzen eta benetako egoera ulertzen, oso gai konplexua baita hizkuntza gutxituen egoeraren kontu hau, kasurik gehienetan ez baitago argitasun nahikorik. Sarritan iturri batean eta bestean topatutakoak kontrajarrita daude, eta beste batzuetan informazioa lausoa da. Hizkuntzen izendapenak ere eman didate buruko min dezente, askotan ez bainekien hizkuntza honi ala beste hari egiten zioten erreferentzia. Amaitzeko, hizkuntzen eta dialektoen arteko mugaren eremu labainkorrean ere erori naiz. Zalantzazko kasu batzuk argitzeko oso lagungarri izan zait Unesco Etxearen laguntza.

Patxi Juaristik 2006-12-09an www.erabili.com web gunean argitaratutako *Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean* artikuluko 3. oharrean haxe dio hizkuntzen eta dialektoen (aldaeren) gainean:

(3)" Hizkuntzaren eta aldaeraren arteko desberdintasunei dagokionez ikuspuntu ugari daude. Romaine-ren (1996) arabera, aldaera bat hizkuntza den edo ez hitunek erabaki behar dute, ez hizkuntzalariek. Alegia, hizkuntza eta aldaera zehaztea ez dagokio hizkuntzalaritzari, hain zuzen ere, hizkuntzen arteko bereizketa arazo soziala delako."

Eta artikulua testuan bertan Patxi Juaristik berak ere arazo berarekin topo egin du Europako hizkuntzen mapa osatzeko orduan. Hitzez hitz:

"Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Europar Batasunean? Ez da erraza galdera honi erantzutea. Hain zuzen ere, zaila delako zehaztea hizkuntza baten aldaera bat hizkuntza den edo dialektoa. Alegia, hizkuntza bat zer den erabakitzeko erabiltzen den irizpidearen arabera, Batasunean hizkuntza gehiago edo gutxiago daudela esan genezake."

Grimes-ek (2000), adibidez, Alemanian zazpi hizkuntza germaniar hitz egiten direla esaten du, baina beste ikerlari batzuk diote zazpi hizkuntza horiek alemanaren aldaerak direla. Zentzu honetan, askotan egiten den galdera da: luxenburgera, alsaziera, mochenoa, franciguera, walsera,

zimbriera eta yiddisha alemanaren dialektoak dira edo hizkuntza desberdinak dira?

Antzerako galdera egin daiteke tsakonian izeneko dialektoari buruz. Greziera modernoaren dialektoa da edo bereizitako hizkuntza?

Luxemburgera, alemanarekin eta frantsesarekin batera, Luxenburgoko hizkuntza ofiziala bihurtu zen 1983. urtean, naiz eta orain dela gutxi arte alemanaren dialekto gisa onartua zegoen.

Meänkieli eta Yiddish hizkuntzak finlandieraren eta alemanaren aldaerak direla esaten da, baina nolabaiteko babes ofiziala duten hizkuntza gisa onartu ditu Suediako gobernuak.

Ikusten den bezala, ez da erraza esatea zenbat hizkuntza hitz egiten diren Europar Batasunean; hain zuzen ere, zaila delako zehaztea hizkuntza baten aldaera bat hizkuntza den edo dialektoa. Gainera, hizkuntzalarien irizpideen aurka, arrazoi historikoak, politikoak eta sozialak daude askotan aldaera bat hizkuntza gisa hartzeko."

Saiatu naiz, buru-belarri, iturri fidagarriak kontsultatzen eta ondorio garbi batzuk ateratzen, baina ez da erraza kanpotik eta lekuan lekukoa bizi izan gabe hizkuntza baten balorazioetan eta juzkuetan sartzea. Hori dela-eta, hemen ateratako ondorioak eta egindako proposamenak ezin dira egia bakar eta zientifikotzat hartu, gomendio edo orientabide bezala baizik.

Horrez gain, hemen proposatutakoa ez da Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresak eskatuta propio egindako lan bat eta ez diot esango nik "hau horrela egin beharko zenuke". Ez da hori nire intentzioa, eta ez da hori nire egitekoa, gainera. Fagorrek berak egin behar du bere hausnarketa estrategikoa eta berak zehaztu behar ditu bere politika orokorrak, bertako langileek (lekuan lekukoek) nik baino askoz hobeto ezagutzen baitute errealitatea eta kasu bakoitzean egon daitezkeen gorabeherak. Hortaz, nire egitekoa hizkuntzen iraunkortasunaren ikuspegitik kontuan har ditzakeen ideiak, gomendioak eta proposamenak ematea izan daiteke, gaia zentratzeko eta hausnartzeko balio dezaketenak (poztuko nintzateke, hala balitz).

- **Ikuspegi ekologiko hutsetik gutxiegi erabilitako eta gehiegi erabilitako hizkuntzen** zerrenda osatu, ondoren aztertzeko eta ondorioak ateratzeko.

Gutxiegi erabilitakoen artean, hizkuntzen mapan ikusi ditudan hizkuntza-arrasto guztiak jaso nahi izan ditut taulan, zuhurtziaren printzipioan oinarrituz eta errealitatearen ikuspegi ahalik eta zabalena kontuan hartuz. Izan ere, beti dago aukera alferrekoak kentzeko; ez da posible, ordea, ikusten ez diren hizkuntzak eranstea. Hori dela eta, arrisku bizioan eta ia desagertzearen dauden hizkuntzak izanagatik, sartu egin ditut, lekukotza gera dadin behinik behin.

- **Hizkuntza-osasun oso ahulean dauden hizkuntzak eta berreskuratzeak baldintzarik betetzen ez dutenak (aintzat hartzeko modukoak ez direnak) kendu:** Dena delako arrazoiarengatik Fagorrek aintzat hartzeko modukoak iruditzen ez zaizkidan hizkuntzak eta dialektoak markatu egin ditut (oñ hizkuntzak Frantziako lau plantatan, franko-provenzeroa Lyonen, eta Behe Silesiera Polonian). Arrazoiak beherago jaso ditut, planta bakoitzaren inguruko balorazioan.

Mapatik kentzeko arrazoiak hainbat izan daitezke, baina kasuan kasuko egoera hobeto aztertzea komeni da, hala ere. Nik kendu ditudan hiru hizkuntzetatik bat (behe silesiera) Ethnologue datu-basean ia desagertuta dagoen hizkuntza modura agertzen da (*Nearly extinct*), *beste batek (franko-provenzerak) oso-oso hitzun gutxi eta sakabanatuak ditu Lyon aldean eta gizarte-funtziorik ia ez du; eta hirugarrenak (Oil hizkerek) badaukate estandarra eta frantsesa da estandar hori.*

Izan ere, iruditzen zait arrakastarako aukera gutxieneko bat behar dela nahitaez hizkuntza baten berreskuratze prozesuari ekiteko.

- **Planta bakoitzeko hizkuntza-jardunaren balorazioa eta ondorio orokorrak** atera ditut (ikus 3.3 puntua, taularen ondoren)
- **Proposamen teoriko-praktiko bat osatu:** Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresaren hizkuntza-politika orokorra osatzeko abiapuntu modura balio dezakeen proposamena osatu dut. Horretarako, gaur egun kudeatzen dituen hizkuntzak eta nire ustez kontuan hartu beharko lituzkeenak kontuan hartu ditut, eta betiere garapen iraunkorraren parametroetatik begiratuta.

PLANTETAKO HIZKUNTZA-JARDUNAREN AZTERKETA ETA HIZKUNTZEN MAPAREKIKO ALDERAKETA

	ARLOAK / FUNTZIOAK	Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Gasteiz, Basauri, Bergara, Azpeitia,... (HEGO) EUSKAL HERRIA	Wroclaw / Breslau POLONIA	Mohammedia MAROKO	Paris, La Roche, Alzenay; Vendome, Orleans; Lyon FRANTZIA	Verolanuova ITALIA	Shanghai TXINA
NORBANAKOEN ERABILERA EZ-INTSITUZIONALA	Zenbat urte funtzionamenduan?	50 urte	60 urte (Fagorrek 8 urte)	12 urte (Fagorrek erosi)	30-40 urte (Brandt-ek 12 urte; Fagorrek 2 urte)	45 bat urte (Brandt-ek 12 urte; Fagorrek 2 urte)	15 urte (2002an Fagor-SMC joint venturea)
	Partaidetza (akzioen kontrola)	%100	%100	%100	%100	%100	%30
	Egitura juridikoa	Kooperatibak; eta tartean sozietate anonimoak eta joint venture bat ere bai	Sozietate anonimoa	Sozietate anonimoa	Sozietate anonimoa	Sozietate anonimoa	SMC
	Produktuak	Sukaldeak, plakak, labeak, galdarak, termoak, garbigailuak, ontzi-garbigailuak, hozkailuak, altzariak, etxetresna txikiak, domotika,...	Sukaldeak, plakak, labeak, garbigailuak eta hozkailuak	Hozkailuak eta izozkailuak	Sukaldeak, ontzi-garbigailuak, garbigailuak, lehorgailuak, labeak, mikrouhin-labeak, tximiniak eta plakak	Hozkailuak eta izozkailuak	Lapiko espresak
	Langile kopurua (planta kopurua)	4.000 (8 planta edo produkzio-gune)	1.800 langile (planta 1)	150 langile (planta 1)	3.400 (5 planta)	600 (planta 1)	225 (planta 1)
KANPORA BEGIRAKO HIZKUNTZA ERABILERA (bezero, hornitzaile, ...)	Maila formaleko idatzizkoa (Irudia eta errotulazioa)	- Euskara eta gaztelania	- Poloniera (eta ingelesa errotulu korporatibo nagusietan)	- Frantsesa	- Frantsesa (eta ingelesa errotulu korporatibo nagusietan)	- Italiara	- Txinera (mandarinera) - Errotulu korporatibo nagusiak txineraz eta ingelesez
	Maila formaleko ahozkoa (Bilerak, komunikazio orokorrak,...)	- Gaztelania - Euskara (gutxiago) - Zuzendaritzako bilerak gaztelaniaz (euskaraz gai 1)	- Poloniera - Zuzendaritzako bilerak ingelesez	- Frantsesa (ZElen arteko bilerak) - Marokoar arabiera (<i>darja</i>) (ZULEi begira, tailerrean gehienek ez baitakite frantsesez) - Zuzendaritzako bilerak frantsesez	- Frantsesa - Zuzendaritzako bilerak frantsesez	- Italiara - Zuzendaritzako bilerak italieraz	- Wú hizkuntza (shangainise) eta txinera - Zuzendaritzako bilerak txineraz - Euskal ordezkaria doanean, itzultzaile bidez: txinera-ingelesa
	Maila formaleko idatzizkoa (dokumentazioa, komunikazio orokorrak)	- Gaztelania - Euskara (gutxiago) - Ingelesa (dokum. batzuk)	- Poloniera - Ingelesa (gutxiago)	- Frantsesa	- Frantsesa	- Italiara	- Txinera eta ingelesa (prozesuko dokum.) - Txinera (bestelakoak)
	Informatika (Windows, Office) eta makinetako softwarea	- Gaztelania - Euskara (gutxiago) - Ingelese ere bai batzuk (makineria)	- Poloniera - Ingelese ere bai batzuk (makineria) - Euskaraz eta gaztelaniaz (Arrasatetik eramandako makina batzuk)	- Frantsesa	- Frantsesa	- Italiara - Ingelese ere bai batzuk (makineria)	- Txinera - Euskal ordezkariarekin ingelesez, itzultzaile bidez (txinera-ingelesa)

	ARLOAK / FUNTZIOAK	Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Gasteiz, Basauri, Bergara, Azpeitia,... (HEGO) EUSKAL HERRIA	Wroclaw / Breslau POLONIA	Mohammedia MAROKO	Paris, La Roche, Alzenay; Vendome, Orleans; Lyon FRANTZIA	Verolanuova ITALIA	Shangai TXINA
NORBANAKOEN ERABILERA EZ-INSTITUZIONALA	Maila informaleko idatzizkoa (e-mailak)	- Gaztelania - Euskara (gutxiago)	- Poloniera	- Frantsesa	Frantsesa	- Italia	- Txinera - Euskal ordezkariarekin itultzaile bidez (ingelese)
	Maila informaleko ahozkoa (plantako erabilera, lekuan lekuko berezko hizkuntzak kontuan hartuta, ez etorkinenak)	- Gaztelania - Euskara (gutxiago)	- Poloniera - Gaztelania (euskal ordezkarien artean eta hainbat poloniarrekin) - (?) Bertako zuzendariak ez dute sumatu bestelako hizkuntzen presentzia nabarmenik	- Bulegoan: frantsesa; eta marokoar arabiera (<i>darja</i>) apur bat, marokoarren arteak; gaztelania euskal ordezkarien artean - Tailerrean: marokoar arabiera (<i>darja</i>) da nagusi - Arabiera klasikoa (estandarra) ez da erabiltzen apenas ahozkoan	- Frantsesa - (?) Ez dago frantsesa ez den beste hizkuntzen inguruko ezagutzarik (bertako zuzendariak ez dute sumatu beste hizkuntzen presentzia nabarmenik).	- Bulegoan: italiara da nagusi - Tailerrean: lonbardera da nagusi; italiara ere bai	- Wu (shanghainise) (%30 inguru) - Txinera (%70 inguru) - (?)
KANPORA BEGIRAKO HIZKUNTZA ERABILERA (bezero, hornitzaile, ...)	Produktua eta publizitatea	- Gaztelania - Hainbat hizkuntza	- Poloniera - Hainbat hizkuntza	- Frantsesa - Arabiera klasiko gauzatxo batzuk (product placement-a,...)	- Frantsesa	- Italia	- Produktuan ingelese (etiketatzea,...) - Publizitatean txinera
	Web gunea (sarrerako orria eta estatuari erreferentzia egiten diona)	- Gaztelania eta ingelese (sarrerako orria) - Gaztelaniaz (Espainiako weba)	- Gaztelania eta ingelese (sarrerako orria) - Poloniera (Poloniako weba)	- Gaztelania eta ingelese (sarrerako orria) - Frantsesez (Marokoko weba)	- Gaztelania eta ingelese (sarrerako orria) - Frantsesa (Frantziako weba)	- Gaztelania eta ingelese (sarrerako orria) - Italiak ez du web orri propiorik. Beraz, "Bestelako herrialdeak" >> ingelesez	- Gaztelania eta ingelese (sarrerako orria) - Txinera (Txinako weba)
	Hornitzaileekiko harremanak	- Gaztelania - Euskara (gutxiago) - Ingelese	- Poloniera - Ingelesa	- Frantsesa (ahoz eta idatziz). - Marokoar arabiera edo <i>darja</i> (ahoz)	- Frantsesa - Ingelese	- Italia - Ingelesa eta frantsesa	- Txinera
	Zentralarekiko harremanak	- Gaztelania - Euskara	- Ingelesa (poloniarrek) - Gaztelania (poloniar batzuek eta euskal ordezkariak) - Euskara (euskal hiztunek)	- Gaztelania - Euskara apur bat -	- Frantsesez Parisko zentralarekin - Ingelese Arrasateko zentralarekin - Gaztelaniaz (zuzendari nagusiak eta besteren batek)	- Frantsesez edo ingelesez Pariskoekin (hiztunaren arabera) - Gaztelania-italieraz edo, beharra dagoenean, ingelesez Arrasateko zentralarekin	- Euskal ordezkariarekin ingelesez, itultzaile bidez (txinera-ingelese)
	Beste plantekiko harremanak	- Gaztelania - Euskara (gutxiago) - Ingelesa - Frantsesa (gutxi)	- Ingelesa - Gaztelania (EHko planta eta Maroko plantarekin) - Frantsesa (Frantziako plantak) - Euskara (EHkoekin)	- Frantsesa - Gaztelania - Ingelesa (EHkoekin, Poloniakoekin,...)	- Ingelese - Gaztelaniaz (zuzendari nagusiak)	- Frantsesa - Ingelesa - Gaztelania-italiera (biak nahastuz)	- Itultzaile bidez (ingelesez)

	ARLOAK / FUNTZIOAK	Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Gasteiz, Basauri, Bergara, Azpeitia,... (HEGO) EUSKAL HERRIA	Wroclaw / Breslau POLONIA	Mohammedia MAROKO	Paris, La Roche, Alzenay; Vendome, Orleans; Lyon FRANTZIA	Verolanuova ITALIA	Shanghai TXINA
HIZKUNTZA ANIZTASUNA	Enpresan erabiltzen diren hizkuntza guztiak (presentzia edo erabilera minimoa dutenak) >> Guztira: 12 hizkuntza	4 hizkuntza: - Gaztelania - Euskara - Ingelesa - Frantsesa	4 hizkuntza: - Poloniera - Ingelesa - Gaztelania - Euskara	5 hizkuntza: - Frantsesa - Arabiera klasikoa - Marokoar arabiera (<i>darija</i>) - Amazigera (berberera) - Gaztelania - Ingelesa	2-3 hizkuntza: - Frantsesa - Ingelesa - Gaztelania zuzendari nagusiak bakarrik	5 hizkuntza: - Italiara - Ingelesa - Lonbardera - Frantsesa - Gaztelania	3 hizkuntza: - Txinera (mandarinera) - Wu (shanghainise) - Ingelesa
HIZKUNTZA NAGUSIA	Enpresaren funtzionamendu hizkuntza nagusia (barne funtzio gehienak, bereziki instituzionalak betetzen dituenak) >> Guztira: 8 hizkuntza	- Gaztelania - Euskara (gutxiago, baina gero eta gehiago, gaztelaniarekin batera, plangintzapean)	- Poloniera - Ingelesa (gutxiago)	- Frantsesa	- Frantsesa	- Italiara	- Txinera - Wu (shanghainise) (ahozko funtzio formal eta informaletarako; ez, ordea, idatzirako)
HIZKUNTZEN MAPA	Lekuan lekuko hizkuntza guztiak (estatu-hizkuntzak eta minorizatuak,...) >> Guztira: 14 hizkuntza	- Euskara - Gaztelania	- Behe Silesiera (<i>Lower silesian</i>) - Poloniera	- Marokoar arabiera (<i>darija</i>) - Arabiera klasikoa (estandarra) - Amazigera (<i>berberera</i> ; <i>tamazight aldaera</i>) - Frantsesa	- Franko-provenzeroa edo arpitana (Lyonen) - Oil hizkuntzak (Paris, La Roche, Alzenay, Vendome eta Orleans-en) - Frantsesa	- Lonbardera - Italiara	- Wu (idatzizko arlo guztietan) - Txinera
GUTXIEGI ERABILIAK	Hizkuntza ikuspegi ekologiko hutsetik, FUNTZIO DEFIZITA izan dezaketen hizkuntzak , Fagorren (gehiago) erabiltzeko zilegitasuna izan lezakitelakoan (aztertzeke). >> Guztira: 9	- Euskara (dagoeneko hasita dago euskararen erabilera indartzeko prozesua, plangintzapean)	- Behe Silesiera (<i>Lower silesian</i>)	- Amazigera (<i>berberera</i> ; <i>tamazight aldaera</i>) - Marokoar arabiera (<i>darija</i>) - Arabiera klasikoa (estandarra)	- Franko-provenzeroa edo arpitana (Lyonen) - Oil hizkuntzak (beste planta guztietan)	- Lonbardera	- Wu (idatzizko arlo guztietan)
	Horietatik berreskuratzeko eta Fagorrek kontuan hartzeko modukoak (hizkuntza-egoera eta bestelakoak kontuan hartuz, gutxieneko arrakasta-aukera eta zilegitasuna dutenak) >> Guztira: 6	- Euskara		- Amazigera (<i>berberera</i>) - Marokoar arabiera (<i>darija</i>) - Arabiera klasikoa		- Lonbardera	- Wu
GEHIEGI ERABILIAK	Hizkuntza ikuspegi ekologiko hutsetik GEHIEGIZKO FUNTZIOA izan dezaketen hizkuntzak (aztertzeke) >> Guztira: 5	- Gaztelania (euskarari funtzioak uzte aldera) - Ingelesa	- Ingelesa	- Frantsesa (amazigerari, marokoar arabierari eta arabiera klasikoari funtzioak uzte aldera)	- Ingelesa	- Italiara (lombarderi funtzioak uzte aldera)	- Ingelesa - Txinera (wu hizkuntzari lekua uzte aldera)

3.3. Planta bakoitzeko hizkuntza-jardunaren balorazioa eta ondorio nagusiak

3.3.1.- Euskal Herriko plantak

- **Defizitak: euskara**

Euskal Herriko plantetan eta enpresetan gaztelania da hizkuntza nagusia, dudarik gabe.

Euskararen funtzio-defizita sumatzen da hainbat esparrutan, bai ahoz eta bai idatziz: bileretan, aurkezpenetan, web gunean, produktuan eta publizitatean, hainbat dokumentutan, maila informalean...

Hala ere, bertako jatorrizko hizkuntza den euskara erabiltzen hasita dago dagoeneko eguneroko funtzioetan, eta aurrerapauso sendoak emateko ahalegin serioa egiten dihardu Fagorrek. Nazioartera hedatu den enpresa honek Euskal Herrian dauka matrizea eta bihotza, eta modu berezian planifikatzen dihardu hizkuntzaren gestioa atzeriko beste plantekin konparatuz gero. Izan ere, ondorioa garbia da: Euskal Herriko 8 planta edo produkzio-gunetatik 8tan dago inplementatuta euskararen erabilera indartzeko plana, eta planta baten barruko bi gune edo negozio txiki dira euskara planik ez duten bakarrak.

Horrez gain, inportantea eta positiboa da Fagor maila formaleko enpresa-arloetan (Txepetxek goi-mailako funtzioak deitzen dituen horietan, funtzio formaletan) ari dela bultzatzen euskararen erabilera. Horrek esanahi berezia dauka eta apustu serioa egiten ari dela esan nahi du. Era horretan, fabriketako euskal hiltunen hizkuntza-eskubideak aintzat hartzea eta errespetatzea lortuko da.

Euskal komunitateak badauka euskararen erabilera normalizatzeko nahia eta gogoia, eta gizartean badago kezka hori eta mugimendu sozial inportantea. Euskal Erkidego Autonomoko gobernuak ere bultzatu, babestu eta lagundu egiten du euskararen normalizazio-jarduna, eta euskarak badauka erakunde publikoen babesa. Ondorioz, kooperatiba honek, bere gizarte-erantzukizunari men eginez, kontuan hartu du hori eta aparteko sentsibilitatea erakusten ari da bere inguruko beste hainbat enpresarekin alderatuz.

Badago, beraz, bertako hizkuntza gutxituaren aldeko sentsibilitate berezi bat matrizean (beste plantetan sumatzen ez dena), eta sentimendu hori ekintza bidez gauzatzen dihardu. Plangintza serio bidez erantzuten dio erantzukizun horri: misioa definituta dauka, metodologia zehatza da eta hizkuntza-politika ere zehazten ari da Euskal Herriko plantei begirako funtzionamendurako. Hortaz, hizkuntza-ekologiaren ikuspegitik, daukan defizita nolabait konpontzeko baliabideak eta tresnak nahiko txukun jarrita ditu Euskal Herriko jardunari dagokionez. Euskara enpresako funtzio guztietara sakontzea eta hedatzea da falta dena, eta baita euskara plana falta zaien enpresa-unitate txikietara (Ekisun eta Proiek) zabaltzea ere.

Nolanahi ere, Fagor ez da gune edo planta bakar bateko enpresa bat, Fagor herrialde askotara zabalduta dago eta enpresen taldea da. Normala denez, planten arteko harremanak daude, eta martxan jarri den engranaje handi hori itzala egiten hasi da Euskal Herriko plantetako hizkuntza-erabileran. Zehazki esanda, ingelesaren sarrerak edo presentziak euskararentzako tokia ezbaian jarri du. Hortaz, gure hizkuntza txikiak ingelesa bezalako hizkuntza erraldoiarekin egin du topo. Kontua da Fagorrek Euskal Herriko plantetarako euskararen erabilera indartzeko planak martxan jarri dituela eta neurri ekologiko bat hartu duela bere gain. Baina, kanpoko gainontzeko plantetarako oraingoz ez dauka inolako planteamendurik esplizitatuta. Gune baterako aplikatzen duen araua ez du aplikatzen besteetarako. Eta, noski, nola ez dio, bada, eragingo kanpoko planten hizkuntza-jardunak hemengoari, kanporako ez badauka hizkuntza-aniztasunaren aldeko irizpiderik? Hizkuntzak lehian daude beraien artean, eta funtzioak dira saria. Zeinek

irabaziko du, bada? Indartsuak, boteretsuak, noski. Hortaz, beharrezkoa da politika orokor bat eta filosofia komun bat adostea, ez zati batean, enpresa eta planta guztietan baizik. Eta horixe da Fagorri falta zaion politika orokorra. Hizkuntzak normalizatzear gain, geure buruak normalizatzeko premia daukagula, alegia, eta hortxe dago gakoa.

Eta hizkuntza-politika zehaztea diodanean, hizkuntza-funtzioen konpartimentazioaz ari naiz. Alegia, oso ondo zehaztea zer egingo den hizkuntza batean eta ez bestean. Eta hori guztia zentzua eta logika daukan marko baten barruan sartzea. Horixe da Euskal Herriko bulego zentraletatik nazioarteko jardun osorako adostu eta negoziatu beharrezkoa. Tokirako (Euskal Herrirako) sortu duen hizkuntza-politika osatu, moldatu, hausnartu eta adostu egin behar da hizkuntza-jardun globalerako. Eta, batez ere, J. A. Fishmanen aholkua jarraituz, hizkuntza bakoitzarentzako funtzioak ondo definitu eta planifikatu. Gauza batzuk euskara hutsean egin (horrek langileek euskara ezagutzera bultzatuko du ezinbestean), eta beste batzuk beste hizkuntza batean. Mikel Zalbidek Hizneteko *Hizkuntza gutxituen berrekurapenerako hainbat hurbilpen teoriko* gaian argi dioskun bezala, horretan ondo asmatzean dago gakoa.

Honen harira, bat dator Hernaniko udaleko euskara teknikari Malores Etxeberriak www.gipuzkoaeuskara.net webean argitaratu berri duen artikularen kezka nagusia: *Zertarako dena bi hizkuntzetan udal administrazioan?*

"Sistemaz bi hizkuntzetan funtzionatzen segitzea astuna, garestia eta antzua da. Antzua da, ez duelako euskaraz idaztera bultzatzen (ele bietan dauden idatzi gehienak gaztelaniaz sortu dira) eta ezta euskaraz irakurtzera ere (euskaldun askok ere gaztelaniaz irakurtzen dute).

Udal barruan euskararen erabileran aurrera egingo badugu, euskara hutsezko jardunari sarbide handiagoa eman behar diogula pentsatzen dut, eta elebitasunaren morrontzatik aldendu.

Eta, azkenik, beldurra galdu behar diogu dokumentu batzuk gaztelania hutsez bideratzeari ere, aurrez ondo zehaztutako irizpide eta plangintzen arabera, jakina."

▪ Gehiegizko erabilera: gaztelania eta ingelesa

Gaztelaniaren kasuan, euskarari funtzioak uzten joatea litzateke kontua. Hainbat esparrutan sumatzen da gehiegizko erabilera, bertako hizkuntza endemikoa den euskararen kaltetan. Hala ere, kilometro gutxitan, planta batetik bestera, dezente aldatzen denez euskararen eta gaztelaniaren errealitate soziolinguistikoa, planta bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta egin beharko da funtzio-ordezkapen hori.

Izan ere, hizkuntza-egoerak oso diferenteak dira batetik bestera. Errealitate soziolinguistikoa diferentea da Oñatiko Altzarien plantan (ezagutza eta erabilera handia, eta euskara planak urteetako emaitzak), Basauriko plantan (ezagutza eta erabilera txikiak eta euskara plana urtebeteko ibilbide soilak) edo Azpeitiko Grumalen plantan (ezagutza eta ahoko erabilera handiak, eta euskara-plana hasi berri). Beraz, abiapuntu diferenteak kontuan hartuta, gaztelaniaren presentzia handiagoa ala txikiagoa izan beharko da planta horietan.

Ingelesaren kasuan, argi sumatzen da berezko beharrik gabe hainbat arlotan daukala presentzia, eta hori orokorra da planta guztietarako. Euskal Herriko plantetan, adibidez, hainbat dokumentutan eta makinatan ingelesa ageri da software eta errotuluetan. Poloniarren eta euskaldunen arteko dokumentuen artean ingeles hutsez daude batzuk: zergatik erabili ingelesa dokumentu finkoetan eta ez euskara eta poloniera? Kontuan izan behar da ingelesa ingelesez hizkuntza (nazio-hizkuntza) dela. Kontua da gaur egun nazioarteko funtziorako erabiltzen dela eta estatus hori eman zaiola ingelesari, baina, berez, hizkuntzen berdintasunaren ikuspegitik eta munduko hizkuntza-aberastasunaren mesedetan, nazio-hizkuntza bat ez litzateke erabili behar nazioarteko funtzioetarako,

hizkuntza neutro bat baizik (adibidez, esperantoa edo beste interlinguaren bat, komunikatzeko sortutako kode soil bat, inon nazio-mailako funtziorik betetzen ez duena).

Askorentzat utopia kutsuko planteamendua izango da hori, baina amets egitea sanoa dela diote eta, gainera, hizkuntza-ekologiaren lupatik begiratuta ari naizenez, horixe da planteatu beharreko irizpidea, zorrotz jokatu behar badut.

Horrez gain, hizkuntzak elementu biziak dira eta urteen poderioz aldaketak nozitzen dituzte, gizarteko gainontzeko aldaketa ekonomiko, politiko, demografiko eta sozialekin batera. Zeinek daki zer gertatuko den ingelesarekin 25 urte barru...? Hizkuntza bat munduko nazio eta txoko askotara zabaltzeak berak ere baditu bere arriskuak. Latina prestigio eta hedadura handiko hizkuntza zen XIX. mendean, eta begira non dagoen gaur egun. Ingelesari ere ez ote zaio gauza bera gertatuko? Ingelesa lekuan lekuko beste hizkuntzekin nahasten ari da, pidginak eta kreolerak sortzen ari dira; hurrengo belaunaldian ama-hizkuntza modura pidgina izan duena kreolera berri bateko hitzun dela kontsidera daiteke (eta spanglish-aren kasua bide horretatik joan daiteke). Gai honen inguruan, hauxe zioen David Crystal hizkuntzalariak:

"The English language as spoken in Britain is now a minority dialect of World English – amounting to some 4 per cent of the global English-speaking population.

With these trends in mind, can we avoid the conclusion that, left to itself, English is going to fragment into mutually unintelligible varieties, just as Vulgar Latin did a millennium ago? The forces of the past fifty years, which have led to so many newly independent nation-states, certainly suggest this outcome. (...) The scenario of an English "family of languages" is a major possibility for the twenty-first century."

Hala ere, ezin zaio ukatu gaur egun ingelesari daukan hedadura zabala eta enpresa-jardunerako daukan interesa. Eta, ezinbestean, munduan ibiltzeko kontuan hartu beharreko hizkuntza da, eta ez dut uste Fagorreko langileek erreparorik izan behar dutenik ingelesa ikasteko eta erabiltzeko kanpo-harremanetarako, egoerak hala eskatzen duenean. Hortaz, **ez nabil ingelesaren erabilera zernahitarako baztertu guran, bai, ordea, bere erabilera mugatu eta zedarritu nahian. Ingelesak ezin ditu funtzio guztiak bete eta ez ditu bete behar.** Izan ere, gehiegizko erabilerak lekuan lekuko hizkuntzak baztertzea eta funtzioak ordezkatzeko dakar, eta hori oso ondo bereizi behar da: zertarako bai eta zertarako ez; noiz eta norekin.

Nolanahi ere, gaur egun munduko hizkuntza-aniztasunak daukan arriskurik handiena ingelesarena da, beharbada. Txepetxen teoriaren arabera, nazio-mailako funtziotik behera beste hizkuntza bat sartzen hasten bada, tokiko hizkuntzari ken diezaioke lekua eta hizkuntza hori gutxitze prozesuan hasiko da, bertako hitzunen eta munduko kultur ondarearen kalterako. Eta, noski, hori jakinda eta kontuan izanda egin behar dira hizkuntza-politikako planteamendu guztiak.

3.3.2.- Poloniako planta

▪ Defizitak: Behe Silesiera (Lower Silesian; Lower Schlesisch).

Hauxe da Wroclaw (alemanieraz Breslau) hiriaren inguruan topatu dudana hizkuntza gutxitu bakarra (Dolny Slask zonaldean). Egia esan, ez da mapa guztietan agertzen (Unesco-k, esate baterako, ez dauka jasota bere mapan) baina aintzakotzat hartzen dute beste hainbat informazio-iturritan, batzuek hizkuntza modura, eta beste batzuek dialekto modura:

- Ethnologue (B. Grimes)
- Mercator
- Wikipedia
- Euromosaic,...

Hizkuntza edo dialekto hau ez da nahastu behar Goi Silesia hizkuntzarekin (Upper Silesian, edo Silesian). Izan ere, Goi Silesia ekialderago dagoen beste lurralde bat da, eta Goi Silesia polonieraren aldera edo dialektoa da.

Behe Silesia alemanetik datorren hizkuntza edo hizkuntza-aldaera bat da, eslaviar hizkuntzen eragin apur bat duena. Txekian eta Alemania ekialdean ere erabiltzen omen da.



Iturria: www.eurominority.org (German, alemana bezala agertzen da)

II. Mundu Gerra aurretik gaur egun Polonia denaren lurralde zati bat (besteak beste Behe Silesia) Alemania zen eta alemaniarrek bizi ziren bertan. Gero, II. Mundu Gerra ondoren Poloniaren muga politikoak aldatu egin ziren eta Alemaniaren zati bat hartu zuen gaur egun Polonia den estatuak bere barnean. Bitarte horretan, gainera, alemanak erbesteratu egin zituzten eta alemanez eta Behe Silesieraz hitz egitea debekatu egin zuten autoritateek, errepresio garaian. Beraz, Behe Silesian bizi ziren jatorri alemaniarreko biztanle haien hizkuntza da Behe Silesia. Hala ere, oso hitzun gutxi geratzen dira eta azkeneko zentsuan ez zen agertu inor bere lehen hizkuntza Behe Silesia zeukanik. Beraz, galtze fasean sartuta dagoen hizkuntza dela esan daiteke.

Dena den, poloniar estatuak minoria etnikoei aitortzen die eskolan hizkuntza gutxiuak ikasgai bat gehiago modura aukeratzeko eskubidea, baina gero konstituzioan ukatu egiten die hizkuntza gutxiuei (poloniera ez den bestelako hizkuntza orori) negozioetan eta autoritateekin erabiltzeko legifimitatea. Hortaz, konstituzioak goi-mailako funtzio horietan eskusibotasuna ematen dio polonierari, elebakartasuna inposatuz. ⁽⁵⁾

Wroclawko plantaren inguruko ezagutza duten elkarrizketatuek ez dute ezagutzen hizkuntza hori erabiltzen duen langilerik.

Ethnologue-ren arabera osasun-maila: Nearly extinct (ia desagertuta)

Hauxe da, hain zuzen ere, arazo militarrek eta soziopolitikoek eragindako hizkuntza baten galeraren adibide garbia.

Gauzak horrela, uste dut Fagorrek ezin duela ezer egin hizkuntza honen berreskuratze prozesuaren alde, galdu baititu bere erreproduzio mekanismo ia guztiak eta ez dago prozesu hori aktibatuko den zantzu garbirik.

Horrez gain, hizkuntza-aniztasunaren perspektibatik, aipatu beharra dago behe silesiera alemanaren aldaera bat dela eta, hortaz, ez dela hizkuntza endemikoa. Hortaz, nahiz eta behe silesiera (alemanaren aldaera) galdu, alemana bera ez da galduko eta bizirik dirau hainbat herrialdetan.

▪ Gehiegizko erabilera: ingelesa

Irizpide ekolinguistiko batetik, gehiegizko funtzioak hartzen ari da ingelesa Polonian. Eta horixe da elkarrizketatu batek izan duen inpresioa ere: "indarra hartzen ari da ingelesa Poloniako plantan azkenaldian". Fagorrek orain 8 urte planta erosi zuenetik, ingelesaren erabilera dezente hazi da, Arrasateko Zentralarekin sortu diren harremanengatik, bai ahozkoan (Poloniara lanera joandako euskal ordezkariekin sortu den harremana, bilerak...) eta baita idatzizkoan ere.

Hasteko, errotulu korporatibo nagusia ingelesez idatzita dago (Fagor Mastercook Group Company). Makina batzuk ingelesezko softwarea eta errotuluak dituzte, dokumentu eta aurkezpen batzuetan ingelesa erabiltzen da poloniera eta gaztelania (edo poloniera eta euskara) erabili beharrean. Bulegoetako langileen arteko hainbat elkarrizketa dira ingelesez, eta zuzendaritzako bilerak ingelesez egiten dira.

Denok dakigunez, zubi-hizkuntza da ingelesa gaur egun, eta horrela erabiltzen da sano-sano. Baina, funtzio guztietarako erabili behar al da? Euskal enpresa baten Poloniako errotulu korporatiboa ingelesez egoteak ba al dauka zentzurik? Zentzua dauka, noski, baldin eta erabilera hori eman nahi bazaio propio (ingelesa=enpresa multinazionala gara). Baina lekuan lekuko hizkuntzak lehenesteko irizpidearekin bat etorri gero, ez da zilegi. Bestalde, polonieraren ezagutza-faltak dakar automatikoki ingelesa erabiltzea: Euskal Herritik Poloniako zuzendaritzara joandako kide guztiek poloniera ikasiko balute, polonieraz egin ahal izango liriateke bilerak.

Elkarrizketatu ditudan bi informatzaileen iritziz, lekuan lekuko hizkuntzak erabili behar dira eta haiei eman behar zaizkie funtzio nagusiak, ahal dela. Hala ere, ezagutza defizita dago hori horrela izan dadin: Euskal Herriko zentralakoek ez dakite polonieraz eta poloniarrek ez dakite ez gaztelaniaz eta ezta euskaraz ere. Hori dela-eta, itzultzaile eta interpretariak erabiltzen dituzte (poloniera-gaztelaniako 5 itzultzaile; eta poloniera-ingeleserako itzultzaile 1) Ikuspegi ekologikotik, bide logikoagoa izan daiteke itzultzaile gehienak polonieratik gaztelaniarakoak izatea, eta ez ingelesera. Itzultzaile hauek enpresaren kultura oso ondo barneratuta daukate eta bestelako lan anitzetan ere parte hartzen dute, hala nola idazkari lanak (aktak jaso, etab.). Formula berezia da, eta emaitza onak eman dituenak.

Bestalde, elkarrizketatu batek aipatu du nahiz eta oraindik ingelesa erabili beharra ikusten duen, asko aurreratu dela hizkuntza-ikaskuntzan eta hizkuntza-aniztasunean eta dagoeneko badira 50 bat lagun gaztelania ikasi dutenak. Horrez gain, Euskal Herritik joandako 4-5 lagunek poloniera ikasi dute eta oso ongi integratu dira Poloniako plantako errealitate soziolinguistikora.

Badaude, beraz, hainbat zantzu positibo Poloniako plantako hizkuntza-jardunean. Euskal Herriko matxizetik joandako kide asko bertakotzen eta integratzen ari dira hizkuntza bidez, eta Poloniako langile estrategiko askok dihardute gaztelania ikasten eta dagoeneko kulturartekotasun-maila polita dagoela ikusten da. Horrez gain, ia denek menperatzen dute ingelesa, eta hori ona da, baina hasita daude ingelesez egin beharrean gaztelaniaz eta polonieraz egiten beraien artean, eta hori oso positiboa da. Esango nuke jokabide horrek eredu izan beharko lukeela Fagorrerako. Oso aberatsa baita bai hiztunentzat, bai enpresarentzat eta baita hizkuntzen garapen iraunkorrerako ere.

Hizkuntzen arteko trukeari dagokionez, Mondragon Unibertsitatea eta Wroclawko unibertsitatea harremanetan ari dira, eta karrera amaierako proiektuak trukean hartzen dituzte, Poloniatik Euskal Herrira eta Euskal Heritik Poloniara. Horrez gain, prestakuntza-programak ere sortu dituzte CIMen bitartez, eta Euskal Herrian poloniera ikasteko aukera dago orain. Horren isla da Arrano Zuria (Orzel Bialy, polonieraz) izeneko euskal-poloniar kultur elkartearen. Arrano Zuria kultur elkartearen 1998an sortu zen Euskal Herriaren eta Poloniaren arteko adiskidetasun lotura sendotu eta ezagutarazteko helburuarekin. Hori guztia oso aberatsa da hizkuntza-ekologiaren ikuspegitik.

3.3.3.- Marokoko planta

- **Defizitak: amazigera (berberera)**

Amazigera garai batean Afrika iparralde osora zabalduta zegoen. Baina, ondoren arabizazioak harrapatu zuen Maroko osoa, eta gainera horri frantsesaren eta gaztelaniaren (Maroko iparraldean) presentzia indartsua gaineratu behar zaio. Goi-mailako funtzioetan frantsesa da nagusi Marokon, eta prestigioa daukan hizkuntzatzat daukate, gainera, marokoarrek frantsesa.

Gaur egun gutxituta dago amazigera Marokon: %35 inguru omen da amazigeraren (berberaren) ezagutza-maila. Iturri berbereen arabera, %45era ere iristen omen da. Mohammedia inguruan, hala ere, hori baino dezente gutxiagok dakite amazigera, baina ez dago datu zehatzik, eta Fagorreko plantako elkarriketatuak ere ezin izan du daturik eman (%5 aipatu du batek).

Arabiera da Marokoko hizkuntza ofizial bakarra, nahiz eta frantsesak ere betetzen dituen goi-mailako funtzio asko, arabierarekin batera (administrazioa, komunikabideak, enpresa-mundua...). Arabiera justizia alorrean erabiltzen da eskusiboki, alor hori Coran-ari lotuta dagoenez. Irakaskuntza publikoan arabiera erabiltzen dute nagusiki, baina eskola pribatu gehienak frantsesezko eremuan dira. Berberera edo amazigera onartuta dago ofizialki irakaskuntzarako, baina hortik aurrera ez dago gobernuaren partetik inolako babesik, ezta amazigera biziberritzeko planik ere. Gizartean badaude, hala ere, amazigeraren aldeko taldeak eta amazigeraren ofizialtasuna aldarrikatzen duen talde egituratuak.


Fagorren plantak frantsesez funtzionatzen du nagusiki, eta amazigerak ez dauka inolako funtziorik. Aztertu egin beharko litzateke ea zenbat diren amazigera dakitenak eta erabiltzen dutenak, eta ea zer nolako jarrera daukaten beraien hizkuntzaren inguruan (beraien hizkuntza-eskubideen aldeko jarrera duten ala ez).

Kontuan hartu beharreko beste kontu bat idazkerarena da. Marokoko plantako tailerrean oso jende gutxi dago alfabetatuta. Horrez gain, amazigeraren idazkera-alfabetoa ezberdina da: tifinah alfabetoan idazten dute, nahiz eta alfabeto latindarrean ere idazten hasita dauden azkenaldian.

Egia esan, berbereen komunitatea itota sumatzen da beste bi hizkuntzen artean (frantsesa eta arabiera), eta ez da erraza izango Casablanca bezalako gune

garatuetan hiztun-komunitate horrek aurrera egitea, hizkuntza biziberritzeko baldintzak kaskarrak baitira.

Besterik ez bada ere, uste dut kontuan izan beharko litzatekeela berberera sikiera errotulazioan, lekuan lekuko aniztasunaren lekuko, bertako jatorrizko hizkuntza delako, oraindik hiztun batzuk badaudelako eta komunitate horri zor zaionagatik.



Defizitak: arabiera (marokoar arabiera edo darija; eta arabiera klasikoa)

Mohammedian ia %100ek dakite marokoar arabieraz edo darijaz. Klean ahozko jardunean hizkuntza nagusia da arabiera.

Fagorreko plantan arabierak presentzia handiagoa izan beharko lukeela iruditzen zait, bereziki bileretan eta arlo idatzian (bulegoko dokumentuak etab.). Era horretan, goimailako funtzioetan erabiltzearen poderioz, prestigioa irabaziko luke arabierak.

Euskal Herritik Mohammediako plantara doazenentzat oztopo izan daiteke alfabeto arabiarren ezberdintasuna hizkuntza azkar ikasteko.

Elkarriketatik atera dudak beste ondorio bat: arabiar langileek, oro har, ez omen dute adierazten beraien hizkuntzarekiko atxikimendu handiegirik, prestigiorik ez baitu. Frantsesa da prestigiozko hizkuntza eta frantsesa miresten dute. Gutxiagotasun konplexua sumatzen da hiztun-komunitate honen partetik. Hori arriskutsua izan daiteke hizkuntzaren jarraipenerako, frantsesak asimilatzen lagatzeko arriskua baitago. Alde horretatik, nortasun eta atxikimendu handiagoa sumatzen da berbere-hiztunen aldetik.


Gehiegizko funtzioak: frantsesa

Bi gune bereizten dira Marokoko plantan, oso nabarmen: bulegoa eta tailerra. Bulegokoei, lanean jarduteko, frantsesa jakitea eskatzen zaie, eta horixe da prestigioa duen hizkuntza, tailerreko langileek desiratzen dutena, Marokon. Tailerrean, aldiz, gutxi dira frantsesa menperatzen dutenak, eta arabiera da nagusi. Tailerreko langileek frantsesa jakitea amesten dute, lanpostu hobea lortzeko etab. Oso esanguratsua da

hori. Hizkuntza lotuta dago bizimoldeari, maila profesionalari eta ongizate-maila bati. Beraien hizkuntza (arabiera) gutxiesten dute eta frantsesa (Europatik datorren hizkuntza) jainkotu egiten dute. Horrek, noski, oso azalpen erraza dauka: frantsesa maila formaleko funtzioei (eta bereziki horiei, administrazioan, lan-munduan) lotuta dagoen hizkuntza da, ea beraiena (arabiera), aldiz, maila informalerako eta kalerako besterik ez da erabiltzen. Horregatik lotzen dute bata prestigioarekin eta bestea ez. Oso markatua da funtzio-banaketa hori Marokon.

Hortaz, frantsesa frantsesen hizkuntza izanik (kanpotik eraman berri dutena, nolabait), amazigerari eta arabierari eman beharko litzaieke funtzio gehiago enpresan, eta bi hizkuntza horien prestigio-maila igo, frantsesari funtzioak kenduta.

3.3.4.- Frantziako plantak



- **Parisko zentrala, La Roche, Alzenay, Vendome eta Orleansko plantak:**

Oil hizkuntzak agertu dira hizkuntzen mapan. Ez dirudi, hala ere, presentzia handirik dutenik egunerokoan.

Hauxe da Mercator Media erakundeak Interneteko datu-basean oil hizkuntzen inguruan egiten duen balorazioa:

The langues d'oïl are spoken all over northern France (including the east of Brittany), in Belgium (where the language is called Walloon), in the north west of Switzerland and the Channel Islands. The language that is known today as French, evolved from a version of langue d'oïl previously spoken in the Ile de France region (which comprises of Paris and its outskirts).

There are several Oïl dialects and they are considered by their speakers to be separate languages in their own right, principally: Gallo, Picard, Poitevin-Saintongeais, Champagne, Norman and Morvan. The speakers of these languages are generally elderly and living in rural areas.


The various Oïl languages are nearly non-existent in the media. There are very few magazines written entirely/mainly in the languages; Ch'Lanchron, Urchon-Pico* in Picard, Brnuncio* in Poitevin-Saintongeais being exceptions. Any radio programmes broadcast in the language are due to the efforts of local associations*

Défense et Promotion des Langues d'Oïl is an association which brings together all the linguistic associations concerned with the Oïl languages.

Beraz, dugun informazioaren arabera, frantsesak erabat ordezkatu ditu hizkera horiek.

▪ Lyongo planta:

Elkarriketatu batek esandakoa oso argigarria da Lyongo plantako errealitate soziolinguistikoa ulertzeko: "Lyongo plantan izugarria da etorkinen kopurua. Kontatu egin genituen banan-banan eta 51 jatorri edo nazionalitate ezberdinetako langileak kontatu genituen".



Franco-provençera hizkuntzaren eremua, urdinez
Iturria: Munduko hizkuntzen Amarauna, Unesco

Oïl eta Oc (okzitaniera) hizkerak, eta franco-provençera Lyonen
Iturria:

Hizkuntzen mapan franko-provençera agertzen da Lyonen. Hango eta hemengo informazioa aztertu ondoren, ondorioa nahiko garbia da: garai batean Lyon inguruan ez zen franko-provençera besterik egiten, baina orain frantsesak funtzio guztiak hartu ditu eta hiztun gutxi batzuk besterik ez dira geratzen herri txikietan (eta adinean aurrera doazenak, gainera). Hauxe da Munduko Hizkuntzen Amaraunean egiten den aipamena: "La situación de la lengua es diferente según el país (Francia, Suiza e Italia). En Italia, el Valle de Aosta goza de una situación privilegiada respecto a los demás, ya que se utiliza a nivel político, administrativo y en escuelas. En

Francia está destinada a morir en tiempo breve aunque sobrevivirá en el francés regional. La situación en Suiza no es muy diferente a la francesa, aunque no haya datos."

Desagertzeko arrisku larrian dagoen hizkuntza da franko-provenzera Lyon inguruan, eta erreproduzio-mekanismoak ahulduta diru erabat, ia ez baitu funtzio formalik betetzen (administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan, unibertsitatean...). Frantziako gobernuak ezarritako politikarekin, franko-provenzera hiltzera kondenatuta dagoen hizkuntza dela ondorioztatu daiteke. Italia aldeko Aosta bailaran, ordea, badauka babes legala, eta transmisioa ez da eten eta irakaskuntzan ere erabiltzen dute. Beraz, Aosta bailararen Italiako partean dauka etorkizun oparoena hiztun-komunitatea honek. ⁽⁶⁾

3.3.5.- Italiako planta

Verolanuovako plantan (ia) denek dakizkite bai italiara eta baita lonbardera ere. Zail da esatea lonbardera italiararen aldaera bat den ala hizkuntza beregaina den. Hala ere, uste dut aztertu egin beharko litzatekeela lonbarderari funtzio gehiago eman ala ez. Ezagutzamaila handia da, baina zalantza daukat hiztunek beraiek ez ote duten hartzen lonbardera maila kolokialerako, eta erregistro formalerako eta idatzirako italiara. Ez dakit zergatik den hori, beraientzat modu naturalean hizkuntza beraren bi aldera direlako, ala lonbarderak ofizialtasunik ez duelako eta ez dutelako hizkuntza osoa kontsideratzen.

Interneten topatu dudana informazioaren arabera, bi jarrera kontrajarri agertzen dira: batzuek lonbardera hizkuntza beregaintzat jotzen dute (Ethnologue; Wikipedia; Orbis Latinus,...), eta beste batzuek, ordea, italiararen aldaeratzat (Euromosaic; Unesco Etxeak kudeatzen duen Munduko Hizkuntzen Amaraunak ez dio hizkuntza mailako tratamendurik eman oraingoz). Beharbada hobeto aztertu beharko litzateke ea lonbardera hizkuntza propio modura aldarrikatzen duen hiztun-talde egituraturik dagoen ala ez.


Hortaz, langileei beraiei hitza ematea eta beraiei nahiak eta borondateak entzutea litzateke onena. Hala ere, enpresak komunitate horri bere hizkuntza garatzeko aukera ematea ezinbestekoa iruditzen zait.



Iturria: Wikipedia entziklopedia
Lonbarderaren erabilera-mugak

Nolanahi ere, Interneten topatu ditut lonbardera ikasteko eta lonbarderaz txateatzeko guneak. Hortaz, hizkera arauturen bat edo estandarren bat izango dutela iruditzen zait.

3.3.6.- Shangaiko planta



Iturria: <http://www.proel.org/mundo/chino>

Oso bitxia da, benetan, Shangaiko plantaren hizkuntza-errealitatea. Plantan bertan txinatarrek daude, hau da, ez dago euskal ordezkariarik bertan, baina egunero hitz egiten dute Etxetresna Txikietako arduradun euskaldunarekin. Itzultzaile bitartez konpontzen dira, mezuak ingelesez txinerara (mandarinerara) itzuliz.

Txinatarrek ez dakite ingelesez, baina zubi-hizkuntza modura ingelesa hartzen dute ahoko harremanetarako (euskal ordezkariarekin mintzatzeko), gaztelania hartu beharrean. Berez, logikoagoa litzateke itzultzaile gaztelaniaduna (edo euskalduna) kontratatzea eta gaztelaniatik txinerara itzultzea, baina beharbada hori ez da posible...

Prozesuko dokumentazioan (Euskal Herria eta Shanghai artekoak direnetan), iruditzen zait ez dagoela ingelesa erabili beharrik. Askoz zuzenagoa eta ekologikoagoa litzateke txineraz eta euskaraz (ele bietan) jartzea dokumentuak, jatorrizko bi hizkuntzak kontuan hartuta, tarteko beste hizkuntza bat (ingelesa) hartu beharrean.

Beste kontu bitxi bat ere badago: Fagorrek plantaren akzioen zatia erosi zuenean, txinatarrek, euskal ordezkariak eskatu gabe, ingelesez eta txineraz jarri zituzten errotulu nagusi guztiak. Berez, ez legoke beharrik, baina ingelesak konnotazio bereziak eta dirudienez mundu osoak hartzen du nazioarteko hizkuntza modura. Gure ikuspegitik, txineraz egotearekin nahikoa litzateke, edo bertako beste hizkuntzaren bat (Wu hizkuntza).

Wu hizkuntza edo shanghainise hizkuntza topatu dut mapan, eta bertako 3 bazkide txinatarrek egunerokoan erabiltzen dute, baina Shanghai hiri handia denez eta etorkin asko daudenez, erabilera %30 ingurukoa da (wu). Hala ere, bulegoko bilera asko wu hizkuntzan egiten dira. Ez dute idazten wu hizkuntzan, hala ere, horretarako txinera mandarina erabiltzen dute.

Wu hizkera hizkuntza beregaina ote den edo txinera hizkuntzaren dialektoa den ez dago oso garbi. Txinerak aldaera asko ditu (mandarina da horietako bat, eta wu beste bat). Beraz, txinera mandarinera hizkuntza kontsideratzen bada, txineraren familiako wu aldaera ere hizkuntza kontsidera daitekeela ematen du, eta informazio-iturriren batean halaxe dago adierazita. Informazioa ez da garbia, hala ere, beste leku batzuetan dialektotzat jotzen baitute. Hortaz, hizkuntzak erabiltzen dituztenak direnez, beraiei galdetu beharko litzaieke. Nolanahi ere, wu hizkuntzari funtzio gehiago eman dakioken edota beste hizkuntzaren bat ere ba ote dagoen hobeto aztertu daiteke. (7)

Proposatzen dudana aldaketa nagusia dokumentazioarena da (ingelesaren partez euskara sartzea), eta errotuluetatik ingelesa kentzea eta bertako beste hizkuntzaren bat sartzea, hala balegokio (wu hizkuntza,...).

3.4. Ondorio orokorrak eta etorkizunerako proposamena

3.4.1.- Ondorio orokorrak

Fagorrek hizkuntza ugari erabiltzen ditu bere jardunean: aniztasuna badago, beraz, Fagorren hizkuntza-jardunean.

Lekuan lekuko hizkuntza nagusiak edo estatu-hizkuntzak dira gehienetan.

Fagorrek ez dauka nazioarterako hizkuntza-politika orokor bat idatzita eta adostuta (Euskal Herriko planta gehienetarako bai, ordea).

Euskal Herriko plantan sentiberatasun berezia dago eta euskara biziberritzeko saiakera egiten ari da planta gehienetan.

Franko-provenzera Lyonen eta behe silesiera Wroclawn ia desagertzeaz daude eta ez dago baldintzarik hizkuntza horiek Fagorren dinamikan sartzeko. Oñ hizkerez gauza bera esan daiteke eta, gainera, horietako batzuetatik sortutako estandarra da frantsesa.

Arabierari funtzio gehiago eman behar zaizkio, eta posible da hori egitea, gainera.

Amazigera, lonbardera eta wu hizkuntzei zein tratamendu eman hobeto aztertu behar dira, lekuan lekuko komunitatearekin.

Frantsesak goi-mailako funtzio gehiegi ditu Marokon eta hiztun-komunitatearen espazio sinbolikoan pisu handiegia hartzen ari da frantsesa, arabieraren eta amazigeraren kaltetan.

Gaztelaniak funtzio gehiegi ditu Euskal Herriko plantetan, eta leku gehiago eman beharko lioke euskarari.

Ingelesak funtzio gehiegi ditu, oro har, hizkuntza-garapen iraunkor baten ikuspegitik.

3.4.2.- Irizpideak eta jarraibideak

Aurrera begirakoak antolatzeko irizpide eta jarraibide hauek lagungarri izan daitezke Fagorrenzat, ideia modura.

- **NAZIOARTERAKO HIZKUNTZA POLITIKA OROKORRA zehazteko bidea** arrasto honetatik egin daiteke:
 - Enpresako BALIOEN gaineko hausnarketa egiten denean, balioen artean hizkuntza-ekologiaren eta hizkuntzen garapen iraunkorraren filosofia txertatzea eta horren gaineko hausnarketa egitea.
 - MISIOA zehaztea: Fagor Etxetresna Elektrikoak agrupazio osorako baliagarria izango den helburu nagusi bat definitzea, hizkuntzen inguruko jardunerako iparra izango dena (oro har, balio horrek zein aplikazio izango duen enpresan).
 - IKUSPEGIA bateratzea: Epe luzera begira enpresak bere burua non kokatzen duen eta noraino iritsi nahiko lukeen adostea. Ikuspegia edo *bisioa*, alegia.
 - Balioen, misioaren eta ikuspegiaren gainean hizkuntza-jardun orokorrerako oinarritzko IRIZPIDEAK, bete beharreko ARAUAK eta bete beharreko BALDINTZAK zehaztea.
 - Lekuan lekuko hizkuntza-errealitatea aztertzea eta planta bakoitzerako eta planten arteko komunikaziorako POLITIKA OROKORRA zehaztea, funtzioz funtzio (barne-ahozkoa, barne-idatzizkoa, kanpo-ahozkoa, kanpo-idatzizkoa). Horretarako lan honetako proposamena har daiteke abiapuntu modura, eta funtzio eta zereginetan behar beste sakondu eta xehatu.
 - Hizkuntza-politika orokorra betetzeko eta gauzatu ahal izateko, formazio-premien inguruko azterketa egin eta FORMAZIOA planifikatzea.

Hizkuntzen gestio iraunkorra eta ekologikoa bultzatzen lagun dezaketen **tresnak, ideiak eta jarraibideak**:

- Metodologia parte-hartzailea erabili, erabakiak adostasunez hartu. Arrakastarako gako inportante bat izan daiteke.
- Fagorrek esku hartzen duen tokietan bizirik dauden hizkuntzen datu-basea sortu eta mantendu.
- Hizkuntzen gestiorako koordinazio batzordea sortu eta lekuan lekuko beharren arabera, hizkuntza-batzorde bat sortu, Euskal Herriko plantetan Euskara batzordeek betetzen duten antzeko funtzioa izan dezaten.
- Hizkuntzen gestioa enpresaren gestioaren barruan txertatzeko estrategiak landu etengabe.
- Formazioaren garrantzia: hizkuntzen garapen iraunkorraren kontzeptua enpresan barneratzeko eta hizkuntzen inguruko kultura langileen artean zabaltzeko formazioa antolatzea. Hau da, kooperatiben balioen artean honako hau ere transmititzeko mekanismoak martxan jartzea (harrera plana,...).
- Prozesu-eran antolatu ekolinguismoaren praktika, eta ez hasi eta amaitu egiten den ekintza baten eran. PDCA zikloa erabiliz, esate baterako.
- Euskararen normalizazio-prozesuan pilatutako ezagutza eta esperientzia beste nazio batzuetako plantetako normalizazio-prozesuak bideratzeko aprobetxatu eta baliatu. Euskal Herriko plantetarako sortutako Euskara Zerbitzuak aholkulari funtzioa bete dezake.
- Euskara planak kooperatibaren fondo sozialetatik finantzatzen diren bezala, hizkuntzen batzorde horren jardunetik sortutako ekimenak (hizkuntzen ezagutza

eta erabilera sustatzeko planak) ere fondo sozialetatik finantza daitezke. Izan ere, izaera soziala duten baliabide horiek esanahi eta eduki sozialez betetzeko aukera ezin hobea litzateke.

- Paradigma berritzaile horien inguruko komunikazioa: gizarteari egiten duenaren berri eman.
- Enpresaren lau urtetik behingo plan estrategikoetan hausnartu, eztabaidatu eta landu gaia, euskara planen kasuan egin izan den bezala.
- Hemen proposatutakoak eta martxan jar daitezkeen hausnarketak inguruko enpresekin partekatu eta hizkuntza-politikak elkarlanean zehaztu, adibidez MCC eta Fagor Taldeko enpresekin. Era horretan, sinergiak aprobetxatzea lortuko da.
- Itzulpengintza eta interpretaritza zerbitzuak erabili. Ahal dela, beti jatorrizko hizkuntzatik xede-hizkuntzara zuzenean itzuli beti, ingelesa zubi-hizkuntza bezala hartu gabe.
- Itzulpen automatikoko aplikazioak eta zerbitzuak erabili. Gaur egun doako hainbat zerbitzu aurki daitezke Interneten, eta oso lagungarri izan daitezke testu masa handiak itzultzeko. ELEKAko Ibon Aizpuruak hitzaldi batean aipatu berri duenez, euskarazko itzultzaile automatikoa garatzen dihardute eta 5 urteko epean tresna txukuna edukiko dugu esku artean (OpenTrad). Eremu zabalagoko eta hizkuntza-familia berekoak diren beste hainbat hizkuntzen arteko itzulpenak egiteko tresnak ondo garatuta daude dagoeneko (adib: gaztelania, katalana, galegoa, frantsesa, ingelesa, portugesa, italiera, alemana,...).

Itzultzaile automatikorako aplikazioa eta enpresako terminologiaren hiztegia (datu-basea) edukiz gero, enpresako testu espezifikoak azkar eta kalitate-maila onargarriarekin itzul daitezke automatikoki. Prozedura hori bera jarraitzen dute, adibidez, Xerox, Catepillar eta Ford enpresek erabiltzaileentzako eskuliburuak sortzeko. Hortaz, ingeniariak linguistikoak asko lagun dezake eleaniztasuna kudeatzeko orduan.

- Software librean oinarrituko programa informatikoak erabiltzeko aukera aztertu.
- Ingeniaritza linguistikoa eta aurrerapen informatikoak hizkuntza-aniztasuna indartzeko eta bereziki hizkuntza gutxituen eta txikien onurarako baliatu. Arlo hau askoz gehiago ustiatu beharra dago, hortik luze gabe ustekabeko onurak etorriko dira eta.
- Aldiroko auditoria-sistema martxan ipini, hizkuntza-irizpideen eta arauen gaineko betetze-mailak ezagutzeko eta ekintza zuzentzaileak planteatzeko.

Zein irizpideren arabera hartu beharko luke **Fagorrek aintzat hizkuntza gutxitu bat** bere funtzionamenduan txertatzeko? Zein dira bete beharko liratekeen **baldintza orokorrak**?

Etorkizunean planta berriren bat erosi edo eraiki behar badu munduko txokoren batean, Fagorrek lehendabizi mapan begiratu behar duela iruditzen zait. **Mapan agertzen diren guzti-guztiak** hartu behar dira aintzat, hizkuntzen **duintasunaren eta berdintasunaren printzipioa** jarraituz, eta egoera bete osotasunean aztertu. Eta, abiapuntu horretatik abiatuta, aukerak aztertu, adostasuna lortu eta erabakiak hartu.

Kontua da askotan gerta litekeela **minorizazio egoeran** egotea hizkuntzaren bat eta horrek zalantza ekar lezake: **hizkuntza gutxitu hori erabili beharko luke** enpresak? Zein irizpide egon daiteke horretarako?

Bernat Joan i Mari-k dio 3 zutari direla beharrezkoak hizkuntzak biziberritzeko:

- 1) Hizkuntza estandarra, formala (**corpusa**)
- 2) Hizkuntza erabiltzeko espazio sozialak (**arloz arloko funtzioak**)
- 3) Jarrera: hiztun-komunitatearen nahia, gogoa, borondatea (**aldeko jarrera**)

Hirugarren hori klabea da, eta hein handi batean hizkuntza askoren geroa jarrera edo borondate horren baitan dago. Beraz, ezinbestekoa da **hiztun-komunitatearen partetik** hizkuntzari eusteko eta enpresako jardunean funtzioak emateko **aldeko jarrera izatea**. Zalantzak kasuetan, Kontseilu Sozialari edo langileen ordezkaritza-organismoek kontsulta egin dakieke. Hori batetik.

Eta, bestetik, **enpresari dagokiona** bigarrena da, hizkuntzari erabilera ematea, **funtzioak eskaintzea enpresako jardunean**. Baina, horretarako beste biek minimoak bete behar dituzte: oinarrizko corpusa sortuta izan behar du, eta hiztunen aldetik hizkuntza erabiltzeko nahia eta borondatea.

Horrez gain, kontuan hartu beharreko beste pare bat kontu aipatu nahi ditut:

- Aurrez (1. atalean) azaldu dut hizkuntzen normalizazio prozesuan, Txepetxen teoriaren arabera, hizkuntzek 7 funtzio bete ditzaketela. Hortaz, funtzioen berreskuratze-prozesuan, enpresek 3. mailako funtzioa beteko dute (lana). Baina, horretarako aurreko bi funtzioak beteta edo bete samar egon behar dutela iruditzen zait, hizkuntza horren biziberritze-prozesuak arrakastarako aukera gutxienezkoak bermatuta izan ditzan.

Beraz, batetik, **hiztun kopuru minimo bat** egon behar du enpresan, eta **funtzio familiarra eta irakaskuntzakoa** gutxienez betetzeko bidean izatea komeniko litzateke. Hau da, hizkuntza bat ez bada erabiltzen haur eta gazteen hezkuntza prozesuan eta transmisioa ia etenda badago, benetan zaila izango da hizkuntza horren erabilera normalizatzea enpresan. Hortaz, ez dauka zentzurik hizkuntza horri enpresan funtzioak emateak. Enpresa gizarteko kate-maila bat gehiago den heinean, bete egin behar du dagokion erantzukizuna, baina aurretik gizarteko beste arlo batzuetan ere hizkuntza hori erabiltzeko eta indartzeko asmoa edo plangintzatxo bat egotea komeni da, arrakasta izateko (transmisioa, irakaskuntza, aisialdia, komunikabideak...).

Zalantzak kasuetan, **gutxieneko erabilera** eskaini dakioke hizkuntzari **elementu finkoetan**, adibidez errotulazio nagusietan hizkuntzaren presentzia bermatuz.

- Arazoa: **prestigiorik ezak inplikazio baxua** dakar, eta **inplikazio baxuak prestigiorik eza**. Non sartzen da Fagor eta zein da bere egitekoa?
 - Arrakastarako aukera gutxiengoak ziurtatu behar dira, onuragarria izan dadin eta ez kalterako. Beraz, lekuan lekuko kasua ondo aztertzea komeni da.
- **Ofizialtasunaren gaineko hausnarketa**: kontuan hartzeko moduko faktorea izan daiteke hizkuntza bat ofiziala izan ala ez, Fagorrek bere plantetan erabiltzeko?

Ez dut uste hala izan behar duenik. Izan ere, aho biko ezpata izan daiteke ofizialtasunarena. Hizkuntzen berdintasunaren eta duintasunaren printzipioa ofizialtasunaren gainetik jarri behar da beti, eta hori izan behar da iparra. Kasu batzuetan, bultzatu beharreko hizkuntza ofiziala edo koofiziala izateak lagun dezake argumentuz janzten, baina beste batzuetan erabat zilegi izango da enpresak ofiziala ez den hizkuntza erabiltzeko erabakia hartzea. Hortaz,

ofizialtasunarena ez dadila bete beharreko irizpidea izan, ez baita neurri ekologikoa, eta hain zuzen ere horixe da saihestu nahi duena hizkuntza ekologiaren teoriak. Hizkuntza guztiak dira duinak, eta denek dute garapena izateko eskubidea.

Adibide modura, paradoxikoki, Marokon frantsesa ez da ofiziala, baina gobernuak eta enpresek frantsesez betetzen dituzte funtziorik gehienak, eta irakaskuntzan ere hainbat eskolatan frantsesa irakasten da.

Eta, **zenbat hizkuntzatan funtzionatu** behar du Fagorrek?

Ez da erraza galdera horri erantzutea, ez baitago zenbaki perfekturik, eta balekoak izan daitezkeen makina bat aukera egon daiteke. Labur-labur, esaldi bakar batean jaso nahi nuke filosofia orokorra:

- Alferreko lanik ez hartu, baina beharrezkoak diren guztiak erabili.

Alegia, aholku praktiko pare bat:

- Ahalik eta hizkuntza gutxien enpresaren barne-funtzionamendurako, baina behar diren guzti-guztiak erabili.
- Lekuan lekuko hizkuntza bat baino gehiago dagoenean, aztertu egin beharko da kasu bakoitza.
- Elkarrizketatuen iritzia nahiko bateratua izan da: gehienez ere hiru plantako.

Aurrera begirako proposamen zehatzak:

3.4.3.- Etorkizunerako proposamen teoriko-praktiko bat

‘Hizkuntza bakoitza bere lekuan,...

...eta leku bat hizkuntza bakoitzarentzat’

PROPOSAMEN TEORIKO-PRAKTIKO BAT: PLANTA BAKOITZEKO BARNE FUNTZIONAMENDUA, PLANTEN ARTEKO HARREMANAK ETA FORMAZIORAKO PROPOSAMENAK (1. grafikoa)






Diagrama erakargarria: Fagor plantak eta Zentrak erabiltzekoak diren dokumentu guztiak ingelesez. Diagrama honetan, Fagor plantak eta Zentrak erabiltzekoak diren dokumentu guztiak ingelesez. Diagrama honetan, Fagor plantak eta Zentrak erabiltzekoak diren dokumentu guztiak ingelesez. Diagrama honetan, Fagor plantak eta Zentrak erabiltzekoak diren dokumentu guztiak ingelesez.

PROPOSAMEN TEORIKO-PRAKTIKOAREN GRAFIKOARI BURUZKO AZALPENAK:


(1. grafikoa)



>>> oro har, zein hizkuntza erabili beharko litzatekeen plantako ahozko barne funtzionamenduan: A hizkuntza + B hizkuntza (+ C hizkuntza)
A eta B hizkuntza nagusi modura, eta parentesi artean agertzen den C hizkuntza – hedadura handiagokoa – beharra dagoenean bakarrik, adib.: solaskide askok ulertzen ez dutenean




>>> zein hizkuntza erabili beharko litzatekeen bi planten arteko ahozko komunikaziorako: A hizkuntza + B hizkuntza (+ C hizkuntza)
A eta B hizkuntza nagusi modura, eta parentesi artean agertzen den C hizkuntza – hedadura handiagokoa – beharra dagoenean bakarrik, adib.: solaskideak oraindik aurreko hizkuntza(k) menperatzen ez d(it)uenean




>>> Proposamen teoriko-praktiko hori praktikan jartzeko formazio-plana diseinatu beharko litzatekeenez, enpresa-ikuspegitik dauden harremanak kontuan hartu ditut eta formazio-planerako interes berezia duen hizkuntzak zehaztu ditut, befiere hizkuntzen garapen iraunkorraren ikuspegia kontuan izanda.

(2. grafikoa)



>>> oro har, zein hizkuntza erabili beharko litzatekeen plantako barne dokumentuetan: A hizkuntza + B hizkuntza (+ C hizkuntza)
A eta B, hizkuntza nagusi modura, eta parentesi artean agertzen den C hizkuntza – hedadura handiagokoa – beharra dagoenean bakarrik.



>>> zein hizkuntzetan egon daitezkeen bi planten arteko dokumentuak:
A hizkuntza + B hizkuntza
C hizkuntza
Dokumentuaren formatua A eta B hizkuntzetan egon daiteke, ele bietan. Azpian agertzen den C hizkuntza – hedadura handiagokoa – hiru planta edo gehiagotara zabaltzen diren dokumentuetarako bakarrik.

3.5. Proposatutako hizkuntza-politikaren oinarriak eta azalpenak

Proposamenaren oinarriak: Proposamen hau lantzeko orduan hizkuntza-ekologiaren eta garapen iraunkorraren irizpidea hartu dut oinarri. Lekuan lekuko egoera optimoak edo on samarrak irudikatzen saiatu naiz. Halaber, Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresarentzat puntu honetan idatzitako gomendioak eta jarraibideak kontuan hartu ditut eta horiek aplikatzen saiatu naiz. Bestalde, gaur egungo hizkuntza-funtzionamendua eta plantetan dagoen ezagutza ere kontuan izan ditut, eta saiatu naiz egungo errealitateari lotzen. Teoriari eman diot, hala ere, pisu handiagoa.

Erabilitako hizkuntza-irizpide nagusia: SUBSIDIARITATEAREN PRINTZIPIOA

Hauxe da nire planteamendua eraikitzeko erabili dudan zutabe nagusia, eta hauxe dio, labur-labur adierazita: **hizkuntza lokal batean egin daitekeen guztia ez dadila egin hizkuntza globalago batean**. Horrela, tokiko hizkuntzari funtzio eskusibo eta espezifikoko batzuk ziurtatuko zaizkio, hedapen handiko beste hizkuntzen aurrean babestuz.

Albert Bastardas irakasleak hauxe dio *Subsidiaritat lingüística i funcions exclusives per al català* artikuluan (Avui, 2004-12-25): ⁽⁸⁾

(...)La complexitat sociolingüística de la Catalunya actual posa, de fet, damunt de la taula problemes de caràcter mundial que cal saber resoldre amb intel·ligència i justícia. (...) Com s'hauria d'organitzar una distribució no-jeràrquica i adequada de funcions entre els codis propis (locals) i els d'intercomunicació general (globals) que no afavorís els processos de substitució lingüística? (...) Com veiem, aquesta problemàtica és absolutament glocal, és a dir, local i global alhora i d'abast mundial, i no pas ja únicament un problema de determinats grups minoritaris. Crec que és el moment de cercar principis ben generals i internacionals per a la resolució de les situacions lingüísticament conflictives. Veig, per exemple, que de l'examen de les possibles solucions de convivència de la diversitat, en podria sortir una mena de principi de subsidiarietat lingüística -com el que ja s'aplica a Europa en l'àmbit de l'administració- que vindria a dir que tot allò que puguin fer les llengües locals no ho han de fer les llengües més globals. És a dir, els codis locals han de tenir el màxim possible de funcions, deixant només les estrictament necessàries als codis més globals. I no pas, doncs, a l'inrevés com el fet de l'extensió de la competència en les llengües internacionals pot dur-nos a creure. Si tot ho poden fer les llengües més globals -per tal com cada dia seran més conegudes- per a què haurien de servir els idiomes locals? Crec, doncs, que la clau és la distribució de funcions, de caràcter no pas jeràrquic ni asimètric i afavorint per defecte sempre els codis locals. D'aquesta manera es podria fer possible un resultat que pot semblar incompatible a primer cop d'ull, és a dir, la preservació de la diversitat lingüística i alhora el coneixement de grans llengües d'intercomunicació per part de la majoria de la població mundial.

Cal tenir en compte que perquè puguin sobreviure les llengües locals en la globalització general cap a la qual anem avançant és fonamental que aquestes puguin disposar d'importantes funcions exclusives, és a dir, de comunicacions públiques -a part de les privades- que no siguin efectuades habitualment per cap més llengua. Així, la llengua serà sempre útil i instrumental, i tindrà sentit la seva continuïtat intergeneracional i/o el seu aprenentatge per les persones que no la tinguin com a llengua primera. Si passem això a Catalunya, l'exemple és clar: si tot ho pot fer també el castellà per a què ha de servir el català? (...)

En la poliglòtització ordenada i eficaç dels individus i en l'acurada distribució de funcions veig les idees-força de l'organització lingüística de la Catalunya futura.(...)"

(8. puntuko eranskinean aurkituko duzue itzulpen automatiko bidez gaztelaniara itzultako testua, bide batez frogatuta gera dadin zein erabilgarri eta lagungarri diren tresna horiek)

Printzipio nagusi horrez gain, kontuan izan ditut beste hauek ere proposamena lantzerakoan:

- **Hiztunen hizkuntza-aniztasuna eta aberastasuna bultzatzea**, ahal dela. Gaur egun gutxienez elebidun izan beharko lirateke langile guztiak. Gainera, eleanitzak diren pertsonen gaitasun kognitibo handiagoa omen dute.
- Gune bakoitzean **kanpora begirako harremana duten langileek 3 hizkuntza** menperatzera jotzea, ahal dela. Horretarako, hizkuntza bat baino gehiagorekin jarri dira kontaktuan, bai ahoz edo bai idatziz (adibidez, Polonian dagoenak kanporako

dokumentu finkoetan euskara, frantsesa edo ingelesa ikusiko ditu, eta ahoz kanpora begira gaztelania eta ingelesa erabiliko ditu.

Hauxe da Joseph Poth hizkuntzalariak gai honen inguruan erantzundakoa (UNESCOren ALBISTARIA aldizkaria, 119. alea, 2000ko urria)

"Zein da nazioarteko hizkuntz politikaren helburu nagusia?

Gizarte guztietan hiru hizkuntza egitea. Dena den, estatu batzuetan aspaldi lortu zuten helburu hori. Besteak beste, Luxenburgon. Galdetu bertakoei: "Aberatsak zaretelako izan al duzue hiru hizkuntza ikasteko aukera?" Eta hauxe erantzungo dizue: "Aberatsak gara, bai, baina hiru hizkuntza dakizkigulako gara aberatsak."

Hiru hizkuntza ikasi behar omen ditugu. Baina, zeintzuk?

Ama-hizkuntza, jakina, inguruko hizkuntzaren bat eta, azkenik, nazioarteko beste bat. UNESCOren hizkuntz politikan baztertu egin dugu "atzeritar hizkuntza" kontzeptua eta "herrialde mugakidearen hizkuntza" terminoa hasi gara erabiltzen. Elkarren ondoan kokatutako estatuen artean sortzen dira gerra gehienak eta horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa herrialde mugakidearen hizkuntza ikastea, bertako premiak, nahiak, kulturak eta balioak ezagutu ahal izateko, alegia."

- **Lekuan lekuko langileen artean hizkuntza gutxitu(ar)en aldeko ikaskuntza-prozesua indartuko duen neurriak hartzea:** Horretarako erabilera-neurriak hartu dira eta lekuan lekuko hizkuntzei funtzio eksklusiboak eman zaizkie, subsidiaritatearen printzipioan oinarrituta. Horrela, langileak lekuan lekuko hizkuntza gutxituak ere ikasteko beharra sentituko dute, plantako funtzio eksklusibo batzuk hizkuntza horretan izango baitira eta lanpostu-eskaintzetan ere eskatuko baita. Hori hizkuntzari prestigioa ematea da.
- **Ingelesari funtzio guztiak ez eman (uniformizazioa saihestu):** ingelesa nonahi eta zernahitarako ez erabiltzeko irizpidea zaindu. Izan ere, hedapen handiko hizkuntza bat leku askotara eta funtzio inportante askotara zabaltzen bada, ekolinguistikaren ikuspegitik oreka guztia bertan behera etortzeko arriskua dakar horrek.

Hauxe da Roland J.-L. Breton, Geolinguistikako aditu eta Paris VIII Unibertsitateko ohorezko irakasleak gai honen inguruan dioena (UNESCOren ALBISTARIA aldizkaria, 119. alea, 2000ko urria).

(...) ingelesa erabat nagusitu da diplomazian eta, gutxinaka-gutxinaka, harreman ekonomikoetan, komunikabideetan... Badirudi ingelesak monopolioa lortu duela mundu osoko komunikabideetan. XXI. mendearen hastapenetan gaudela, bistakoa da mundializazioa ziztu bizian ari dela hedatzen ekonomian eta, horrekin batera, ingelesaren erabilerak gora egin duela alor guztietan. Gero eta gehiago dira mezuak ingelesez igortzen eta jasotzen dituztenak, norbere hizkuntza erabili beharrean. Askori berdin dio, gainera: planetan gailentzen ari den uniformizazioarekin bat datoz. Ingelesak leku askotako biztanleekin harremanak zuzenean izateko aukera ematen duela uste dute. Ikuspegi horren arabera, uniformizazioa aurrerapausoa dugu, baliabideak aurreratzeko modua eta kultur trukeak errazteko bidea. Ildo horretan, ingelesa mundu osoan nagusitu arren, ez omen dira lekuan lekuko hizkuntzak galduko. Aitzitik, nagusitasun horri esker, entzule gehiagorengana heltzeko aukera izango dugu denok. Baliteke. Baina besterik gabe onartzen badugu, begiak itxi egingo zaizkigu eta ezingo ditugu ikusi askatasun indibidualaren eta botere politikoaren arteko loturak edo hizkuntza, gizarte eta ekonomietako mekanismoen artekoak. Mekanismo horiek berez sortzen dira gizarteetan, bai gizabanakoaren eta taldearen arteko harremanetan, bai kulturaren eta talde-egituren arteko harremanetan. Hizkuntzarik egokiena edo egokienak erabiltzeko gaitasunaren arabera egin ohi du gora gizabanakook gizartean. Eta, denboraren joanean, belaunaldiz belaunaldi, izenik handiena lortzen duen hizkuntzak baztertu egiten ditu gainontzekoak. Inperialismo kulturala ez da inperialismo ekonomikoa bezain agerikoa. Bigarrena ere ez da inperialismo politiko eta militarra bezain nabarmena, horien gehiegikeriak bistakoak izaten baitira eta, beraz, erraz salatzeko modukoak. (...) Etnozidioa edo herrien deskulturizazioa izan da, hain zuzen, iraganeko kolonizazioen funtsa, eta gaur egun ere horixe da Estatu Batuen helburua, hala aitortu ez arren. Toki-hizkuntzak irakaskuntza-sistemetatik kanpo ari dira geratzen eta, ondorioz, "erailketa" prozesua are

azkarragoa izango da. Bi alor bereizi behar ditugu XXI. mendeko hizkuntz arazoan inguruan. Batetik, zer egin behar dute hedadura handiko hizkuntzek edo estatu-hizkuntzek ingelesaren inbasioari aurre egiteko? Bestetik, zer egin behar dute arriskuan dauden hizkuntzek edo hizkuntza minorizatuek bizirik iraun eta garatu ahal izateko?

- **Hizkuntza endemikoak bereziki zaindu eta babestera jo**, eta ezinbestean horiei eman lehentasuna. Adibidez, euskara desagertzen bada, ez dago munduan beste komunitaterik euskara erabiliko duenik. Ondorioz, denon (mundu osoaren) ondarea den hizkuntza hori desagertuko egingo litzateke. Horregatik da inportantea munduko hizkuntza-aniztasunerako hizkuntza endemikoak ondo zaintzea eta lehentasunez horiei ematea funtzio sozialak.

Proposamenaren testuingurua: Proposamen hau ez dago diseinatuta nahitaez bere horretan bete behar izateko. Proposamen hau ez da perfektua. Proposamen honek aldaera eta bariante asko izan ditzake, eta denak balekoak gerta litezke. Gainera, hizkuntzaren alorrean makina bat faktorek eragiten dute, eta nik kontuan hartu ezin izan ditudan hainbat faktore egon daitezke (eta egongo dira, noski) berebiziko eragina izan dezaketenak hizkuntza baten erabilera-aukeretan, besteak beste lekuan lekuko hizkuntzen gaineko ezagutza-maila, erabilera, langileen hizkuntza gutxituekiko motibazio-maila, hizkuntza gutxituen corpus-egoera, langileek interlinguen inguruan dituzten ezagutza-mailak, bestelako oztopoak,...

Honako hau, beraz, kanpotik begiratuta eta hizkuntzen iraunkortasunaren betaurrekoak jantzita egindako proposamen bat besterik ez da, abiapuntu modura eta erreferentzia modura balekoa izan daitekeena. Proposamen hau epe luzerako planteamendua da, eta apustu bat egitea eskatzen du. Hori bai, horretarako ezinbestekoa da enpresak berak hiru edo lau kontzeptu ondo barneratzea.

Hala ere, dena ez da beltza ala zuria, tarteko koloreak ere baditugu, zorionez, eta zilegi da erdibideko erabakiak hartzea, hizkuntza-ekologiaren eta praktikotasunaren arteko orekari eusteko gai bagara behintzat. Hortaz, enpresari berari dagokio hausnartzea eta erabakiak hartzea: zein balio landu nahi dituen zehaztu, irizpide-aukera ezberdinen gaineko AMIA egin, abantaila gehien dituen ildoak aukeratu, indarrak neurtu, bideragarritasuna aztertu, eta helburura iritsi ahal izateko plana egin. Har bedi, beraz, malgutasunez, eta erabil bedi hausnarketarako abiapuntu modura.

Amaitzeko, aipatu nahi dut hizkuntzak gauza biziak direla eta egoerak asko aldatzen direla urte gutxiko epean. Poloniako plantan, esaterako, asko aldatu da hizkuntza-aniztasuna azken urteotan (50 lagunek ikasi dute gaztelania, eta Arrasatetik joandako zuzendaritzako 4-5 langilek oso txukun erabiltzen dute poloniera), eta Marokon, aldiz, oso gutxi aldatu da hizkuntza-jarduna. Beraz, gerta liteke orain egindako azterketa ez egokitzea bi urte barruko errealitateari.

Bestalde, normala den moduan, planta bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu eta proposamen hau izan daiteke egokia planta batean aplikatzeko, baina ez, ordea, beste baterako, dena delako faktoreak izan dezakeen eraginagatik. Azken finean, hizkuntza-jarduna egokitzeak aldaketa kultural dezentea ekar liezaieke langile-talde batzuei, eta ez dakigu zerekin egin dezakegun topo. Langileei iritzia eskatzea eta aldaketak proposatzen diren lekuan metodologia parte-hartzailea erabiltzea litzateke gomendagarriena, inondik ere. Erabakiak adostasunez hartzea, alegia. Hau da, hiztun-komunitateak nahi ez badu eta bere hizkuntzari eusteko borondate nahikorik ez badauka, hor enpresak ezin du ezer egin. Hori ere argi izan behar da.

Horrez gain, hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko prestasuna pertsonen gorabeheran dago eta ezinezkoa da den-dena planifikatzea. Izan ere, hiztunaren esku egongo da beti hizkuntza bat ala bestea erabili. Atzerriko plantetik harremanetan, esaterako,

komunikatzeak dauka garrantzia eta horri aitortu behar zaio lehentasuna. Gainera, ez dut uste dena planifikatu beharra dagoenik. Inportanteena filosofia eta helburua garbi izatea da, eta ildo orokor batzuk eta horren arabera formazio-estrategiak diseinatzea, epe luzera helburuak lortzeko. Hala ere, uste dut proposamen teoriko-praktiko honen oinarri filosofikoak ekarriko dizkiela hainbat onura eta abantaila, bai enpresari, bai langileei eta baita hizkuntzen osasunari, hain zuzen ere.

- **Langileei ekarriko dien onura:** eleanitzak izatera bultzatuko ditu langileak. Tokian tokiko plantan barne-funtzionamendurako aurreikusita dauden hizkuntza-erabileren arabera, lanpostuaren arabera eta beste planteekin izan ditzakeen kanpo-harremanen arabera, hizkuntza bat ala beste bat ikasi ahal izango du langileak. Bakoitzak hiru hizkuntza jakitera iristea litzateke onena. Hori oso onuragarria litzateke bai arlo profesionalerako eta baita norbere garapen pertsonalerako ere.

